

HAIZEAZ  
BESTALDETIK

*Txillardegi*

HAIZEA  
BESTALDETIK

*Azala:* Juan Mari Indo  
Legezko Gordaillu 113/79  
I. S. B. N. 84-300-0577-3

## HITZAURREA

Saio hau nobelarik baldin bada, edo, ez dakit hau, nobela hau, apokalipsi garbia ez bada, izan ere, nobela bat al da obra hau?

"Novela antzekoa", zeritzon L. Mitxelenak ares-tian Leturia-ri eta "novela antzekoa", berriro, Peru Leartzakoa-ri urte batzuk geroago. Txillardegiren nobelarekin beti egon dira problemak. Eta, berriz ere, kritikoen eta katalogazaleen batere ardura ga-be, Txillardegik, berak behar zuen bezalako jene-roa sortu du eta berak konzebitzen zuen bezalako "nobela".

Bai, nobela bat duzu hau.

Txillardegiren nobela bat, nobelatasunaren mu-ga-mugan. Kontzientzi azterketa baten mugan. Apokalipsi baten mugan. Ipuin bat, ordea, ez da. Kontakizun bat. Abentura bat. Hasiara puntu bate-tatik bukaera batetara doana, istorio artean.

Ez da puntu mikroskopiko baten sekzionamen-du mikroskopikoa ere; hitzetan, esalditan, ebaki-

tako edozein errealitate puska. Eto, gutxiago, espresabideen beren abentura bat: espresabideak, bi-deak dira berriz ere, eta norabait ailegatu nahi dute. Guzti horretan, Txillardegik, betiko bere moduari atxeki zaio, betiko bere konzepzioei leial, zer den idaztea, zertarako den idaztea, etab. Hori dena bait dago nobelaren konzepzioan inplikaturik.

Txillardegik euskal nobela modernoa abiatu zuenetik, 56an, hogeitasei eta piko urte joan da. Nobela hura uhin haundia izan bazen, gero ere izan dira uhinak. Nobelagintza modu berri batek, bereziki, arrakasta izan du —Saizarbitoriarenak—, "nobela modernoa" hori eta horixe bakarrik dela, jendearen artean inpresioa zabalduz, kritikoren batzuen laguntzaz, edo konplizitatez. Txillardegik "superatuta" geratu zen...

Nik ere uste dut Txillardegik "superatuta" geratu zela. Baina ez, berea beste modu berri hori ez zelako: bere moduan ere aurrera aurkitzen ez zuelako baino. Ez zion bere buruari gain hartzen. Txillardegik bere nobelagintza modua agertu zuen, 50gn urteetan; baina, gero, mila beste arazotan nahasturik, desarroilatu gabe utzi zuen. Ez zuen gehiago laboratu, zorroztu. Repetitu egiten zuen.

Nobela honetan mila gauza berri dago, Txillardegiren lehenagoko obraren aldean. Txillardegik eraberritu egin du bere nobelagintza. Oraingoan, besteetan ohi zuen baino gehiago erabili ditu nobelagintza "berriko" moduak berak. Baina, agian, erabili dituelakoxe, hobeto erakusten du, horiek, teknika horiek, eta Txillardegiren kasuan eta obran, ez direla gorabehera inportanteenak, zinezko berri-

kuntzarik lortzeko; Txillardegik beste "teknika" batzuk badituelako bere-bereak, bere obrak bere-bere bihurtzen dizkionak, bere modu konfundiezina, berak asmatu duena eta desarroilatu duena, deskonzertatzen ere gaituena ez gutxitan, eta oraingoan benetan esplotatu diguna.

Eraberriturik eta barren-berriturik ere, hau nobela "berria" izanik ere, betiko Txillardegi huraxe da hemen daukaguna. Ez gaiagatik eta problematikagatik bakarrik: betikoaren inguruan beti. Baina bestela ere: hasieran, eskaintzak, ez dauka urruti Huntaz eta Hartaz-ko eskaintza; bukaera, Leturia-ko berbera da. Aldenik alde, Txillardegiren obra guztia obra honetan dago. Hemengo pertsonaia, bere ausentziaz presente dagoena, Txillardegiren betiko pertsonaia da. Hemengo denbora —mitikoa— Txillardegik beti borraratu egin zuen denbora da: gogora Leturia: udalen, uda, udazken, negu... Ez dago denborarik. Ez dago pertsonaiarik. Akziorik ez dago. Espaziorik ez dago. Espazioa irreal da ("Zerubide"! ). Denbora irreal da... Beraz, Txillardegik, ezagutzen genizkion bere karakteristika formalak, ez ditu abandonatu, guztiz radikaldu egin dizkigu, estremismoraino. Nobela egiteko —desegiteko— modu bat da. Baina, barrurago, Txillardegiren konzepzioak dira, gizonaren, esistentziaren, etab., nobelak holakoxea izan beharra behartzen dutenak. Esistentziaren konzepzio bat da, nobelaren konzepzioa sostengatzen duena.

Egia esateko, ez zait asko gustatzen eskola ohitura hori, alegia, nobela konzeptu bat hartu, nobela zer den, arrunt, orokar, edozein nobela eta nobela

guztiak, eta eskuin-ezker konparaketak egitea. Ge-reñoren nobela eta Urkizuren nobela. Saizarbitoria-ren nobela eta Txillardegirena. Dena da "nobela" eta dena kriterio berdinekin epaitzen da. Gauzak konzeptuekin neurtu. Eta zerekin neurtzen dira konzeptuak? Leturia bere gisako nobela da; 100 metro, ordea, nobela izango da edo ez da, ez dakit eta ez dit inporta, baina aldez aurretik denok garbi dakiguna, da, beste gauza bat dela zeharo. Beste gauza bat. Kafesnea eta bisigu errea. Bakoitza gauza bat da.

Leturia idatzi den moduak berak indikatzen du, hau, nobela hau, holaxe izateko arrazoi askorekin sortu dela, arrazoi horiengatik dela holakoxea, eta ez daukala holaxe moduzkoa izan beste erremedio-rik, tankera aldetik, bere izateko arrazoa —hots, konzepzio estetikoak, filosofikoak, sozialak eta di-renak direlako denak— eta bere izaera osoa galdu gabe. Leturia den "hori", horrelakoxea izateagatik da hori. "Hori", bestela, ez da hori. Eta nobelagintza berriena "hori" ez bada, eta nahi ez badu izan, guri ederki iruditzen zaigu: beste gauza bat da. Beste konzepzio estetiko, filosofiko, inguru bati erantzuten dio.

Txillardegik bere moduaren barruan jarraitu du honetan ere. Ez dago nobela bat, nobelagintza modu bat. Nobelak eta nobelagintzak daude, modu diferenteak (eta orain, euskaraz, badugu, zorionez, nobelaginza modu bat, edo bi, edo hiru baino behiago). Ez dugu esango Txillardegik bere modua hasiera-hasieratik perfektu zerabilkie-nik gutxiagorik ere. Txillardegiren nobeletan, hu-

tsak eta defektoak bilatu nahi zituenak, neke haundi gabe aurki zitzakeen (gramatikalak ere, nonbait: Orixek halako ehundaka ateratzen zizkion!). Baina Txillardegiren nobelagintzako hutsak, bere moduaren barruan, ez arras bestelako modu baten aldean, ikusi behar dira huts bezala. Nola eta ez dugun, behintzat, nobelagintza modu bat beste gabe eta erabat hobesten. Bestela, modu batetan oso inportante izan litezkeen gauzak —elkarrizketa muntaketak, plano konbinatuak, etab.— izan litezke inportantzia haundi gabeko alderdiak bestean, honen desarroiloak beste lege batzuei obeditzen dielako, beste elementu batzuen desarroilo esijentziaz. Esan nahi dut, esate baterako, ez dela ezer kostako karaktere estudio hobeak edozein nobelatan aurkitzea Txillardegirenetan baino, seguru asko; baina, kontua da, karaktere estudio zorrotz baten premiarik ba al duen Txillardegiren nobelak, ala hemen, beharbada, sobera legokeen. Beharbada nobela berri honek argirik ematen digu, lehenagoko Txillardegiren nobelagintza juzkatzerakoan ere, gure ikuskerak perspektiba zuzenera itzultzeko. Uste bait dut, Saizarbitoriaren agerpenak piska bat denok liluratu gintuela, guztiok modu berri honetara eskusiboki samar begira jarriz, nobela moderno bat egiteko bide hori besterik geldituko ez baltz bezala.

Txillardegik, bada, egin zitekeen modu baka-  
rrean egin du bere moduaren legitimotasun probaketa: bere modua desarroilatuz, perfektionatuz. Ezerk poztu bagaitu, horixe izan da: ikustea, zenbat fruktifikatu duen Txillardegiren nobelagintza, be-

re kontrarioa zirudienak. Ito egingo zuela, beldur ginenok —euskal literaturan, sarri, modu berriak aurrekoa itoaz bakarrik ailegatzen dira— aitzitik, eman dion laguntza eta bultzada, zebebratzen dugu. Txillardegik hartu egin du desafioa. Gogor egin du, egin ere, bere haizkora saioa. Inoiz egin duen bakainena. Eta esperantza sortu digu, berea ezezen, Saizarbitoriak errebrerentatzen duen nobela berriak, mehatxu bat izan zitekeenak beste nobela moduentzat, euskal nobelagintza guztiaren eraberrikuntza eragin lezakeela, bazterrerazi edo absorbitu ordez.

Txillardegik etapa berri bat hasi, baina bukatu ere berak egin zuela, uste zuenari, eta ziklo bat hertsu zuela, esaten zutenei, honoko nobela honek besterik erakusten die.

Eta ez dut esaten, Txillardegi, honekin, bere moduaren perfekziora heldu denik (zer ote da hori?). Bakarrik, desarroilatzeraz heldu dela. Bere modu horretan mila forma zahar eta berri entseiatzeko problemarik batere ez dagoela, erakutsi du, irudimenik izanez gero, eta horixe nahi nuen seinatatu. Nobela modu batek ez duela beste bat kondentatzen. Txillardegi bere moduaren barrutik aritu da. Barrutik egin du eraberrikuntza. Nobelak bere baitan izan ditzakeen alderdi positiboak eta negatiboak xehekiago aztertzea, ez da hemengo egin-kizuna.

Beraz, funtsean lehengo bide beretik dator. Txillardegiren betiko bidetik. Baina, pertsonaiarik, esate baterako, nobela honetan ez dago... Egia da. Meditazio hutsa?... Baina ba al zegoen pertsonaia-



rik beste nobeletan ere? (Elsa Scheelen piska bat aparte geratzen da). Pertsonaiak al dira Peru hori eta Leturia hura? Beti ere atentzia ematen zigun, Txillardegik bere pertsonaien desarroiloa arras deskuidatzen zuela. Beren izen eta deitura eta guzti dena mozorro hutsa, itxura emateko, pertsonaia topikoak ziren. Anonimoak. Autonomiarik batere gabekoak, hobeto esan. Autoreak bere gogara zera-biltzan, txontxongilo antzean: nahi zituen bezala aprobetxatu —eta gero hiltzen utzi, gehiago behar ez zituenean. Haien presentzia ausentzia bat zen. Itxurazkoa zen presentzia. Oraingoan pertsonaiak, edo pertsonaia bakarra —bere ausentziaz presente— osoki desagertzen bada, edo oroimenen eta gogoeten urgaineko irudi errainua bada gehienez ere, argitasunik ematen digu, nik uste, beste pertsonaia haiekin ere, izan eta ez izan artean, zer gertatzen zen: bere nobelaren karakterean, estorbu bat ziren, Autorearentzat, laguntzarik adina. Autoreak, ez zituen desarroilatu nahi, ezin zitzakeen desarroila. Bere nobela desfiguratu bait zioten bestela. Bere "gauza" galduko zioten. Eta "gauza" zen protagonista. Autorea ez zen interesatzen, ezinbestean asmatu pertsonaia horietaz, bere "gazarako" behar zituen baino gehiago.

Leturia-n jadanik, nobelako bai argumentoa eta bai protagonista, Leturiaren gogoetak zirela, izan genuen susmoa. Ideien desarroiloak azken burua jotzen zuenean, pertsonaia —aitzakia hura— utz zitekeen hiltzera. Ideien desarroiloa hiltzen zuen.

Esku artean duzun nobela honetan, konbentzio hori ere kendu egin da, pertsonaiarena. Horrela

ideiek hobeto eta garbiago aurkitzen dute pertsonaia, protagonista, berak bilakatzeko bidea.

Hemengo pertsonaia anonimoa, Zarathustra berri hau, bere narrazioa da. Izan, esaten duena, da Zarathustra. Bere gogoetak. Pertsonaiak, pertsonaia bezala, ez du deus kontatzen. Ideietan bizi da.

Gizona —ulertu uste izan dugu maiz, Txillardegiri irakurtzerakoan— ez da ezer, kosmoaren aurrean bakarrik dago, hutsik dago, ez du izenik, ez du presentziarik. Bada; baina gehiago da, ez dena. Gizonaren konzepzio bat dago, noski, nobelaren oinarrian. Txillardegirena, beste zenbait aldiz eta lekutan ere azaldua, sinbolo artean dabilkigu oraingoan. Batetik nobelaren egitamua bera eman du, oraingoan, giza konzepzio harek: kontzientzia galtzearen eta berriro eskuratzearen arteko mugamugan desarroilatzen da nobela hau. Bestetik, errealitate bikoitz batez betetzen du nobela, nobelan errealitate bakoitza: itsasoa, lehenengo, itsasoa da, Gethari ondokoa edo Muitza azpikoa; baina, gero Itsasoa da, letra haundiz. Lakua, lehenengo, Sous-ton-go lakua izan daiteke, ahatez eta txalupaz; baina, gero, gizonaren zorion sentimendu bat izan daiteke, edo gizaseme kaskar mugatu hau berau. Eta, nobelan, errealitate biak konfunditu egiten dira abil-abilki. Errealitate batetan zoaz eta, bat-batean, bestean zaude. "Gizona" bera, konzientzia galdu, ez galdu, dabil, "basamortu haizegabe eta ezinago gogor horren ertzean".

Haize, basamortu..., sinboloak. Beste nobeletan parkea, etc., sinboloak ziren bezala.. Baina sinboloak badira, ez da esan nahi, errealitaterik ez di-

rela. Aitzitik, sinboloak dira, horixe da beren errealitate. Zer da bizitza, ametsa baino? Gizona, alegia baino?

Hil eta gero segituan, —baina heriotzak ez dauka fisikoa izan beharrik, heriotze metafisiko bat izar liteke, heriotze mistikoa, nirvarana sartuz edo bezala—, lehenengo momentuan, hil eta gero, gizonak, nondik datorren, gogoratuko balu bezala da. Denbora ere, beraz, ez da denborarik, pasatzen denik, etortzen denik, egon dagoena baino, dena batera presente. (Leturia-ko denbora ere gehiago zen sinfonia batetako lau tenpoak). Denbora, nobela batetan, ehun metro korritzeko segunduen espresio minimotara herstu daiteke, banan-banan kontatzeko puntuetara; orduan, segunduak berak, denbora, kasi irrealtasuneraino ebakia, akzio bihurtzen da. Edo denbora denboragabetasunean ur daiteke; orduan, akzioa ez da denborazko lerroetan mogitzen, infinitoan bezala baino. Hildakoaren erreinutik atzera begira, hobe —erreinu hori ez bait dago nobelatua— bizitzan partizipatzen ez duenaren denboragabetasunetik begira, ez dago propioiki orainik eta gerorik. Zazpi egun dago, edo zazpi ordu, zazpi, edo zazpi bider zazpi, berdin.

Zazpi, zenbaki mitiko-sinbolikoa zen jadanik egiptotar, babilonio, persa, hebreo, grekoentzat: zazpi egunetan egin zen kreaioa eta zazpi ziren Greziako jakintsuak; zazpi munduko miresgarritasunak, zazpi itsasoak, zazpi infernuko zirkuloak; zazpi ate zuen Thebasek, zazpi beso kandelario liturgikoak; zazpi dira Jesukristoren agoniako hitzak, sakramentuak, Izpiritu Santuaren dohainak,

*bekatu kapitalak: zazpi dira koloreak, eskala musikaleko notak, asteko egunak...*

*Apokalipsia gogoratzen du nobela honek, hitzez hitz, lerroz lerro, irudiz irudi. Apokalipsi batetan denak balio sinbolikoa du: ikusten denak, esaten edo egiten denak. Zenbakiek, gauzek, desarroilatzen diren ekintzek, pertsonaiek (hemen, haien faltak), animaliek, paisajeek. Kapitulu banaketak. Apokalipsi batetako hizkuntza mitologikoa da, enigmatikoa. Estiloan bertan, makina bat aldiz, Daniel, Ezekiel, Joanes Patmoskoa, ezagutzen ditugu, laino artean bezala, testoaren atzetik.*

*Eta nobela guztian zehar, mugagabe eta mugatuaren arteko dialektikan, borrokan, Tekoan artzain zen Amos profeta zaharraren intziria entzuten dugu eta Iahweren orroa:*

*Jaunak Siondik orroa dagi,  
Jerusalendik deihadar...*

**AZURMENDI**

Itsaso bareaz  
Itsaso zabalaz  
Itsaso baztergabeaz  
Itsasoaz  
etsi ondoren  
osotara  
etsi;

... eta apalki eta zuhurki.  
beren giza atsedeen bakartzat  
arrastiri laburretan...  
arrastiri laburregiotan...  
laku isiletako olerki iheskorra  
tantoka tantoka  
edoskitzera deliberatu dutenei.

## I

... Eta aldegin egin nuen, horretara, geroago eta aldeginago, geroago eta urrunago.

Eta beti ere haratago, eta beti ere urrutirago hastandu nintzen; eta oinazeen eta deihadar etsien mortuan arrunt lekoreraino heldu ere bai... baita ezein ihesle inoiz iritsi ez den parajeraino...

Eta ezinbestezko lehorralde beldurgarri haiez bestalderaino ere heldu nintzen ihesaldi ero hartan; azkeneko landare-oasi eta hondarrarte urrunetarik ere harago... ihintzak inoiz ezkotu ez dituen eskualde kiskalietan barrena... bakarrik, bakarrik, bakarrik...

Eta koloreak oro historik, arreturik, nahasturik, eta beren zertasunik ezean baturik ikusi nituen han; halako errauts lañoa oratzen baitute denek zakarrondo koloregabe hartan.

... Eta gainditu egin ninduten alimaleko nekeek; eta atsedeen unerik batere ez darraien neke dorpe horiek berak arraildu eta funditu ziren...

Eta, bakar-bakarrik, edozertaz soildurik, guztiez gabeturik, azken desira eta esperantza izpiak berak iraungi eta deuseztu beharrak diren eskualde hartu eta okaztagarri hartako atarian gertatu nintzen...

Ezen haraino, bai, harainoxe, eraman baininduen dilindan neure giza-patuak; azken buruan izakiak oro bereak eramaten dituen eran.

... Eta, ezin bestean, ni ere, beste guztiok bezalaxe, zu zeu ere gertatu beharra zaren bezalaxe, haizeaz bestaldeko basamortu haizegabe eta ezinago gogor horren ertzean kokatu ninduzun; neure buruarekin ez besterekin bakarriketa luze, lantsu, hits, etsian...



## II

... Baina, aspaldiko partez, bekokia hotz eta oinak bero atxeman nituenean, neure ingurura begiratu nuen. Eta espero ez nuen bake-oasi hezearen hizla somatu.

Ba bide zetorren egun berria!  
Eta arran-itsaso bat entzun nuen  
eta pinu-adaburuak haizean kulunka ari ikusi  
eta baso ilun zabal bat gau ilunean.  
Baina, ondikotz,  
bazihoan eguna!  
Eta...

### III

... Eta, berehala, minutu baten buruan agian, ilunabarra somatu nuen Soustons-en.

Bake osoa lakuan.

Osoa diot; eta ezer ez diot hitz bakar horretaz, halere. Lokamuts leize haren arabera, Soustons-en topatu nuen bakearen osoa sendi araztekotan, hitzak oro ezertxo ere ez baitira.

Arrats geldian, isilpe sakonean, eta lakuaren hegian bertan, txalupa berde bat ikusi nuen, lo antza. Eta hantxe ere ikusi nuen, alboan, babes emale, neure gaztaro urrunean bezala, egurrezko tranpala berbera: isilik, abandonaturik, hutsik.

Eta oskiak erantzi nituen; eta, zangoak dilindan, eseri egin nintzen, urgaina ia-ia oinetako behatz muturrez ikutzen nuelarik.

Eta esertzean (aspaldidanik horrelakorik ezer ez senditurik!), berotasun uhin harrigarria nabaitu nuen iztar-atzeetan eta ipur matrailetan, eta, bere baretasunean, atsegin erotiko iruditu zitzaidan.

Eta surangilen eta muskerren egutera-nahiaz oroitu nintzen.

Eta, lakuaz bestaldera, Azur-ko txabola bixiak ageri zitzaizkidan.

Eta bakea senditu nuen. Bakea, bake ederra, bake baketsua. Eta arnasa, aspaldiko partez, neure atxeman nuen, eta neure zerbitzuko.

Baina tristura ere senditu nuen.

Zeren-eta Soustons-en dena baitzen eta baita igarokorra; eta arrastiririk luzakorrenak berak ere, iheskor gertatzen baitira han, eta labur, eta txinparta huts. Eta areago nire asaldu-tarte urri hartan.

... Eta, horretan nengoelarik, zakur beltz handi bat hurbildu zitzaidan; eta laburki begiratu ninduen. Laburki, baina begietara.

Eta zirrara ikaragarria senditu nuen bihotzean. Heriotzara bidean abiatua baitzen orduan ene zakur eder gizarajoa. Eta, saminki, zinez, oroitu nintzen hartaz; memento haietantxe, mihi lehor zurrunaz, arnas hestuka, zoko ilunen batetan, amaitzen ari baitzen... Hura, ene zakurra, ene anaia hobe, heriokide, bakardadeen bakardadean barrena joaten ari baitzen... Eta, ezintasunean, haren begirada otzanaz oroitu nintzen, eta haren hanka leial baldarraz.

Eta laku barearen bake ezin ederrago hartan, haren oinaze isil alferretan tematu nintzen ni; ene zakurra, eta abereak oro, eta alimaleak oro, eta gizakume jaio garen guztiok ere berdin, isiltasun osoan eta alferrik hiltzen baikara, nor bere leizazuloan, nor bere bakardadean. Galaxiak berak, miloika urtetan barreneko beren zirimola eskergatan, sortu, eta trinkotu, eta lehertu, eta deuseztu alferrik egiten diren bezala.

Eta nigana hurbildu zen zakur beltz hura, jostari; eta han hemenka pitin bat ene ingurutik ibili ondoren, bazkaldegi bakartiaren aldera joan zen: zalu, bixi, batere nekatu gabe. Osasun betean!

... Eta, nigandik urruntzen ari zelarik, eta nik bera begiratzean, harritu egin ninduten bapatean lakuaz bestaldeko «Le Lac d'Azur» zeritzon ostatuko ttutturuek; eta, ustekabean, zeharo ninduten laztu eta ikaratu!...

... Ezen, usterik ezean, tankera hartakoxe ttutturru bitxiak ikusten baintuen nik neure barruan, madarikagarri, ostatuko dorretxoei nagusitzen ari. Eta kanpoko itzaldu egin bide zen, eta ene barnekoa arras indartu... Eta han, haurtzaroan, erdal saeta arrotzen artean, Donostiako kaleetan gaindi ikusten nituen ttutturruak, mamu mordo gisa, herrenkada sakratu azkengabetan. Melopean kantari, han zihoazen txorimalo multzo gisa: more, eta beltz, eta gorri, eta urdin, eta berde... eta gorri, eta hori, eta gorri, eta hori...

Inauteri galanta hura! Baina ezin esan, ezin pentsa ere horrelakorik: bekatu berehala, eta ifernu, eta madarikazio.

Eta lardaskaturik gogoratu zitzaidan haurtzaroko Donostia arrotz hura, liturgi-soinuz eta intentsu-usainetan itorik. Eta ttutturru sakratuak, omen, kaleetan barrena joaki:

—Rindamos pleitesía! Rindamos pleitesía! Rindamos pleitesía!— behin, eta berriz, eta mila bider.

Eta madarikatu egin nituen neure indar-kondar guztiez!

Eta Itsas-orroa entzun nuen orduantxe, neure oheruntz hurbiltzen ari; eta dardar jarri nintzen. Ostatu txikiko ttutturruak lakuan ibiltari: «Fede

apurretako hori: jaiki hadi!». Jiratu egin ziren denak batera, ilara osotan batera; eta niri begira paratu ziren.

Hura itobeharra!

Makilak bailirean zerabilzkiten kolorezko ttuturruek zilarrezko haga-gurutzeak; eta elkargainka pilatzen ene belarrietan haien mehatxuak, lizunkeriak eta zantarkeriak oro. Eta gero oihu pozointsu hura entzun nien: «Muérete, cerdo ma-sónico de la pútrida horda!!».

Suntsitua zen lakua.

Eta begiak bildu nituen...

... Baina etsipen guztizkoan nentzalarik, berri-ro ere bakea eta isiltasuna nitaz nagusitzen zirela erreparatu nuen. Pozaren handia!

Eta, herabeturik ere, polliki polliki zabaldu nituen neure begi minduak.

Eta hantxe, geldi, bere bake osoan, lakua betetsi nuen; eta lakuaz bestaldean, bazkaldegiko ttuturruek ikusi nituen: etxegintzazko apaingarri bitxi, baina ez ibiltari...

... Baina Soustons eta Azur-ko giroaren geldi bareari zerion edertasunari, halako behazun kutsu mingotsa nagusitu zitzaion, gero eta osokiago; olerki giroa piskanaka hondatzeko eta funditzeko moduan.

Eta lakuko bake eder hura, hartara, dastatzen hasi ordukoxe, pozoin bihurtu zitzaidan, eta ha-maika goragale izugarriren iturburu. Eta zorigaiz-

toko guztiekiko, senditzen duen guztiekiko, bizi den guztiarekiko... den guztiekiko agian, irain basa eta labankada doilorra iruditu baitzitzidan lakuaren baretasun aparta.

—Lakua ere ez? —burruratu zitzaidan oinaze betean.

Eta lakuaren urak, ezari-ezarian, estaltzen ninduela iruditu zitzaidan, eta zuhaitzak eta ostatu-txo bera, urgainaren gainetik izkutatzen zitzaizkidala. Eta urak goitik eta beheitik inguratzen ninduela.

Eta izutu egin nintzen.

Ostatuko ttutturu zuri gorriak ere, zirkinik egin gabe, ni bezalaxe urperatzen baitziren.

## IV

... Eta, asalduaren ondoren, berriro loakartu nintzen.

Eta hau entzun nuen neugan, arnasarekin batera nahasirik, eta arnasaldiarekin batera, etorria bera agortzen bide zelarik:

goiz geldi epel hartan  
goibel  
    goiz geldi epel hartan  
    txit urrutitik  
goiz geldi epel hartan  
Itsas-hegi bakartian  
    goiz geldi epel hartan

Maindireek kiskali egiten zuten ene bizkar minberatua.

—Badantzut! Badakust! Baina besterik ezin! Hau larridura! Ezta ezertxo ere besterik!

Uhin ahantziak somatzen nituen, bai; uhin ezin ahantziagoak, han, gure aurre hartan. Baina Itsaso eta zerua, beren ilun hartan, mamitzen hasi orduko, ezabatu egiten zitzaidan ikuspena.

Eta ene barne-muinetan baino barrurago datzan ahots harrigarriak, balaka, ezin esperantzatsuago, ezin erotuago, hau idaroki zidan ordu latz hartan:

hantxe gelditu gintunan  
biok  
oroitzen haiza?...  
geure algara beharrari  
ezin nagusiturik

—Berantegi! —entzun erazi zidan zerbaitek  
Itsas-orroaz, lakuaren isilaldia ete ene esperantza-  
-doia batera erraustuz.

Eta ikaragarritzko olatuak hasi ziren nigana  
hurbiltzen, gero eta handiago, gero eta gorago,  
gero eta bertago, gero eta orroatsuago.

Eta, halako batez, ur apartsuak ikutu egin zuen  
ene oin punta. Hura hotza! Eta ezin nik oina atzera,  
ezin mogi, ezta milimetro batez ere! Hura mina  
oinean!!

Eta, ondoren, olatu bakoitzean ikutzen ninduen  
urak, eta mintzen, eta zauritzen.

Eta olatuen erritmoa eta ene bihotzarena az-  
kartu egin ziren, batera biak, harrigarriro. Eta  
olatuak handituz zihoazen:

goiz geldi epel hartan  
goiz geldi hartan  
goiz epel hartan  
goiz hartan  
epel geldi hartan  
geldi hartan  
goiz!!!...

—Besterik zer? Otoi! —erregutu nuen apalki.  
Eta odol beltza isuri zen ene ahotik oso luzaz.

Eta bihotz taupada bakoitzean, olatu batek  
bustitzen ninduen; eta, oina ikutuaz gainera, oso-  
ki ere izoztutzen, mintzen, kolpatzen. «Goiz geldi  
epel hartan» hitzak somatu ere orduko, berriro



jela behatz minberetan; eta handiago ere mami-  
tzen olatu berria begi izutuen aurrean.

Eta Muitza kolkora doan txirrista-harri hotzean  
hau irakurri nuen:

—eta bakarrik gertatu nindunan,  
urrun etsipen etsian  
ezin etsiz,  
osotara bakarrik,  
giza asmamenek inoiz  
asma lezakeen  
bakardaderik bakarrenean...

Eta azkenik, horma nahasi eta apartsu gisa,  
Itsaso eskerga altxa zen ene aurrean Muitzan, eta  
Matxixakon; eta ba zetorren niganuntz Ekaldetik.  
Eta, ihes ezin egin hartan, haizeaz bestalderako  
ito-behar ikaragarriak harrapatu ninduen inoiz  
baino zakarkiago.

Eta Muitza-ko txirristan behera atxeman nuen  
neure burua, Itsasorako abiada eragabean.

Eta horretan, makineri soinua hartu zuen Itsa-  
soak, makineri-soinua ere ene bihotzak.

Eta Muitza-ko asto itsuaz oroitzen nintzen. Eta  
gelako ilunean Txubillo atzeko txirrista beltzean  
tematu nintzen.

Eta oina mugitu ezinaren nekearen nekeaz,  
birrinduta, Itsasoaz eta lakuaz ahaztu nintzen.

## V

... Eta, basamortu betean indarge nentzalarik, gero eta bertago, gero eta gorgarriago, ekaitz izugarrian, iceberg eskeragak elkar jotzen zutela erreparatu nuen; eta, iceberg-en orroaz nahasirik, Itsas-orroa entzun nuen, zakar, espantagarri. Eta lastu egin nintzen ordu hartara arte antzeman ere ezin nezakeen heineraino.

Eta hotzikara batek inarrosi ninduenean, arratsa freskatzen hasia zela ulertu nuen; eta maindireak bildu nahi izan nituen neuregana, azkar, ezinago azkarki, iceberg-en elkar-hausketen zipriztinak ohera sartu baino lehenago.

Baina berantegi.

Eta burdina gori batek labetik atera berrian kiskal dezakeen eran kiskaltzen zuen ene beko-kiak; eta hormazko beiratxo haiek zakarkiro pausatzean, labankada gupidagabeek igarotzen ziztuzten ene garun-barne minberak.

Eta iceberg-ak madarikatu nituen.

Eta Mendebaldera begiratu nuen; eta Txubillo atzeko txirrista beltz luzeak ikaratu ninduen:

—Muitza! Muitza orain?... Aldapa horren gaitza!!

Eta, Iparraldean, bare, zabal, baztergabe, Itsasoa ikusi nuen.

—Ez!! Ene! Ene! Harrokadi behere horretara behar... eta han... zausk!

Eta Muitza-ko kolkoan, eta Tximistarri-raino eta are Itsaspe-raino ere, asetzeko moduan eta ikaragarritzko oihartzunetan errepikaturik, hau entzun zen:

—In nomine Patris, et Filii, et Spiritu Sancti... ego absolvo... ego absolvo... ego absolvo... que el Señor misericordioso perdona vuestras hediondecas rojas...

Eta Muitza-ko txirrista more-beltzak erantzun egin zuen otoitz hura mila soinu ñabarduraz.

Eta giza-garrasien ilarak ez zuen beleen kantuz beste azkenik izaten. Eta gau hartan guztian zehar, Bakedano-tik Zudaire-raino, eta Amezkoa osoan barrena eta Igeldo eta Talaimendi-raino, asto itsuaren arrantzak eta mila anaia maitatuen deihadar beldurgarriak entzun ziren.

—Utikan, Moniko!! Utikan, madarikatu hori! —esan nuen— Hilko ahal haiz basamortu honetan bederen! Utz nazak atsedetera, zerri horrek!

Baina Lezaun urrun zen; eta areago ene haurtzaroko Lezaun hura.

Eta Muitza-ko kolkoa baretu zen...

Eta Txubillo atzekaldeko txirrista beltza begiratu zuten berriro neskatilek eta mutikoez, goiko zubi gorenetik, karruseletik, beti ere izuturik; baina laister ere karrusel-bideko tunelerako aldapan behera gaitzean ahantzirik. Eta mila algara zalapartatsu gaztek urratu zuten egun hartan ere Txubillo-ko arrastiri harrigarria.

## VI

... Usterik gutxienean, bakea sortu zen ene kaskoan, bake apurra bederen; bake sakona geroago, eta osoa, eta barea, eta gaitza azkenean. Eta bakegune bitxi hartan, argi txinparta bat piztu bide zen ene aurrean; txinparta izanagatik, txinparta luzakorra; eta txinparta ezin laburragoa batera...

Eta aidean barrena atxeman nuen neure burua. hegazkin baketsu batetan hegaz.

Eta elurra ikusi nuen eskuineko leihatila boro-biletik: elurrra Iparraldean, elurra Hegoaldean, elurra Ekaldean, elurra Mendebaldean. Elurte itzela zinez: zuri eta itsugarri dena nun-nahi.

Eta Itsas-ertzean, han urruti, behereko lurralde zurutuak bukatzen ziren lerroan bertan, urdin zabalaren hegian, Donostia ageri zen. Ikusi baino somatu egin zitekeela esan behar nuke, ñimiño-ñimiñoa, bere istilu eta arazo guztietan puntu xume bilakaturik. Eta Iparralderago, tantoka gisa, Koskenea somatzen nuen, eta Getharia maitatua; eta, lakuetan gaindi elkarren segidan, Hossegor, eta Soustons, eta... Eta Mendebaldetik, berriz, mutturtxo ezteus iduri, Matxixako ausarta ikusten nuen, eta Gaztelugatxe gurtua, eta Urdializ galdua...

—Bizi osoa da joan! —barne-muinetan entzun. Eta harrigarriro baretu nintzen.

Eta den dena ametsetan baino azkarkiago sen-

ditzen nuelarik, eta hegazkinaren motore-zarata etengabe eta berdinean, neure buruaz ere ahaztu nintzen...

... Handik laster, ordea, gelditu egin ziren motoreak.

Eta behera eta behera abiatu zen ene hegazkina, jiraka, jauzika, haizeak eraginda hostoak lurreruntz Azaroan abiatu ohi diren antzera.

—Nik ez nahi behera-behar hau!

Baina hegazkina gero eta azkarrago eta kiribilkatuago zihoan. Eta elurrek eta neurririk gabeko hotzek inguratu ninduten. Dena zuri, dena hotz; dena beltz segidan.

—Zabalaitz! —hautsi nuen isilaldi bitxia—  
Haugi otoi!

Baina nekez entzun uste nituen arran-hotsak, urrunduz zihoazen nigandik; eta Haizkorri, eta Aratz, eta Aloña, eta Malkorra, eta Urbixa-ko belardi zoragarriak oro, arran-hotsekin batera, ba zihoazen nigandik...

Eta Muitza-ko txirristan behera ba nindoala ulertu nuen, Itsas aldera nindoala fite!

—Ez!!

Eta kolpe izugarri bat senditu nuen, horretan, hezur eta errai guzti guztietan.

... Eta, handik denbora luzera (baina luzea ote?), begiak zabaldu nituen, eta deusik ez nekusan.

Eta belarriak ernatu, eta ezer ez nentzuen...

Itxuretatik at bide nentzan, hotzaren hotzaz eta beroaren beroaz gainditua. Irudipenen kaleidoskopia gelditurik.

Eta isil-eremu argigabe urrun hartan. ezerk ere ez zerauntsan: ez haizek, ez xirripa jariok, ez giza deihadarrek, ez... ez Itsas orroak ere!

Ez zuen bake gaitz eta itsaskor hura zinez ezerk ere urratzen. Isila eta hutsa, beren huts eta isilean, elkarren kide ziren han, eta gau azkengabearen mami bakarra. Bihurbiderik aurkitu ez zaion bazter hits bizigabearen atarian nengoen. Dudarik ez.

Eta nor hel eta nor dei ez jakin hartan, lasterka ezabatzen eta eteten ziren nigan azken oroitzapen izpiak oro, herrenka; eta aguroegi mikazten ere irudirik atseginenak.

Eta geroxeago nakar gelditu nintzen, denekiko uzkur eta soraio.

Oinazeetan itoa, edozeri buruz gogaitua; ene barnea deusek ere kilikatzen ez hunkitzen zuela. Sendiberatasuna bera errotik erauzirik eta xehaturik bezala.

Eta basamortu beltz hitsa nagusitu zen nitaz.

Lokamutsen luzeegiak, gogorregiak eta etsiegiak, nunbait, ni ere idorturik, ene arimako hezetasunak oro zeuden eihaturik; Sahara edo Kalahari-ko hondar zurrunbilo kiskalgarriek itzalguneko azken ur-tantoak lurrun-erazi ohi dituzten bezala.

Ikarak, asalduak eta lazturak berak, behera-

beharrari datxekion goragale bortitza bera, ez-antsiatuak ziren, errendituak, hormatuak, hilak.

Neure bihotzondoan deusik ez. Ezta «ilunpe horretara ez» birresateko gogorik ere. Ene barruan dena hotz, dena karroin, dena ezantsia. Oka ondoan bezala, behazuna nuen erruz erraie-tan eta estegorrian, eta ahoan kerua; baina biho-tzean... hutsa!

Bai mina biziondoaren zaporea!

Bai lehorra azken Itsas-haize balaren ondoko lehorrea.

...Eta oinaze etsien istinga kiratsean barrena abiatu nintzen, eta unadura-mota guztietan barrena; eta haragiaren dolore jasangaitzen mortuan zehar arrunt urrutiraino.

Eta azkeneko oinaztar orroak ere utzi nituen oso, han neke-zelai behere kuttun hartan.

Eta gelditasun hila topatu nuen azken buruan; eta isilpe ezinago trinkoa. Eta giza-arrastorik ez inun, eta bizi-aztarnarik ere ez. Betidanik baititu irentsiak hutsarte beltz hark giza-garrasirik lazkarrienak eta ozenenak berak; eta edozelako bizi-oinazeen oroitzapena bera ahantzia baitago han, ezerezaren osoan. Isilezko harlosa gardenaren geldia!

Eta, urruti-minez, eta galdu-ondoko min ikaragarriaz, hara baino lehenago neure sorleku behere hartan entzun ohi nituen haize-bala ederrez oroitu nintzen. Haize-bala haiek, belardiak. eta galsoro horiak, eta zuhaztiak, tarteka laztantzen ari zurrumurrus.

Haizeaz bestaldeko gaua, masaila epelik gabea baita. Are okerrago ere: haize-balarik batere gabea baita!

Zeren haizea bera, ene adiskide min hori, haize mehea, haize ilaun aldakorra, ene bihotzaren anaia bizkia, giza-muinaren hatsa eta irudia batera, gelditua baita han. Zeren gizonek inoiz eza-gutuko ez duen bazter hartan, Iraileko arratsalde argitsuetan hosto histuak eragiten dituen olerkari apart hori, haize iratzarlea, haize sortzailea... gelditua baita han, arras!

... Eta haizeaz bestaldeko basamortu gaitzean sartu nintzen, horretara, neure buruarekin ez besterekin bakarrizketa hits eta etsigarrian, handik atzera bihurtzeko esperantza izpirik ere gabetanik.

... Eta horretara, gelditurik, zurrundurik, azken desirak iraungi beharrak diren eskualde okaztagarri eta hartsu hartan barrena abiatu nintzen.

... Eta atsedan unerik ez darraien neke dorpeek gainditu egin ninduten bakardadean.



## VII

... Eta beranduago, gau minean nik uste, oso lozorro sakonean, nazka eta higuin guztien azpiko zola berean, izai baten adaburuan begiratu nuen azken erlojua; eta hogeita-bostak ziren.

Eta garnu usain itogarria etorri zitzaidan neu-re gorputzaren aurreko aldetik. Nigandik etengabean garnua isurtzen eta usteltzen ari bailitzan.

Eta hauspo beldurgarri bat gelditzen ari entzun nuen, antzinako denboretan baforezko lokomotora zaharrak aldapa erpinetan gorakoan moteltzen eta gelditzen zirenean bezalatsu; eta zeharo gelditurik ere somatu nuen segidan.

Eta miloi bat euli ikusi nuen, garnu ustelaren kiratsak zoraturik eta errabiaturik antza, izugarrizko zurrunbiloan jiraka eta jiraka, burrundarra sorgarrian.

Eta eulitzarrok berde, eta urdin ziren... oso berde, oso urdin... denak lodi, denak txit diztirante... gero eta lodiago eta diztiranteago...

Eta Itsasoak...

## I

... Sekulako trumoiek eta ihortziri etengabeek astindu zuten nire gorputza, gau minean betirako zetzalarik.

Eta Itsas-orroa espantagarriak esnatu zuen, eta esnatu ninduen.

Txismisten argiune laburretan soma nezakeenez, bazihoan Mendebalde aldera, ene larria!, Iparburutik Hegobururaino luzea zen uhin beldurgarria; eta alimaleko belatzarrak eta erroi beltzak zerraizkion. Bazihoan nigandik mendi urtsu hura, horma nahasi eta apartsu gisa; eta bazituen ehun bat metro gora, berrehun, mila, nik dakita zenbat? Urrunean, Matxixako-tik at, Urdializ-tik at, munduaren erdia betetzen zuen olatuak.

Itsasoa zen: zabal, ahalguztidun, gupidagabe, nigandik urruntzen ari.

Eta neure zurruntasun osotik neure burua nekez irteten ari somatu nuen.

Hura bakea!

Eta Itsasoa...

## II

...Eta haize-bala hozkirriek bizkortu zuten ene bekokia.

Ezin izartsuago zegoen zerua; eta aspaldidantik entzuten ez nituen aide-txistuek lasaitu zuten ene barrena.

Eta arinki, zalu, orein izutua mazelan behera ihesi bezala... gartzelan hamasei urtez egondako preso askatu berria den arrats ahantzezin hartan bezalaxe... nik neuk ere, pozarren, haizea eta haizerik eza berezten dituen mortu lehor eta zabala gurutzatu nuen berriro; eta atzekoz aurrera eta aldapan behera gurutzatu oraingoan.

Gau hartako haizearen ederra!

Eta gaztetan ezagutua nuen osasun indartsuak berriro betetzen ninduela konprenitu nuen, eta izaririk gabeko poza jabetu zen nitaz.

Haizeaz bestalde hartaraino heldu direnek ez bestek baitakite oinazea zer den, denboraren galtristura norainokoa eta Lurrarekiko urrun-mina nolakoa izan daitezkeen.

Eta jasandako lokamuts aldi ezinago izugarria nigandik bazihoala iruditu zitzaidan, nola sinets edo uler ez banekien ere; eta neure kolkorako kantari hasi nintzen:

«latsaren zurrumurrua,  
eta kirkir nekagaitza,  
eta kuku urruna,  
entzungo ditut  
berriro,  
eta hamaika bider,  
datorren udaberrian;

eta arranen oihana  
erantzule bakar,  
tontorrean behin eta berriz sortzen,  
eta malkorrean behera deuseztatzen  
betetsiko dut  
luzaroan  
amilano amaigabea;

eta euri jasaren ondoan,  
iratze urrina hatsartuko dut;  
eta belar motx-motxezko bideskatatik  
basoan barrena ibiliko naiz;  
eta laku ertzeko ilunpean  
txandaka musukatuko ditut  
haren begi maitatuak»...

Eta hondartza bat agertu zen nigan.

Eta zabala zen, eta luze; eta muno luzeska bat ageri zen haren Iparraldean, eta etxetxo mordo bat, eta leiho guztiak hetsirik, ilaran hetsirik, harkaitzezko labar egiaren luzeran Itsasoari begirik gabe begira...

Eta dantza egin nuen oinutsik, bertan, eta hondar bustiaren hotza senditu ointzoletan.

Eta, hantxe, aloka urrinez eskaini zitzaidan hondartza hartan, ezari-ezarian, egunargitik gau ilunpeetara abiatzen zen hondartza zabal hartan, zalaparta guztietatik urruti, neure oihal-denda urdina eraiki nahi izan nuen. Eta munduari eta mundukoei pozkarioz, mespretxuz, herraz, gupidaz ere agian!, betirako agur osoa esan.

Eta zorion uholde batek bete ninduen. Harrokak, ur-beherakoan, urgainetik ozta agerian eta ubanare-urrian azkarrez inguraturik, eta antxeta zalapartatsuak lagun, betirako... betirako!... denari agur esan! Eta ilunabar luzakorretan neure eskuez marruskatu eta musukatu egingo nituen aloka hondartsuak. Eta, goiztirietan, esku ahurretan ur kresala harturik, urrupa garratzak hartuko... Inoiz ez, otoi, haizeaz bestalderik!!

### III

—Ez! entzun nuen hondartza bakartian Itsas-aldetik zetorkidan ahots harrigarritan. —Oker hago!

Eta lastu egin nintzen erabat.

—Lakua behar huen hik zelai behere hartan; ez Itsasoa—ekin zuen bazterretako Itsas-orroak.

Eta, harridura ezinago handian, argi txinparta xume bat jalgi bide zen ene barnetik.

Eta berriro, ahots ikaragarri berbera beti ari, honela mintzatu zitzaidan:

—Zeru izartsu hark —oroitzen haiza?— bere eskergan, bere desgizatasunean, izutu egiten hinduen... Are okerrago: ukatu egiten hinduen; hire hutsa hitzik gabe salatzen, hire egiaren latza gupidagabeki sendi erazten... Zerura begiratzuz gero, ezin giza-ametsei hel... Itsasoari beldur hintzaion.

Itsas-orroaz mintzo zitzaidan haizeaz bestaldeko ahots harrigarria.

—... eta heure burua lastantzekotan, lakua behar huen hik. Nola maita ote hezakeen hik ukatzen hinduena?... Maitatu uste huenean, heure burua maite huen; baina maitatuaren aitzekian, izenean eta bitartez. Maitatu hark entzun erazten baitzizkian, baita berak sinesten ere, herorrek entzun eta sinetsi nahi hituen hitz eta agintza berberak. Maite duenak jainkotu egiten baitu maitatua. Horretaz, nola maita ote hezakeen hik

heure esperantzak oro idortzen dituen?... Ezin hik Itsasoa maita. Ezin!... Lakua, aldiz, heure gorantzan beharrago eta aproposago... eta hik nahiago ere... eta, azkenean, maiteago... Hauxe duk egia. Etsi ezak!

Hitzaldi tartetean, ez haizerik, ez Itsas olatuen arrastorik.

«Zelai beherean Itsasoaren beldur ote ni, ohar-kabea?» —kezkatu nintzen.

Eta, zeharo urduriturik, maindirea heldu nahi izan nuen. Baina —lazturaren latza!— harlosa bat topatu nuen neure alboan, eta beste bat neure azpian, biak leun eta hotz. Baina neure gainean, irribarre isilez, mila izar ñirñirkari.

—Orain ere satorraren eta akuriaren anaia bizkia haiz hi—ekin zuen gaueko ahots harrigarriak. —Hasera haseratik asaldatzen hinduten hi oskarbi horretxek eta aterberik ezak. Haseratik ere Itsasoak sortzen duen perlesiak jotzeko ikarak. Satorra eta akuria bezala hi ere, gerizpe bila ibili haiz, eta argi argiegien ihesi. Konturatu gabe batzutan, «cromlech»-gintza izkutuan ari izan haiz, gaztetandik azken burura arte, inguru-keta amorratuan. Hesi, mugarri eta hesparru bila saiatu haiz etengabe. Zer ezagutzen duk hik sakonagorik gizonarengan, «cromlech»-nahia baino?

Eta arestian nigan piztua zen txinparta xume eta bitxi hura, hazi egiten zela erreparatu nuen; eta bere argitasunean itsutzen hasten zitzaidala. Eta trumoiak entzun nituen urrunean; eta gaua asalduz betetzen zela iruditu zitzaidan.

... Eta goiz... geldi... epel... hartaz oroitu nintzen; eta ondoren jarraiki zitzaion gau beroaz, eta pozez bete ninduten hitz etengabe haietaz:

—Gailurreraino iritsiak gaituk gaur. Otoi! Ez sekula ahantz ordu hauek! Ez sekula nitaz ahantz! Hi hil ondoren ere, beti, beti ere, hi guztiek ahantzi arren eta ahantzi ondoren, nigan bederen biziko haiz. Eta inoiz gogaiturik baldin bahago, oroit hadi hitz hilezkor hauetaz!

—Baina biharamunean bertan —ekin zuen Itsas-orroak— luma eta etorria, batera, zeharo agorturik aurkitu hituen, eta hau baizik ez huen izkutuan pentsatu: «bart enea izan da; baina bartanixek ere da hila nigan, eta antzutua, gaztaroan barrena bizi izan ninduen olerkari hura; udaberriari, etenunerik gabe, udazkena bera baile-rraio»... Eta, hondartzarakoan, ahantzi ez bazaik, hau izkiriatu huen Itsasoak utzi berria zuen hondartzako partean: «gailurrera hel, eta arroila ere bertara».

Eta ilunpeetako orroak eten egin zuen gogoen haria; eta, erdi barreka, oraino ere harrigarriago mintzatu zitzaidan:

—Mugara hel, Eros hastan...

Eta, algara zalapartatsu batzuren ondoren:

—Gauik zoriontsuenaren ondoren idatzi hituen hitzak, zuhurtziak eta zahartzaroak erakasten dituzten hitz apartak besterik ez dituk. Piztua zuan higan Itsas-mina, eta berehala somatu huen. Eta askabiderik ez duen korapilo deabrutua loturik



gelditu zuan hiretzat ere. Giza patua hori: beti-kotasun sakona eskatzen dik atseginak; ez ematen, ordea. Eta «ez heltzea hobe» erabaki huen. Oroitzen haiza?

Harlosen hotzak mindu ere egiten ninduen alde guztietatik.

—Ez da egia! —jaulki zitzaidan erraietatik.  
—Itsasoa behar nuen nik... Itsasoa...

Eta zero izartsuaren ederra tristagarri bihurtzen zitzaidalarik, hau erantsi nuen:

—Itsaso urdin mugagabea behar dut!

Esate beretik, ordea, sekulako oinazeek hartu ninduten goitik eta behereraino.

Eta ilunpeetako ahotsak, erantzunez antza, hau entzun erazi zidan gau bitxi hartan:

—Entzuidak ondo... Jakitea eta argi ikustea izango duk hiri emango zaian bidaia berri horren sari mingotsa. Hik badakikek. Entzun, beraz, haizeaz bestaldeko ahots hau... Itsasoa Itsasoari ez besteri zegokiok. Hiri lakua dagokik. Gizonari datxekion lakua duk hire aberria... Lakua... aintzira... Hauxe duk zuhurtzia bakarra.

Eta isildu egin zen Itsas-orroa burrunbatsua.

Eta urrungo malkorrek zazpi alditaraino errepikatu zuten haren mezua.

## IV

Eta isilpe gaitza hedatu zen bazter bakarti haietan.

Eta haizerik eza erabat nagusitu...

Eta, halako batez, lehenengo argi izpi gorriskak soma nitzakeen Ekaldetik.

Eta sinetsi egin nuen.

Eta hilobi hotz hartan bertan egin nuen amets, luzaz.

Eta, ametsaldi naharo hartan, aurreko urteetako gertakariez oroitu nintzen, ilara jorian...

Eta asaldatzen ninduen barne-argi xume berria gidari, beste modu batera irizten nion behereko zelai kuttun hartan burututako bidaiari...

... Ezen maiteago bainuen nik, egia esan, eta gaztaroz geroztik batez ere, zeru hodeitsu apala, zeru urdin gora baino. Maiteago bainuen nik Noruega lanbrotsua, Grezia dirdaitsua baino; eta udazken laburkorra, udaberri aratza baino. Eta gauza bera gizarajo apala, handiki hanpurusa baino; eta Kernow-ko kornikera izana interesgarriago atxematen, New York-eko amerikanera baino. Eta bihotzetikoago ere bai Landa-gaineko Sarraltzune, edo Karrantzan gorako Lanestosa harlosatsu xaharkituak, Plaentxia edo Errenderia fabrikatsuak baino.

Zergatik hustutzen ote ninduten ni eguzki aratzeko egunek? Eta olerki-menez betetzen, eta etorri oparoz eta amets urdinez, egun lanbrotsu goibelek?

Eta bezperan, eguntsentiarekin, entzuna nuen Itsas-orroa berbera hasi zitzaidan berriro:

—Ikusak Ekaldetikako argitasun hori: egun berria heldu duk. Horrelako zazpi izango dituk. Zazpi, ez bat gehiago. Balia itzak ongi; beste nehuri ez baitzaio parada hau eman.

Burua altxa nuen pitin bat. Eta harrizko gurutze pilo bat ikusi nuen neure inguru guztian. Eta ulertu egin nuen. Eta ihesari eman nahi izan nion ahaleginean. Baina Itsas-orroak geldo erazi ninduen:

—Hago apur batez oraino! Betirako isilduko nauk gero, ez dudarik egin. Baina jakingo baduk, entzun egin behar nauk.

(...)

—Besterik baheritzon ere —ekin zuen Itsas-orroaz mintzo zen ahotsak— eta gorrienari datxekion xoraldia pasata gero, mugarik ez duten guztien ihesi ibili hintzen hi atzerri behere hartan. Osotara etsi nahi ez izanik ere, ongi antzeman huen kakoa: Itsasoa ahantz... Itsasoa ahantz, Itsasora daramaten gal-bideak utz; eta lakuari, aintzira apal eta izkutuari lot.

Nigan dolorez piztua zen argitxo berria, kolpez hazi eta itsugarri bihurtzen zen:

—Maiteago hituen hik lakuak, muga eta ertz itzaltsuz inguratuak, Itsaso zabal hegigabea baino. Baztergabeak, ertzik ez duenak, ametsik egiteko atekarik hertsiena ere ez baitzian uzten. Muga itzaltsuetatik kanpo hartan, berriz, ametsak libro. Lanoak maite hituen, horretara, hos-

to-estalpe trinkoak. Oroitzen ahal haiz?... Ez, ordea, muga barneko hesparru hartan gelditze-kotan; hesiaz haraindiko eskualde ezezagun eta ezagukaitz haetan sinets ahal izateko baizik. Besterik ezinezkoa zen segurantzian (segurantzia, bai, hire ustez, zoriona ikutu huen egunetik beretik), egiatik urrun amets egin nahi huen; egia hotza jakin baino, liluretan murgildu nahiago huen; eta amets egin ahal izateko, hitz batez, beti besterik eta urrunagorik behar. Beti ere hesiez bestalderko fruitua bilatzen ari; deserriaren «esku latza»-ren berri izanagatik ere, beti ere at, urrun, atzerrian laketago eta adosago baihintzatekeen.

—Lakuaren ukaera azaldu duzu hor! —moztu nuen nik kolpez eta goraki.

—Ezetz ba! Lanoak maite hituen hik, zuhaizpe ilunak. «Betikotasunak usainik ez», izkiriatu huen behin odol arrastoz. Ez haiza oroitzen?... Goiz geldi epel haren biharamunean, eta gau be-tearen ondorioz, gabezia bilatzen huen hik; ez osotasuna. Burutu ezina, eta ez bukatua eta borobildua. Obratu eza, joana, suntsitua; suntsitu beharra menturaz, nekez zuzpertzeko modukoa, biziaren ertzetik haratekoa. Gaztarotik irtenda berehalatik, goiz geldi epelari, bai borobila eman hion; arrats azkar beroari, berriz, eta izkutuan... ez!...

Erabat zurtuta nengoen.

—Zerk segatzen ditu giza-projektuak oro? Zerk ametsak oro eginkizun uzten, eta eginkizunak oro obrakizun?

Oinazeak eta ikarak biziago eta orokorrago bilakatu ziren nigan.

—Entzun ongi! —entzun nuen. —Biharamun harez geroztik, hik Ezereza nahi huen... Are garbikiago ere mintzatuko natzaik: hire laku kuttunak ez dituk, izan, kanposantu honetxen irudi nabarmenak baizik.

Zauskada bortitz batek astindu ninduen.

—Oskarbia eta Itsasoa gauza bera dituk, aintzira eta «cromlech»a gauza bera diren bezalaxe. Guztiz duk beharrezkoa, hortaz, «cromlech» borobilak heriotzari buruzko lekuneak izatea; eta ez duk inolaz ere bidezko, alderantziz, orube moldagaitzotan harlosak eta oroitarriak borobilduririk gabe pilatzea.

Eta beranduxeago:

—Zinez dinotsat, gizonaren zuhurtzia, esan diadan horretara bil daitekeela...

Eta isildu egin zen Itsas-orroa.

Eta beldurrak berak harrigarriro indarturik, zutitu egin nintzen; eta izaien arteko bideska her-tsi eta luzeetan barrena bilatu nuen atea. Eta Ekaldean aurkitu nuen. Eta neure birikak leher-tzeko moduan hartu nuen arnasa.

Hozkirria zen eguntsentia.

Eta bidari goiztar bihurturik, hiri hutsetik joan nintzen, eta azkeneko kaleak ere kurritu.

Eta hiria atzean utzi nuen. Eta bideetan gandi urrundu nintzen. Eta atsedenic gabe ibili nintzen korrika zazpi egunez eta zazpi gauzez...

## V

Eta eguzkia mendien atzetik agertua ez zelarik, Ahüñemendi-ren ondoan gertatu banintz bezalaxe, zelai gogor harkaitsu batetara heldu nintzen. Eta, arnasa gainditzeko ere indargeturik, eseri egin nintzen:

—Zer da hau guztia?

Eta lakuetako urgainaren geldia gogoratu zitzaidan; eta tema bihurtu ere bai. Uhinik gabeko bare giro hartara bultzatzen ninduten neure ari-mako asalduek eta ekaitzek. Kanpoko bakeaz baretu nahi barnea... Ene itsua!... Mugak behar, mugak nahi... mugak maite!... Baina mugak Eze-reza adierazten... Heriotza nahi, horretaz, azken funtsean... Ezereza nahi. Eza!

Eta, behingoaz eta izuturik, eta zazpi egun eta zazpi gau korrika eroan eta etsian pasa ondoren, heriotzaren erakarria eta desira izkutua somatu nuen neure nahikundeen muinean. Ihesik ikaratuena burutzean, hitz batez, ihesik egin nahi ez nuela agertzen zitzaidan.

—Sobera da! Ezin dut!

—Etsi ezak.

—Uxatzen nauenak deitzen?

Haizeaz bestalde urrunera arte ez nekien hiru hitz elkartuon egia zertan zetzan, eta ezin jakin nezakeen.

Zelai harrokatsu gupidagabe hartan, berriz, goiztiri ahazkaitz hartan, ongi ulertu nuen. Ezen gizonari herio-aurrea zinez ikaragarri agertu ez balitzaio, eta herio-ondoa ere arrunt kirats, okaztagarri, eta zorabiorik hilgarrienen iturburu, etena baitzatekeen aspaldidanik giza-kate minberatu hau. Ezerezaren deia hiri, niri, denoi, gainditu ezinezko bihurturik.

—Lakua maitatuz eta hobetsiz —entzuten bide nuen nigan—hilkorra maiteago eta hobesten. Hilkorra... berehala hilkizuna!

—Eta Itsasoa? —galdetu nuen brauki.

Eta zelai harkaitsu huts hartan, hau entzun zen.

—Ez hadi, udaberriari buruz hoalarik, bigarren aldiz ere nahas.

Aurreko egunetako Itsas-orroa berbera zitzaidan mintzo.

—Esana diat —ekin zuen. —Itsasoa Itsasoari zegokiok. Lakua duk hire aberria.

Eta oihartzun ilara azkengabetan errepikari, hau entzun zen eskualdean:

Horregatixek  
ibili haiz hi,  
akuri harro hori,  
akuri xume hori...  
gizarajo zozo hori,  
barruki  
eta estalki bila;

horregatik maite hituen hik  
hesiz  
eta langaz,  
eta harrizko arkuz  
inguraturik dauden  
jauregi  
zaharrak...

beti ere  
beti mugatasun bila,  
herabe  
ibiltzen duk beti  
akuria bere kaiolan  
beti ihesi,  
beti aterpe bila,

hi heu ere,  
zeruaren hutsaz  
uste  
eta nahi ere baino  
hobeki jabeturik,  
baztergabe guztien ihesi  
ibili haizelako...

Baina perpausa horien muinaz jabetu orduko,  
alimaleko hezur zuriska eta lehor mordo bat  
usaitu nuen, neure inguruan sakabanaturik, eta  
bortizki lastu nintzen:

—Utikan! Otoi! Bakea behar dut! Ahüñemendi  
behere gogor honetan bederen!!!



## VI

Eta begiradaz, belarriz, usaimenez, ukimenez, Itsasoaren zantzuren bat bederen bilatzen nuen inguruetan. Baina aztarrenik ere ez nuen aurkitu.

—Ez duk inoiz aurkituko —entzun nuen berriro—. Irents ezak egia, ihesi-berri horretan latza bazaik ere. Eta egia hauze duk: ez dela lakua, hire bihotzondoan, herioaren irudia baizik. Zergatik izutzen hau honek? Itsasoa bera lilura baizik ez duk. Itsasoa Ezereza duk. Itsaso bakarra... arnasa, eta garrasi, eta latsetako zurrumurru guztien atzean gelditzen bide den hori, iraunkor, baketsu, heuk herorren barrutik erasten duan jarraitasun-lilura urdina baizik ez duk. Ez zegok Ezerezari datzekion Itsasoa baizik.

Eta isilune labur baten buruan:

—Itsasoa ez duk, izan, etsi ezak, Ezerezaren, eta Ezaren beraren, kolore-itxura urtsua baizik. Joana hintzen hi, joango dituk besteak ere, mendi horiek ere fundituko dituk mendeen buruan, eta hibaiak lehortuko, eta basamortuak urpean geldituko; eta gauza bera orain zapaltzen duan mendi-zelai harkaitsu gora hau. Dena fundituko duk. Eta lekuko isiltzat gelditzen bide den ilunpe horren izena besterik ez duk Itsasoa, belaunez belaun elkarri gizonen ikasia eta erakatsia. Bere igarokorrean, bere txinpartasunean, egon bazegok lakua: lipar batez bederen, hasperenen kide itzurkor gisa bederen, izana duk.

Zorabiatu uste nuen. Uste izan bainuen nik,

luzaz, eta gaztaro guztian zehar batez ere, Itsasoa bilatzen nuela eta behar nuela, eta ene barneak ez zuela inoiz besterik ezertan pausatu uste.

Baina Itsas-orroa beti ari:

—Heroina dastatuz gero, ez heroinaz, eta ez heroinarik gabez: gezak gogait, eta tontorrak urrunkor, iritsezin... Goiz geldi apal hari jarraiki zitzaion gau goren beroak galdu hinduen hi. Gailurrera eta gero, labarrera ere eraman hinduelako, jetxi-beharraren malkor izugarrira; gizakiak oro, herrenkada azkengedan, eramaten dituen bezala. Hots, Itsas-kresala hatsartuz gero, lakua gutxiets, baina Itsasora ezin! Eta hireak egin dik. Itsasoa urrunean bederen ikusiz gero, urdin zabal geldi hori behin bakarrik betetsiz gero, kitto baita bakea.

—Ez segi, otoi! Gehiegi da dagoeneko! Otoi! Nahiago itsu izan! —nik oiuhu etsian.

—Jakitea dukek, berriz dinotsat, haize-bala berri horren prezioa. Hik jakin egingo duk orain-goan... Entzun: goiz geldi apal hartara behar duk berriro... eta goizaren aurreko urteetara. Geroztikakoari, uko; eta, ahalean bederen, ahaztu egin behar. Ez zegok beste zuhurtzira biderik. Hark egokiro esan zuen: «amaren sabelera behar».

Eta neure lokamuts nahaspilatsuan (baina, lokamutsa ote?), eta tximista azkarraren ziztuan, behinolako hondartza horiska eta legartza urdinskaren irudia agertzen zitzaidan, behin eta berriz: ene mugarri nagusia!

... Eta pasa nuen tren-zubia, eta ezkerraldean «Gurutzia» ostatua utzita, eskuinera joan nintzen; eta hain maite nuen Getharia-ko talaitik bezala, uraz gaineko horrakotan barrena, olatuak, olatu apartsuak, elkarren segidan lehertzen ari ikusi nituen.

—«goiz geldi epel hartan.  
Itsasoari adiorik erran gabe  
aurrean genuen Itsasoaz oroitu ere gabe  
goiz geldi epel hartan...  
polliki-polliki  
gintunan joan  
bi biok»...

Eta, egia da, aitor dut, biharamunean oroitu nintzen Itsasoaz... biharamunean bertan, bai; bai-na ez lehenago. Egia hutsa!

Eta nolako bakardadea Getharian, biharamun hartan! Zein hutsa talaitxo! Zein zabala, be-tea eta urdina aurrekaldeko Itsasoa! Olatu apartsuen ilara azkengabe hartan, nolako malenkonia!

Eta esaldi hura gelditu zen nigan betirako iltzaturik: eguzkia agertu orduko, poesia iraungi...

Itsaso berrituari so paratu nintzen biharamun goiz hartan, tristaturik, egiaren latzak argituri-rik. Eta poeta anaiaren mezu bikaina entzun; eta zinez, eta lehenengo aldiz nik uste, errotik ulertu eta sinetsi nuen. Ahots lakar hura enea zen benetan biharamun hartan:

«Maite ditut  
maite  
gure bazterrak,  
lanbroak  
izkutatzen dizkidanean;  
zer izkutatzen duen  
ez didanean ikusten  
uzten,  
orduan hasten bainaiz  
izkutukoa...  
nere barruan bizten diren  
bazter miresgarriak  
ikusten»...

... eta Txubillo-ko pinu-adaburu kulunkariez oroitu nintzen; eta udazkeneko arratsalde askotan niri, ibiltari bakarti honi, tarteetan ageri ohi zitzaidan Itsaso zabalaz. Baita goiz geldi epel haren ondoko gau kiskalgarrian nigan sartutako ezpata ezti haietaz ere: «beti», «sekula ez»...

Eta higuinduta, hau esan nuen:

—Geronek ezarritakoaz kanpo, ezer ez!... Hutsa eta behera-beharra, geure liluraz eta olerkiez apaindu, hornitu... estali! Gogorra giza-patua!

Eta ilundu egin zen zerua bapatean, eklipseetan baino aisa aguroago.

—Itsas-mugaz bestaldera —ilunaldi berrian ni goraki mintzatu ustez, baina ene hitzak eztarri minberatik ozta-ozta irteten zirela— Itsas-mugaz bestaldera, urdin Oskarbía... Hots, Oskarbía, eta

beronen urdin aratz sakona, gizonaren lilura-iturri azkengabe hori...

Ezin jarrai.

—Gizonaren lilura-iturri azkengabe hori, Oskarbia... hutsik dago!... Bazter miresgarriak nigan daude... inon ez daude. Ez bainaiz ni, zinez, udazkeneko orbela baizik!!

Eta zirrara lazkarri batek inarrosi ninduen:

—Baztergabea... betierekoa... hutsik... hutsak... hitzak... hitz hutsak!... Horra gure bazka!

Eta lurrera bota nuen neure burua, zakarkiro, ahal nuen eta basakienik; harrokaren kontra neure kopeta kraskatu, neure garuna kaskezurretik jauzarazi, eta harrokazko zelai gupidagabeko artezietara eta arrailduretara, liskatsu, odoltsu, leratzen ikustekotan... eta kordea, eta bizia bera (zergatik ez bizia?), eta neure azken haize bala geldikor hura, galdu nahiz.

Baina oinaze izugarria harturik ere, ez nuen kordokatzea lortu; are gutxiago neure buruaz beste egitea. Eta harkaitsuago iruditu zitzaidan Ahüñemendi ondoko eremua.

Eta lokamuts betean, nik uste, eta buruko minak gorputz guztia burura biltzen zidalarik, erantsi nuen:

—Baztergabea... betirako bakarra!... Ezereza... Zer da, horretaz, mamu ilara erotzaile hau?

Ba bide nekusan anaiaren ikuspen berbera:

«esa fatídica procesión de fantasmas que van de la Nada a la Nada».

Eta harkaitzarteko arrailduretan nekez hazten zen auka bestalderako bidaiari atzeman uste nuen neure burua: «Etsi ezak. Ezereza gainditu ezina duk».

Nork idaroki ote zidan niri, bada, osotasuna eta bururaino heltzea nahi nituela nik azken funtsean? Zerk edo nork desbidatu eta errebelatu ninduen ni honen errotik gaztaroaren ilunabarrean?

—Baniak betirako —entzun nuen berriro mortu harrizu zabalean lehengo ahots ikaragarria, eguna zabaldu ala ozenago. —Baniak, bai; eta, aldegin aurretik, nik esango diat nor.

Min ematen zidaten bi begiek.

—Heuk duk saldu, heuk duk errebelatu heure burua. Ez hitaz kanpo xeka madarikagarririk; ez zegok eta. Higan izkutaturik, baina beti ere gidari eta eragile, datzan jainkoak itsutu hinduen. Zergatik tristatzen hinduen, Irailean, mendi mazelatko txilartza apalen more zabalak? Oroitzen ahal haiz? Txilar-lorea, udazkenaren aintzindari. Eta hik udazkena nahi ez; udazkenik nahi ez, hobe. Larrazken hosto eihartuen kide umila izan nahi ez hik... Zergatik ez, ordea?

Eta segundo batzuren ondotik:

—Entzun ongi! Mugarik eza, beltzaren trinakoan eta hutsunean duk sakon, mugagabe eta ezinago eskerga; ez, ordea, besterik ezertan.

Eihartzeko eta lehortzeko ikarak asaldatzen hinduen, eta orain ere asaldatzen hau. Orbelaren izakidetasuna ezin hik onar. Orbela zapaltzea atsegin zaik, halere... Haize bala azkarretan, bestalde, orbelaren hegaldatzea gertatzen da inoiz. Ez duka behin ere ikusi, zirimolatan gora? Menturaz hi heu ere, orbel eta, hire zelai behe horretan haize balak daudeno, aidean gora hegaldatuko haiz.

Eta Itsas-orroaz mintzatua zen ahots gorgarria betirako isildu zen. Betirako.

Eta malkorik ezean, eguzkia zeruan gora ari zen artean, harroka arrear egon nintzen luzaroan, bertan eserita; eta oka egin beharrez, baina oka ezin eginik.

Eta neke akitzaila, azkenean, mendi-mendiko eguzkiaren beroa lagun, goragalerik bortitzenei ere nagusitu zitzaien.

Eta Ahüñemendiko tontorra izan zen ene loaldi haren lekuko bakarra.

## VII

Eta lo hartan nentzalarik joan zen eguna, eta arratsa etorri.

Eta ederregi zitzaidan harkaitzalde menditsu haren gaineko ilunabarra.

—Orain badakit —esaten nuen behin eta berriz.  
—Berantegi bada ere, badakit orain.

Eta begirunez begiratu nituen harroka zuloetan nekez hozitzen ziren landare ahulak.

—Badakit gaur, bai, suzko mihiak eta elefante zuriak zer diren. Konprenitu egin dut Itsasoa eta lakua zer diren, zerk berezten dituen; zerk bata zein bestea hautarazten eta maitarazten... Oinazeen oinazeetan ikasi: orain badakit.

Eta, eguzkia izkutatu ala, halako distira kutsu bitxia hartzen zuen harkaitzak.

—Neure bidaia berriro egin behar banu... berriro egin ahal baneza... banekike, bai, zer har eta zer utz, zer maita eta zer gorrota... Noiz arte iraungo ote dit, ordea, haize-haro honek? Beti izaten baita berantegi...



## I

... Eta gau minean, abiatu egin nintzen.

Eta harkaitz gorrizko zelai zabala gurutzatu nuen. Eta gero, alimaleko baso ezezagun batetan barrena, egunargiz balitz bezain seguru nindoan ni, itsumustuka batere ez ibilki.

Haize bala epelek, tarteko, sekulako soinua sortzen zuten ene inguru guztian; baina haize-aldien arteko isilunetan, Itsas orroa entzun neza-keen argiro, eta ez oso urrun antza.

Eta beti ere tartekako orroa gidari, hondartza bakarti eta luze-luze batetara heldu nintzen.

... Oso gora zeruan, ilargiak, bere hilbeheran, horiska eta argi-aire agerrerauzten zuen hondar-aren zerrenda azkengabea; eta zuri, higikor, dir-daitsu, uhin etengabeen apar lerro luzea.

Gurutzatu berria nuen pinadi gaitzak, berriz, ilargi giro bitxi hartan, beltz zirudien.

Oskarbi zegoen.

Garden gardenena zen gaua; eta izar ñirñirka-riak milaka ageri ziren Itsas gaineko ortzaldean.

Harrotu egiten zituen terral freskoak olatuen gandorra, eta harrigarritzko xerlo eta ilaje zuri meheak eratzen Itsasoaren aldera.

Urrunean, Itsas-argi pare bat kostaldean, al-dioroz beren errainu-mezu zehatz taigabeak errondan hedatzen ari.

... Eta kanpai hotsak entzun nituen, dei etsian.

Eta bestelakaturik gertatu nintzen bapatean.

Eta kanpai-hots berrioi, arran-hots ahan-tziak erantsi zitzaizkien urrutian, txit urrutian; haurtzaro usainez oratuak. Eta gurutze bat ikusi nuen Bellotsa-ko labarrean, eta malkorrak ilaran, erruz; eta umeak kantari entzun. Eta Zabalaitz mehatxatzailea agertu zitzaidan tontor hartan, eta Aloña-ko mazela; eta, beherean, Araoz-ko bidea somatu nuen, oso oso urruti.

... Baina besterik ziren kanpai-hots berriak, eta besterik ere hondartza luzea eta baso iluna.

Eta haurtzaroko arran-hotsak itzaldu ziren, eta soinu sail errepikatzaile berria nagusitu.

Eta kanpai-hots batetik bestera bazen halako isilune iraunkor bana; kanpai joileak batere pre-sarik ez balu bezala. Eta, hori zela-ta, hurrengo kanpai-hotsa entzun arte hartan, aurrekoaren bi-braldia polliki-polliki itzaltzen zen isilpean. Itsas-orroa, horrela, aurreko kanpai-ukaldiaren hotsa

iraungi ala, tarteka ere handitzen eta nagusitzen zen.

Nondik ote zetorkeen kanpai-hotsa nik neure kolkorako galde, eta, hara!: komentu ezinago zahar bat ikusi nuen Itsasoaren ertzean. Hondar-muno batetan eraikia, harresi luze —nahiz apal— batez inguratua zen. Eta, zabalik zegoen atetik sartu nintzen hesparrura.

Gau mina zen; eta txoririk goiztarrenak berak ere lotan zeuden oraindik, eta txorrotxiorik bate-re ez zen entzuten.

Eta, horretan nengoela, gizon ilara ikaragarri luze bat erreparatu nuen, etxebarrutik arkupe itzaltsura irteten ari; eta melopea aspergarrian kantari. Soildurik zituzten buruak, eta kolore beltzezko abittu luze zantarrez jantzirik zihoazen, mamu itxurako lerrokada bikoitz bat eratzen zutela. Eta belardi laukiaren inguruko gorape edo arkupe hartan barrena jiraka eta jiraka, eta ete-nunerik batere gabe, hauxe kantatzen zuten ordu-betez segidan, bizpahiru orduz, eta luzeago, eta oraino bukagaitzago:

«Zer da, izan,  
anaiok,  
itxuraz  
eta alegiaz  
oratutako  
zelai triste hau,  
bere ederreanean ere...

hil ondoren,  
loak hartzean,  
betirako loak hartzean,  
ezagutuko ditugun  
zelai  
ezin ederragoen  
itzal uxia baizik?»...

Gau beltzean, nor bere kriseiluarekin zihoan, emeki emeki; eta zausk egin zidan bihotzak harri-garriro ikuspen hartan.

Zuhamuska batzuren artean ni izkutaturik, akitu egin nintzen begira egon azkengabe hartan. Aurpegi gazte mardul asko ikusi nuen; ibiliaren ibiliaz, azkenean, izerditan bustirik. Higuin arras-torik ez, ordea, inoren begitartean.

Eta ilara luzearen atzekaldean, berriz, agure-aurpegiak atxeman nituen, ximur; eta, bizkarrak konkor. Eta arnas-hestuka zihoan gizarajo hartaz oroitzen naiz bereziki: barnea larri, eta itobeharrez, besteekin batera baitziotsan kantari sentonak:

«... oratutako zelai  
triste hau,  
bere ederrenean ere...»

Eta ene bihotza nazkaz, etsipenez, gupidaz... gorrotoz, gorrotoz batez ere mukurru beterik, zuhamusketatik irten nintzen, ilaraburuaren aurrrera agertu, eta oihuka hasi:

—Entzun, anaiok! Entzun ongi!

Bere martxa ezertan ere aldatu gabe, bazetorkidan ilara luzea.

—Entzun! Ene mezua ez baita haizeaz honunzko bazterretan entzun ditzakezuen prediku alferren antzekoa...

Baina ilara bikoitz hura niganuntz zetorren bere abiada astun hartantxe. Neure hitzarteetan soil-soilik entzuten nuen Itsasoaren orroa; melopea-saio idor haien tartetan, mezu urtsu iduri.

Eta nigana heldutakoan, ene ezkerraldetik pasatzen hasi zen ilara bat, eta eskuinaldetik bestea. Eta ni, bion erdian geraturik, begiratu ere ez ninduten egiten. Zer zen hura?

Baina hau entzuten nuen atzetik eta aurretik, eskuinetik eta ezkerretik:

«... betirako loak hartzean,  
ezagutuko ditugun  
zelai  
ezin ederragoen  
itzal uxia baizik?»...

Eta ene garrasirik ozenenetan, menturaz bati edo besteri ezagun zekioken betazaletan halako xirkin izutiren bat, zerbait bederen sendi bailuan. Baina hau berau ere ez zitzaidan seguru gertatzen.

—Entzun anaiok! —nik oihu—. Izarren artean ez dago ezer!...

Baina nik bukatu orduko:

«... betirako loak hartzean  
ezagutuko ditugun  
zelai  
ezin ederragoen  
itzal uxia baizik?»...

Bi fraile-ilarak ene atzeruntz joaten ari; baina burusoil gehiago, eta gehiago, eta oraindik ere gehiago niganuntz etortzen, ehunka, milaka... eta denak apalki eta berdinki kantari.

—Galaxien artean ezer ez! —esaten nien nik garrasika—. Baina galaxien atzetik, galaxia gehiago, eta gehiago, miliunka!... Besterik ez, ordea. Eta galaxien artean, eta galaxietan beretan ere, Ezereza iraunkor bakarra.

Baina monastegiko horma isilek berek erantzun zidaten oihartzun amaigabe berberaz:

«... ezagutuko ditugun  
zelai  
ezin ederragoen...»

Beheretik, hondartza luzetik, otoitzarte eta biruarte laburretan, kresal usainetan oraturik, orroa berbera zetorren goruntz: garaitzaile, mendekuz ari itxuraz.

Eta bi ilaren azkenekoak ene plarean gertatu orduko, bazetozen ia-ia ene aurretik, azkenekoe-kin orpoz orpo, ilaretako aintzindariak.

Eta bitan, eta hirutan, eta hamarretan ere pasa ziren horrela fraile samalda gaitzak ene bi alboe-



tatik; eta horrelaxe eguntsentiaren lehenengo argitasunak basoaren aldetik somatzen hasi arte. Eta niri ezikusi osoa egiten zidaten, erreparatu ere egin ez banindute bezalaxe.

Eta lehenengo eguzki errainuak Ekaldetik agertu ziren unean bertan, kantuak amaitu ziren. Eta haize balak goiztiriarekin azkartu, eta Itsas-orroa gailendu. Eta bi ilarak barru aldera abiatzen zirela ulertu nuen.

—Otoi!! —ni oihuka etsian. —Ez sar! Entzun nazazue!

Zabalik zituzten begiak, hori bai; baina begirada, harresiaz bestalderaino, Itsasaldean zuten iltzaturik. Iltze eztengaz estekaturik antza, eta urruntasunean arras galdurik.

Eta, kantari isilduak barru aldera zihoazelarik, deihadarrei eutsi nien, eroturik:

—Arren! Zeuen barnea eihartu arte hor, zeron horretan... etengabeko jiraldi horretan unatu arte... Eta, oraintxe hain zuzen, honelako eguntsenti batez, eguna argitzean... orduantxe uko... erook!... orduantxe zoazte ilunpera... Arren: ez!!...

Erantzunik ez batere bazterretan. Itsas-orroaren arnasa etengabea, berriz, bai: gero eta nabarmenago.

—Beha egon horretan... beti beha, beti hai-duru, beti zai... ez ahal duzue benetan inoiz izualdirik somatu... edo behazuna jaurtitzeko behar gorririk senditu?... Mintza zakizkidate ja-

tor!... Ez-era beldurrak hunkitu ez, inoiz? Aitor ezazue!...

Eta bi ilaratzeak sartzeko unean, ahal nuen eta gorakienik:

—Ez joan ohera arginabarrean!... Hypnos eta Thanatos anaia bizkiak dira. Ez josta! Ez ezazue egun berria horrela hil!...

... Eta horma handi bat ikusi nuen eguntsentian, eta bi hormatzar, eta hiru, eta lehioetan burdinazko barrak saretan... Eta anaia batzu, patiora jetxi berriak; eta zapi batez begiak estalirik, hormaruntz isilik joaki... eta urratu egin zuen isila baten ahots ozenak:

«Ez ormari atzez  
goiz eder argian!»...

Eta hormakideek honela erantzun zioten:

«goiz eder onetan erail bear nabe,  
txindor baten txintak gogotan nabela»...

... —Ez sar! Ez duzue olerkari etsituaren azken deia entzun?

Erantzunik ez.

—Ene anaiak arratsean bederen hil balituzte...

... Eta arran-hotsak hedatu ziren, eta lehengo ahotsa gailendu:



«eder jatazan euzko bazterrak,  
eder itxaso zabala;  
baña oraintxe ederrago jat  
eriotz onen itzala»...

Eta tirokada zakar bat entzun zen brauki, eta gorputzen erorikoaren zarata motelak ilaran; eta azkeneko oihartzunak amaitzean, isiltasun osoa...

... Eta herraldirik amorratuenean, lur-ahurtara bat bota nuen monastegiko murrueen kontra, eta bi ahurtara, eta hiru, eta zazpi; eta zazpi aldiz zazpi ahurtara:

—Harrik ez, ondikotz, harea madarikatu honek! Garbiegi zuentzat!...

## II

Eta orduan erreparatu nuen lau aldetako arkupe luze hartan nihaur nengoela bakarrik.

... Eta Arafat-eko zelai sakratu eta gaitza goratu zitzaidan.

Eta hondarrezko ordeka kiskaliaren zabaleran, ilara zuzenetan eraikirik, mila, hamar mila, ehun mila oihal-denda zuriez oroitu nintzen. Eta miloi bat erromes ikusi nuen, goitik behera berak ere zuriz jantzirik. Eta eguzki dirdaitsuzko giro hartan, beltz ziruditen haien aurpegi beltzaran eta ximurrak.

Eta ia-ia elkargainka metaturik ibilki, «Allah, Allah» otoizten ari ikusi nituen.

Eta elkarren gainean eraikitako bi arkupe ilara ospatsua ezagutu nuen; eta haren zabal eta luzean batera, biok betetzen zituzten otoizlariek.

Eta, bidaldi zehatzean ibiltari, begiratzen nituen erromesak Safa munotik Marwah munora joan-etorri otoitsutan: erdialdeko harritzar beltzari begira zihoazen, nabarmenkiro miretsirik. Eta zazpi aldiz jarraitu nituen neure begiradaz giza mordo fedebero haiek, atzera eta aurrera joaki; eta zazpi aldiz beti, baina ez behin ere bertan edo zortzitan...

... Eta, itxuraz bederen entzulerik batere ez nuelarik, eta halako barne-beroaldiak eraginik, ekin egin nion neure neure hitzaldiari lehen baino gorakiago:

—Adi ezazue, monastegi-barnekook! Otoi, dinotsuet, entzun ezazue ilunpe guztiak urratuak dituen honen ahotsa!... Zuen otoitz horiek ez ditu inork ez ezerk haintzakotzat hartzen, eta ez entzuten ere... Horrenbeste neke esperantzagabetan barrena Bera oraindik asaldatu ez bada, eta zuengana hurbildu; dudarik ez egin: geroko urteotan ere ez da asaldatuko, eta ez zuengana hurbilduko... Egon zaitezte etsita: lehenago dastatuko duzue zuek lurrazpiko isilpe trinkoa, Itsaso beteko goiztiri aratza baino...

Eta beheretik zetorren uhin-orroa entzun nuen.

—Entzuten ahal nau inork barne-alde horretatik?

Kaiuak ari, agian, hondartza bakartian; Itsas-orroa hegazti garrasiz ñabartuz.

—Zeruaren urdina, Itsasoaren urdina... biak elkarren errainu eta irudi; eta biak huts. Koloregabea da Itsasoa, izan; osatzen duen ura bezala. Zerua, berriz, iluna da, beltza, ezer baino hotzago, ezer baino hutsago. Goiko urdintza ez da Eza baizik... Halaz ere, anaiok, zeruak urdintzen du Itsasoa... Eta ezago da Ezaren urdinaz jantzirik agertzen zaizuen Itsaso hori...

(...)

—Eta zuekiko soraio, axolakabe... gupidagabe!... dago, eta egongo da... Nola ez, ordea? Nork gizatartu du Itsasoa? Zerok! Zerok bizi arazi duzue, zerok bizidun hilezkorrez bete... Arrainak eta txoriak ilkor eta ustelkor baitira...

(...)

—Ez aideak ez urak dute zaporerik, ez kolorerik, ez usainik; are gutxiago Itsasondo eta hutsarte mugagabeek... Bertako axalek dute giza-kutsurik... Egiazkoek, Itsas leizeetakoek, izarren artekoek, Ezaren marka dute, eta ez besterik...

Itsas orroa besterik ez zen entzuten.

—Zelai koloregabe eta mamigabe horretan babeslekurik somatzea, Itsaso baztergabera so egitea, gorputz hilotz zurrunari irribarre eskean mintzatu, eta erantzunik gabeko bakarrizketa derrigorrezkoa hastea da. Ez ahal duzue oraindik entzun «kondagaitza dela Itsasoa»? Itsasoari dagokio entzulerik aurkituko ez duen azken irri-algara beldurgarria... Sadikoa da Itsasoa!...

Eguntsentiko isilpe gaitza ez zen Itsas orroa etengabeaz baizik elikatzen. Baina mendera ezin nezakeen indar harrigarri batek eragin zidan orduan:

—Inoiz jarraitu ahal duzue, filmatan bederen, atzerri urruneko liturji saiorik, edo deabru iraiketarik? Inoiz entzun ahal duzue, zeuen buruaz izkutuan lotsatu gabe, argitasun txikiko inor bere fedea besteri azaltzen eta zuzenesten?

Baina eguntsentiko gorriskari, oso, luze, iraun zuen monastegiko isiltasunak.

—Gau izartsua begiratu ahal duzue arestian? Pentsatu ahal duzue inoiz, anaiok, harat-eta, sekula sekulotan iraun behar hartan, zer egin ote zenezaketen? Mila mende igarota, zertan amets? Zertan... lokamuts? Mila miliun urteren ondoren, zertarako areagoko gerorik? Entzun!... Mugarik

eza eraile nagusi!... Ez dagokio, zinez, gizonari, hegirik gabeko lakua: ez hiltzeko, ez bizitzeko; ez maitatzeko, ez gorrotatzeko... Heriotza bezain asaldagarria da heriotzarik eza; baina betikotasuna bezain jasangaitz gertatzen da, berebat, amaitu beharra... osoki suntsitu beharra... gutaz inor inoiz oroitu ere egingo ez dela jakitea... ilunpe beltzetik inork inork sekula deituko ez gaitula erreparatzea... Irtenbiderik ez, horretaz... Itsasoari datxezkion galderak berak dira erokeria, eta ez erantzunak bakarrik... Itsasoa bera da giza-leize zolagabea!

Eta aho-sapaia eta zintzurra minbera:

—Erauz ezazue zerongandik, bai mugaren ideia, bai mugarik ezarena... Bihur zaitezte haurtzarora!!

Eguntsentiaren hozkirrian, batetik bestera gurutzatzen zuten zutarri-ilaren itzalek arkupe gorriskatua, ene ezkerreko horman errainuzko arkupe marraztuz. Pinadi gaitzetik ozta-ozta entzungarri, txorrotxio urrun batzu heltzen ziren niganaino.

—Gure garuna osatzen duten mila miliun zelula berezituak usteldu, eta beroien arteko mila miliun lotkiak hondatu, eta giza-konputakin harrigarri hori kirastuz gero, nork konponduko?... Zertarako ere konponduko?... Miliunkako giza-kideek, elkargainka metaturik, biliunka urtetan barrena elkar zapaltzeko? Eta aitasoekin eta ilobasoekin batera bizitzeko? Ez du funtsik!

Eta monastegi barrutik, zurrumurru baten antzera hitz hauek entzun nituen:

«Bou sanyastan mayâ,  
Bhouva sanyastan mayâ,  
Sva sanyastan mayâ»...

—Ezagutzen duzuen guztian arima aztarrenik ez badago, are gutxiago gupida arrastorik ere; lakuaz bestalde ezezagun hartaraz gero, ordea, dena arima, eta izpiritu, eta poz, eta irribarre, eta gupida, izango dela sinestea, zertan oinarri ote dezakezue?... Zer ikusi zenuten atzoko gauean? Eta, zer entzun?... Nik esango dizuet: ezer ez! Edo-ta, gehienik, zakurrek eta txoriek ere ezagutzen dituzten lokamutsen batzu agian! Besterik ez... Geroaren saio ederra, eta gauero... Azkeneko loaldi azkengabea, berriz, dena gozatuko eta betirako gozatuko, omen...

Eta barre egin nuen arkupe hutsean, ozenki barre.

Eta, monastegi barrutik, zurrumurru baten antzera, hitz hauek entzun nituen:

«Bou sanyastan mayâ,  
Bhouva sanyastan mayâ,  
Sva sanyastan mayâ»...

Begiak altxa nituen: Zerua urdin. Eta arkupeko hormak, lehenago gorraire, argiago agertzen.

—Nola ez sendi, anaiok, azkenik ez hastape-nik duen beltzaren zorabioa? Nola ez ikus, itsutzeko moduan, eguzkiaren borobila begiratzen duzuenean bezalaxe, huts ale bat besterik ez za-

retela; eta gizadia oro, hauts-lano igarokor bat... ez dela zuetaz, Kosmo ezinago zabal horretan barrena, arduratu, eta ez arduratuko ere?

Erantzun izpirik ere ez. Leiho guztiak hutsik.

—Azken gauean abiatuko zareten une lazkarrian, biharamunik ez... Atxik orain jaiotzen den honi! Balia ezazue goiz eder hau laku apalen ertz geldian. Utz eresi alferrok! Ahantz ezazue Itsaso baztergabea!!...

Eta, monastegi barrutik, uxola handi, hau entzun zen:

«Bou sanyastan mayâ,  
Bhouva sanyastan mayâ,  
Sva sanyastan mayâ»...

—Entzun! Zuen hitzak dira hauek: «zeren-eta belarriak izanik ere, ez baitantzute; eta begiak izanik ere, ez baitakusate»... Nola daiteke, beraz, zerok hain zuzen horren entzungor eta itsu irautea?

Eta neure eskuinetik, eta neure ezkerretik, eta alderdi guztietatik, monastegiko paretak berak piztu balira bezala, hau entzun nuen goraki, zazpi aldiz errepikaturik:

«Bou sanyastan mayâ,  
Bhouva sanyastan mayâ,  
Sva sanyastan mayâ»...

Eta, eztarria mindurik, honela erantzun nien:

—Ez ahal duzue inoiz pentsatu, belaun bakoi-tzean, eta horrelaxe zuenganaino, ezer izan baldin bada txiripa eta ustekabe hutsa, zeon aita-amaren elkartzea izan zela arraroena eta ustekabezkoena? Eta elkarraldi horretan ere, are miressgarriago izan zela zuek sortu zintuztöten bi giza-hazi haie-txek hain zuzen, eta ez beste edozein, elkartzea? Eta aldamen hartantxe, beste mikroi baten ingu-ruan, higitzen zen beste edozein espermatozoo egokitu izan balitz, zuek, eta hi hobe, ez zinete-keela jaiorik ere gertatu? Eta txiripa berbera, miliun bat kasutan behin bakarrik, eta ez bitan ere, gerta zitekeen haren zori bera, zeron lau aitona-amonen lau kasuetan gertatu zela... eta gauza bera zeron zortzi birraitona-birramonen zortzi kasuetan... eta gauza bera zeron hamasei... eta gauza bera zeron hogei-ta-hamabi... eta gauza bera zeron... eta gauza bera zeron lau-mila-eta larogei-ta-hamasei... eta gauza bera zortzi-mila-ta-ehun-eta larogei-ta-hamabi... eta gauza bera hamasei-mila ta hirurehun-eta-larogei-ta-lau... Entzuten ahal nau horko inork?...

Hondarmunoaren ertzetik goruntz heltzen zen Itsas orroa bide zen beti ere ene lekuko bakarra.

Eta, garrasi eroan, hau erantsi nuen:

—... eta gauza bera atzerago, eta katean atze-rago... eta, entzun hau!, pitekantropo eta prokon-sul bakoitzaren sorreran!

(...)

—Ezer ez da, hitz batez, zuetako nornahi eta ni neu baino gertagaitzagarik!... Ezerk ez du iza-



teko behartasun txikiagorik zuek eta nik baino!...  
Ezerezaren anaia bixkiak gara!...

(...)

—Hantusteak zaituzte galdu eta itsutu. Zeren...  
entzun hau bederen... oihanetan eta itsasoetan,  
alimale eta zomorro zenbakaitzen heriotz larrial-  
dietan, eta zertarako neke hura guztia ez berek  
eta ez guk dakigula, izadi penatu osoak jasaten  
duen sofrikario metaren eskergaz ahazteko gertu  
baitzaudete... Baina zeron buruaren deuseztatzea,  
berriz, sineskaitz baitzaitzue, eta irentsezin egin...  
Edozer baino preziagarriago eta atxekigarriago  
zareten esperantzak zaramatzate galmendira... la-  
kutasun apal igarokorrean gelditu ezinak... Horra  
hor zuen hoben bakarra. adimenari eta zuhur-  
tziari ezentzuna egitea... Itsasoaren pareko izan  
nahi: bare, zabal, mugagabe...

Goiz gaztean isilpea gailen, baina muno-behe-  
rean Itsasoak zerauntsalarik.

—Urta itzazue zeuen abittu beltz horiek!  
Behin eta betirako honda!

Ez bide nintzen ni neure mihiatz mintzo.

—Irten zaitzete murru-arte okaztagarri horre-  
tatik! Puska itzazue enekin bedeinkatuak oro!...  
Harri, paper eta liburu sakratu guztiak, suzko  
lakura!...

Eta barneak zirakidala, monastegi-etxe barru-  
ra sartu nintzen, arkupea berezten zuen ate gai-  
tza neure atzean utziaz. Eta, barruan nintzeneko,  
irri-algara ozenen artean hau bota nuen:

—Ezerezerako bidari itsuok: gorpugai zarete!!!

Baina etxebarruan ene garrasiaren azken oihartzunak suntsitu orduko, ezertxo ere ez zen somatzen.

Ezinago iluna zen barrualdea. Baina, ilunpean ere, pasabide luzeak somatu nituen neure aurretik, eta neure ezker eta eskuinetik. Eta pasabideetako bi alderdietan, ate mordo ugaria erreparatu nuen: ehun bat ate ilaran, gehiago agian, gehiago segurki, elkarren parean ilara azkengabetan itxuraz.

Bazuten ateok, goiko partean, halako xirrikitu luzeska bana, mehar-meharra; zaindareiek-edo pasabidetik barruko gela ikusi ahal izateko moduan prestatua. Pasabidearen aldetik hestua zen xirrikitua; barnealdetik, berriz, xabalago. Barrukoak, hitz batez, kanpokorik ezin ezer ikus; baina bai alderantziz: kanpokoak, den-dena.

Eta barrura begiratu nuen xirrikituetatik. Eta lastu ere egin nintzen: atzekaldeko horman baze goen-eta zulo borobil bat, zekena, xixtrina, leiho-rik eta berinik gabea. Beti ere, eguraldia bero edo hotz, irekita egon beharra.

Gartzeletan bezala, berriz, serraila bana bazuten ateek; baina barnetik zabaltzeko kirtenik ez. Eta irten-beharra gertatzekotan, ezin barnekoak bere buruz atea zabal: umilki, deitu egin behar besteri.

Eta gela txikiaren barruan, katabu beltz bana baizik ez zegoen: erdi-erdian kokatua bera. Aldamenean, eta iltze batetarik zintzilik, abittua eta

jantzi txuri bana erreparatu nuen; eta burdinazko aulki zatar batetan, azkenik, halako atorra ilun itsusi bat.

Eta katabuen barnekaldean, lotan, erdi biluzik, tapakirik batere gabe, jiraketan ibilitako fraile beltzak zeutzaten. Bi, hiru, zazpi, berrogei ikusi nituen, bi, hiru, zazpi, berrogei xirrikitutatik. Eta bietan, eta hiruetan, eta zazpitan, eta berrogeietan, gauza bera ikusi nuen.

Eta bularrak geldi zituzten, iruditu zitzaidanez, arnasaren hauspoa geratua, amaitua; denboraren isuria agortu bailitzaien; lozorro ezinago sakonean baleude bezalaxe!

Ito uste nuen!

Eta, ate gaitza nekez zabalduz, kanpora irten nintzen; eta monastegiko arkupe laukunak, lehen bezain isil zirauen. Eta eguzkia lehen baino dir-daitsuago eta itsugarriago.

Eta arnasa gogoz hartzeko betarik ezin bilaturik, murru apalen gainetik eta Itsasora begira, ikaragarritzko deihadar luze eta zorrotza jaurti nuen.

### III

Eta ikusmena galduko nuela iruditu zitzaidan; eta itsualdi hartan neurtzen nuela xuxenkienik monastegi barruan zegoen beltz argigabearen harri-argia.

Eta kanpoaldeko giro epel ederrean kanpai-hotsak entzun nituen.

Eta, ni arestian pasatako ate gaitz beretik ir-tenda, zazpi fraile abiatu ziren arkupe laukunean barrena.

Goitik beheraino kapa beltz bakar bana jan-tzirik, buruak soil zituzten, eta diztirante; eta, horma luzeari begira paratuz, lurgorrian eseri ziren lotus-erara.

Liburu eskerga bana zeukaten eskuetan, eta hau irakurtzen zuten ahapeka:

«gartzelan ezin etsi dezakeen katibuak bezalaxe, guk ere,

Jauna,

lau murrutzar adiskide hauen artean

galduko dugu

abiatu berria den

egun eder hau...

eta hondatuko,

eta piskanaka iraungi araziko,

eta zure gorantzan horrela madarikatuko:

jiraka alferretan unatuz,

batetik,

eta harri gogor honetan eseriz,

bestetik.

Eta horrela sakrifikatuko dizugu  
egun hau,  
ederrago badator hobe,  
beste anitz bezala:  
argia ukatuz,  
eta erhanez,  
eskaintzen dizugula;

hondar idorra bustitzekotan,  
Eguberri oroz  
bildots  
errugabea  
akabatzen  
eta odolustutzen  
dugun bezalaxe»...

Gazteak ziren zazpiak. Eta beti tinko, beti zindo beren beltz zarpailean, eta beti ere harlosa-gorrian lotus-eserkeran, aldagaitz, izukaitz, irakurreran eta gogoetan txandaka ari.

Eta eguneko ordurik ederrenak joan ziren otoitzaldi horren zurrumurruan, eta ordurik itsusienak joan ziren gero; eta ordu guztiak igaro ziren, hitz batez, isilpe trinkoan eta irakurketa sakratutan. Egun osoa joan zen, joan; oso osoa...

Eta arratsa zetorrenean, xurixka jarri zen zerua; Euskal Herrian eguzkierrea izaten denean, jarri ohi den antzera.

Eta, sargori geldi hartan, zerua eta Itsasoa lausope urdinean nahasten ziren Mendebaldetik: elkarrekiko mugarik gabe, elkarren baitan erabat gesaldu balira bezala.

Noizpehinka, monastegi inguruko harresiaren gainetik ikus nezakeenez, zeru itsugarri erzkabea gurutzatzen zuen antxeta batek edo bestek, hegaz: lasai, nagi-nagi. Eta urrunago, eta beherelano meheak urdinkatutako baso eskergaren mugetan, ke arin-arina zerion etxe txiki batetako tximeneari, polliki-polliki; eta, ezari-ezarian, inolako presarik edo asaldurik gabe, antza, lano giro baketsuan galtzen.

Ordurako, eguzkiaren disko borobil erliebegabe, plaun, apal eta epelaren inguruan, eta gelditasun guztizkoan, laranja eta more agertzen ziren, atzekalde doibakarrean nabarmenago, hiruzpalau hodei luzeska. Lanbroaren hezetasunak aidea bustitzen bide zuen, hein batez; eta ene odola, harritzeko moduan, zainetan irakin erazten:

—Bizi egin nahi dut!

Eta eguzkiaren begi bakar eta laranja hura, gero eta motelago eta moreago bilakatzen zen zeru goibelean; eta gorritu ere egin zen geroxeago, labe gorien kolorea hartu arte. Eta, hodei luzea hartara gertatu zela-ta, marra more berri batek zeharkatu zuen, ezkerraldetik eskuinaldera, diskoa bitan erdi-erditik zatituz. Eta, ni konturatu orduko, ortzen-behereraino baino lehenago, azken hodei urrunen atzekaldean, itzaldutako egin zen erabat disko gorri izana, bere beherabidean norapait izkutaturik...

Eta kanpai-hotsak entzun nituen berriro neurre gainetik.

Eta, ate gaitz astunetik, erretiratu egin ziren zazpi fraile gazteak etxebarru aldera...

— Eta handik piska batera, isilaldia hautsiz, kanta-leloak hasi ziren monastegiaren barruan, bezperan bezalaxe; eta, oraingoan, ate gaitza lu-zerako zabalduz, arkupean barrena abiatu ziren bi fraile-lerrokada gaitzak, berriro ere jiraldi az-kengaberako abian.

Eta zerua, eta lurra, eta lurrazpia bera ere bai, bezperako eresi berberaz bete ziren mukurru:

«... betirako loak hartzean  
ezagutuko ditugun  
zelai  
ezin ederragoen  
itzal uxia baizik»

Eta ilunabarrarekin terrala altxatzean, azka-rrago bihurtu zen Itsas orroa:

—Ilunpeak Itsasoa pizten!!

Eta arkupeen arteko belardi baketsura, bi txori agertu ziren, elkarren ondotik jarraialdi jostarian; eta berehala, arratsaren argi epeletan, ihesi joan biak.

Aurrera zihoan ilara bikunaren kantaldi ne-kagaitza: beti bera, beti doinubakar eta asper-garri.

Eta nik, neure ahots lakarra azkartuz, eta neure burua melopearen gainetik gailen erazi nahiz, honela esan nuen:

—Ezaren ohorezko dantza ero horretan, beste bildots bat akabatu duzue!

Eta kanpai-hotsak entzun nituen, zazpi aldizko deian ari.

Eta, monastegi barnetik, eta neskatila gazte ahotsez, hauxe entzun nuen segidan, zazpi bider errepikatua:

«sekula ez eguzkia guretzat...  
sekula ez argia»...

Eta, tarteka:

«Bou sanyastan mayâ,  
Bhouva sanyastan mayâ,  
Sva sanyastan mayâ»...

...Eta otoitzezko mila ordu hartan, heldua zen biharamuna; eta heldua ere, berriz, arratsa... Eta zazpi gazteak behin eta berriz irteten ziren goizean, eta arratsean sartzen. Eta geroago, itzalak luzatu ondoren, Itsasoaren urdina gau-haize berriaz urdinago bihurtzen zenean, kanpai-hotsak hasten ziren...

—Inoiz ikusi ahal duzue txinpantzerik bakar-dadean hiltzen?

Eta monastegiko ate astuna hetsi egin zen.



## IV

... Eta belauniko jarri nintzen; eta adrilu-puska koskor batez nekez idatziz, letra handitan, eta monastegiko norbaitek noizpait irakurriko ote zuen esperantza itsuan, hauxe izkiriatu nuen zazpi harlosa zabalten luzeran:

—«Gezurra dio Itsasoak. Lakua mintzo zaigu egiazki»

Harrizko zoruan idatzi behar hartan, mindu egin zitzaizkidan belaunak, eta eskuak arrunt hoztu. Eta zazpi fraile gazteak madarikatu nituen.

Eta monastegi barrura sartu nintzen. Bigarren aldiz, eta betirako agur errabiatua esatekotan, edozein desmasia egitera deliberatua.

Ate astuna nekez bultzatu, eta sartu egin nintzen.

Ilunabarraren argi epeletan, ezer ez zen han ikusten. Pasabide luzeetan barrena, berriz, giltzez itxita zeuden ate guztiak. Eta xirrikituetatik begiratzen nuen. Denak hutsik!

Gela batetan, ordea, argi xume bat bide zegoen. Xirrikitu luzeskatik, argi xirrinta fin-fin bat helzen zen pasabidera, aurrekaldeko horman dardarizu lerroaire bat markatuz.

Eta gelabarru hartara begiratu nuen.

Kriseilu bat zegoen lurrian, piztuta, katabuaren ondoan; eta beronen barrutik, arnas hestuka ari, azken hatsetan abiatua segurki, otoitz gisa

erregu berbera errepikan. hau entzun nezakeen,  
agure ahotsetan emana:

—Indak, Jauna, ordu larri honetan...  
azken oinaze... latz... hauetan...  
kaliza... osorik... irestekotan...  
azkenera arte... esnai...  
ahal denik eta...  
iratzarrienik...  
irauteko garazia...

eta halaz ere...  
neke luzean zehar...  
higan...  
konfiantza ez galtzeko...  
dohain paregabea...  
indak kaliza osoa...  
Hala biz!...

Gela huts eta hotzean bakar bakarrik, zerral-  
doan sartua, prest zinez etenunerik gabe bertan  
ehorzteko moduan...

... Eta kanpai-hotsak entzun nituen: goizeroko  
deia. Dei pausatua, luzakorra, sukarrrik gabea.

Eta neure barruan, haizeaz bestalderako bi-  
daia lantsuan berriro gertatu banintz bezala, har-  
losaren hotza senditu nuen eskuetan eta iztarre-  
tan; etengabeko eresi etsian, eta bizkorgarri ba-  
kartzat, hau entzun uste nuelarik:

«goiz geldi epel hartan...  
goiz geldi epel hartan...»

Eta, lotsaturik, asalaturik, gupidak harturik ere bai, baretu egin nintzen bapatean, isildu ere bai osotara; eta monastegiko pasabideetan urratsak entzuten hasten zirela, arkupeetara irten.

Lotus-eserkerazko zazpi gazteen arrastorik ez jadanik.

Beherean, berriz, eta inguruko harresi apalaren gaintetik ageri, Itsasoa zetzan ilunean; eta isilean olatu urrunak entzuten, bake harrigarrian. Eta beheretik gora hedatzen zen ubanare usaina aditu nuen, kresalarekin nahasia, eta ene hotzikara hartan sarkorregi. Goiz egurats epeleko bakardadean, giza-hats lasaia zirudien uhinen etorrera taigabeak... Bareegia agian.

Eta joandako urteen urruti-min garratza, sekula baino bortizkiago senditu nuen.

## V

Eta hurrengo arratsean organo akorde ozenek esnatu ninduten, eta intsentsu hodei trinkoen eztl eragin.

Eta aurreko egunetan gertatutakoaz bestaldera, ez zen arrastiriko gau-ibilketa amaigabea hasi.

Honen ordez —gauzaren bitxia!— zalaparta franko somatzen zen barneko pasabideetan; eta kanpo aldeko arkupe laukunaren Erdiko belardi leunean, ilunabarreko argi epelean ozta-ozta ohar-garri, txondor handi bat eraikitzen ari zirela ikusi nuen.

Eta denek zekartzaten hara, gazteek eta zaharrek, joan-etorri harrigarrian, txotxak, eta abarrek, eta adarrak, eta enborrak; eta erdigune hartan, gero eta gorago txondorra metatzen.

Eta lauzpabost metro gora iritsi zuenean, erretiratu egin ziren fraileak oro monastegi barrura: bai zaharrak, bai gazteak.

Eta handik piska batera, berriro azaldu ziren arkupeetara; zuriz jantzirik oraingoan, dotore, pentsakor; eta txondorrari begira paratu ziren inguru guztian.

Arrastirian garrak zabaldu eta handitu ala, itxura harrigarria hartzen zuten monastegiko arkupeek, eta zutabe borobilek eta hormek. Argi horiska eta aldakorrean, ditzira bitxiz hizladatzen ziren fraileen abitu zuriak; eta buru soil ilarak, sutegi ondoko ñirñirka erreflexatzen eta berritzen.

Eta erdiko txondorrean gora zihoan sutzarra  
aski gora zenean, eta melopea berriz batez orain,  
honela kantatzen zuten fraileek:

«Itsasoaren antzera,  
bakarra,  
eta iraunkorra  
Egia.  
Errakuntzen multzo kondagaitzari,  
berriz,  
laister dario anizkerien kiratsa...

mila zingira eta putzutako  
ur geldiar bezala,  
laister baitarraikie lakuei,  
beren azken zolan,  
lokatza beltza,  
eta har xurixka ugariak,  
eta txitxare larrosa lodiak»...

Eta —hura larrialdia!!— ene mezua idatzirik  
zeramaten zazpi harlosa astunak ekarri zituzten  
bertara; eta, banan banan gero, zazpi ukaldi zata-  
rretan, surtara bota zituzten. Eta zazpi gorpu  
epelen zarata berbera egin zuten harlosek txon-  
dorpeko galdan.

Eta liturgi-saio hura zuzentzen zuen fraileburu  
zaharrak, zazpi harlosak banan banan surtara-  
koan, bi besoak zut goraino jasorik, zazpi aldiz  
egin zuen erregu hau:

—Mendi goitian errezebitutako harrilegea ba-  
genian... Suntsi hazala su sakratuak!

Eta, besoez keinu berbera denek errepikatuz, «amen» esan zuten zazpi aldiz segidan fraile guztiek.

Eta gero, etenunerik gabe, gorriz jantzirik, zazpi fraile ekarri zituzten bertara. Nork bere zapi zuriaz estalirik, itsu zihoazen txondorreruntz, besotik helduta zeramatzatelarik.

Aurreko egunetako zazpi gazte mardul berberak ziren!!

Eta banan banan, espanturik gabe, surtara bota zituzten. Eta garrasirik batere gabe, ezer txotarako ere soina makurtu edo bihurtu gabe, suntsitu behar hartan oinazetik batere senditu ez balute bezala, argizagia bezala funditu ziren zazpiak.

Eta ordura arte ezagutzen ez nuen giza-haragi errearen usaina hedatu zen arkupeetan, eta monastegitik kanpora oso urrutiraino menturaz. Eta azkura gaitza nabaitu nuen neure eztarrian.

Eta keia eta usaina apalduz zihoazen; eta hauxe entzun nuen, monastegiko ahots guztiek errepikaturik:

—Madarikatua izan bedi Itsasoa sal dezana!

Ekaldetik, gorriska eta mehe, bazetorren eguntsentia.

Eta, erabat gainditurik, ihesi joan nintzen, korrika ahala korrika eginez.

Eta, ene arnasak huts egin zidanean, baina ez lehenago; besterik ezinean, baina ez nik geratu nahi izanda; zerraldo erori nintzen.

## VI

... Eta oihan betean esnatu nintzen, zuhazti trinko itzaltsuan; Itsasotik urrun, nik uste, hezetan epel hark ez baitzuen kresal usainik.

Sapa zegoen Ekainaren erditsuko egun beroegi hartan.

Ene aurrean, ehun bat metrotara, muno harritsu bat ikusi nuen: harri-mokor pilo zahar zaharra itxuraz. Muno soil soil; arrailduretan itsatsirik ikus zitezkeen zuhamuska edo laharren batzu kontutan ez hartzekotan bederen.

Zeru lanotuan ageri den ostarrea, edo elurrezko estalki orbangabea ilunegi nabarmendu ohi den lurmena bezala, talaitxo bitxi hark ere, berebat, ez zuen berezko ematen, ez bide zen bere buruz edo naturbidez metaturik. Soilgune harrigarria zen oihan zabal trinkoan, eta kandarezko itsaso hartan giza-ostarte gisa agertzen.

Eguerdi iria zen; eta, Mendebal aldetik, goibelago eta ilunago ematen zidan zeru lanotuak. Tarteka, berriz, turmoien orroa entzuten nuen.

Eta euria hasi zen, apurka; tanto lodi-lodiak, ongi tartekaturik, eta garbiki banandurik hastapenean; urrungo ostotsak ere tarteka eta banan-banan entzun zitezkeelarik...

Eta, horrelakorik inolaz ere espero ez nuelarik, halako sasi-gizakume (edo halako tximuaire) mordo bat agertu zen, jauzkari, ene aurrera oiharen aldetik.

Kondata egin nituen delako basa-gizaire haiek; eta talde bitxi hura berrogei-ta-bederatzi tximuztarrek osatzen zuten.

Denak sendo —zaharrak batez ere— denak ileitsu, denek besoak luzeegi, belaunetaraino zintzilik; eta denek ere hankak motzegi. Zuhaitz adarretan gaindi, zalu eta ezinago bizkor baziruditen ere, lurrean barrena, mantso, eta motel, eta kankailu ematen zuten.

Eta, presarik gabe antza, talaiaren aldeko soil-gune harritsuaren ertzera bilduz joan ziren; eta arrak hara bildu bezain laister, ilara luzean abiatu ziren gainerakoak ere, maldan gora joaki, eta talaiaren tontorreraino. Eta, hara eta berehalaxe, zoru harritsuari eseri ziren.

Zazpi ar handi kondata nituen, eta hamalau eme, eta hogeita-zortzi ume: gaxteak oso hauetako batzu, amaren bizkarrari tinko helduak. Beste batzu, berriz, koskortzen hasiak.

Eta Mendebal aldera begira jarri ziren berrogei-ta-bederatzi basa-gizaireok; une hartan, tximuztar-teko ohituraren kontra, elkarrekiko zorri bilaketan ari ez zirelarik. Harrigarria! Urruti finkatuta bide zuten beren begirada; eta, hurbiltzen ari zitzairen euriaren bortitzez eta turmoien beldurgarriaz, zirkinik ere egiten ez zutela; eta bertan geldi geldirik.

Eta tartetako tanto lodi bakanak, findu eta ugaltu egin ziren geroago, eta elkarri lotu, eta euria trinkotu; eta ondoriozko erauntsi etengabea, eurite guztian barrena bezalaxe, egun hartan na-



gusitu zen eskualdeaz. Eta, konturatu orduko, tropikoetan gertatu ohi den bezala, sekulako uholdea mamitu zen ene begien aurrean.

Eta lehengo turmoi-hots urrunei, ihortzirien ilara hurbila eta itsugarria jarraiki zitzaien. Ene buruaren gainean bertan lehertzen bide zen zerua.

Baina tximuaire mordo hura —edo gizaire agian ez baitakit orain ere hau ala hura ote zen— busti-behar hartan gertatuagatik ere, ez zen zipitzik ere asaldu, eta mogitu. Adar hostotsu bana hartu zuten; eta, aterki gisa, bizkarraren gainean jarri zuten. Eta harri-pilo soilean geratu ziren berrogei-ta-bederatziak: tinko, izukaitz, ia lau ordu luzez; eta erauntsi beldurgarriak iraun zuten debora guztian.

Eta arratsaldea dexente abiatua zenean, eta arrastiria heldu, atertzen hasi zen, eta Mendebaldetik halako argitasun horiska somagarri egiten. Bukatua zen eurite luzea!

Eta oreinek, eta lehoinek, eta sugetzarrek... eta tximuaireek bazekiten. Nik ez banekien ere.

Hots, une hartantxe, ibilkera nasaian, okots urdina zuen gizaire arrik zaharrena, zuhaitzetatik jetsi zen, berezi egin zen taldetik, bakar-bakarrik kideengandik hastandu, eta blai eginda zegoen harri piloan eseri.

Eta beti ere Mendebal aldera begiratzuz, zutitu egin zen; eta atzeko bi hanken gainean, eskuin- ezker, eskuin- ezker, txandaka jauzika bietan, eta tolareko mahatsa zapaltzen ari balitz bezala, astunkiro dantzatzen hasi zen; beti ere zutik, eta

gorputz osoa balantzaka alde batera eta bestera zerabilela.

Eta, bizkarreko ilea zeharo lazturik, garrasi zorrotz bat bota zuen bapatean: luzea, oso luzea, belarrien mingarria, ezin esan ahalakoa; gero eta zorrotzago, gero eta zaratatsuago, gero eta alimaleago, gero eta amaigabeago. Eta bere bular harrotuan bere bi ukabilez txandaka gero eta basakiago jotzen zuela, izugarrizko burrundara sortzen zuen ekaitzaren ondoko barealdian; han nunbait danborrak-edo jotzen ari bailirean.

Bitarte hartan, talaian zeuden, begira, gaine-rako sei arrak, hezurretaraino bustita, beren adar hostotsua alferrik bizkarraren gainean atxikita. Eta emeak eta umeak, beren aldetik, soilgunearen ertzeko zazpi pikondotara igoak ziren; dena goi hartatik hobeki ikustekotan. doaika.

Eta okots urdineko gizaireak, beldurgarrizko orroa bota zuen memento hartan; eta Mendebaldeko mazelan behera, bere indar guztiez eta habaila ikaragarrian, harrizko talaitik jetsi zen.

Eta harri-munoaren behereko zuhaitzera iris-tean, jauzi egin zuen brauki, zuhaitz-adar lodi eta sendo bat eskuaz heldu; eta, harrigarrizko indarraldian, basaki, ezin azkarkiago, puskatu egin zuen bertan, bere korrikaldia horrela tenk bukatuz. Eta lurrean exeri zen, basa busti hartan lasaiturik antza, eta muno soilaren aldera begira paratuz.

Tontorrean, berriz, jetsaldi hura amaitu eta berehala, bigarren artzar bat jeiki zen, eta beste

bostengandik hastandu. Eta, bide berberetik, garrasi eginez, bularrean ukabilkada zarta andana kikiagarrian, eta bi hanketan txandaka ezker eta eskuin lipar batez balantzatu ondoren, erotu egin balitz bezala, aldapan behera abiatu zen bera ere, munstro ikaragarri, bere indar guztiez; eta, zuhaitzetarakoan, behingoaz geldi erazi zuen bere gorputz aztuna; horretarako, lehenengoak bezalaxe, beso luzeegia jaso, adar lodi-lodi bati heldu, eta abiadura izugarri hartan puskatu ondoren, gelditu egin zen, baita bertan lasaiturik exeri ere.

Eta, errondan horrela, eta elkarren ondotik zazpiok, berdin egin zuten hirugarren arrak, eta laugarren arrak, eta gainerakoek. Eta berdin ere, beraz, zazpigarrenak, arrik gazteenak; honek ere bere abiadura eragabean beheruntz abiatuz, eta adar sendo baten puskaeran erreستا lortuz.

Eta zazpi gizaire arrak muno behereko zuhaitzaren hegira horrela bildu zireneko, goruntz abiatu ziren, harri-munoaren tontorraren aldera. Zazpiok elkarekin gorakoan; eta okots urdina zuen zahar hura gidari zeramatelarik.

Eta, berriro zazpiek, elkarren segidan, eta oihu eta burrundara berberean jetsiz, lehenagoko zerimonia zazpikoitz bitxi huraxe eskaini zuten.

Amek eta umeek, bizkitartean, isilik, adarretan exerita, taldeko ar sendoei beti so. Eta zazpi aldiz betetsi nuen dantza bera.

Eta orduan, muno-behere nahasi hartan, berrogei-ta-bederatzi adar lodi zeudela erreparatu nuen.

Eta zazpigarren txanda zenean, jeitsi egin ziren harri-pilotik lokatza bustira ikusle gisa, otoizka agian, zazpi pikondo adarretan egonak ziren hamalau emazteak eta hogeita-zortzi seme-alabak.

Eta denok oihuka eta jauzika dantza antzeko zerbaitetan ari izan ondoren, 49 adar puskatuak bildu; eta beren ondotik arrastaka garraiatuz, oihanaren barru aldera abiatu ziren...

Mendehal aldetik, artean, urrunduak ziren, eta piskanaka mututuak, ostots oiharzunak.

Heldua zen lehortea, eta zerua gero eta argitsuago agertzen zen. Gero eta horiago ere bai; eta gero, are gorritzatuz ere joan zen. Biharamun eguzkitsu eta aratza etortzeko seinale segurua. Baita ondoko asteetan barrena, nagusikizun zertorien lehortearena.

Lurrun gozo epela zerion lurrari; eta hamaika landareren urrina hedatzen zen arratseko eguratsean. Ur-tea bukatzean, Urt-ats!

Eta oso urrutitik, eta ilunabar gorria more bilakatzen zen unean, kanpai-hotsak entzun nituen... luzaz tartekaturik eta berezirik... Han nunbait, urruti hartako Itsas ertzean menturaz, dei etsian ari...

## VII

Eta lehorrez ibili nintzen luzaroan, bizpahiru egunez agian. Eta beti ere belar izpirik gabeko basamortu gaitza neukan neure aurrean.

Eta, halako batez, munduko araurretan beretan nonbait, zeru urdinean kezko zutabeak goruntzean kurubilkatzen ari somatu nituen; eta hamaika mila tximeneren hizla iluna piskanaka sortzen zela. Eta, polliki-polliki, hanarteko isiltasun guztizkoari burdinatzarren ukaldi andana gorgarria nagusitzen zitzaiola.

Basamortua bezain zabala zen hiri ketsu hartan, ilundu ere egiten zen ene gainean eguerdi iriko zeru urdin aratza; eta zarata hazkor hark mindu egiten zituen ene belarriak.

Berebiziko lantegi ilaren artean, ehun kale, edo berrehun, edo bostehun agian; denak paralelo, eta denak nigandik ihesi zihoazen, murre arteko erreten eskergak moldatuz. Hura produzio zurrunbilo sukartsua!

Neurririk gabeko tximene oihan hura kezko lanbrotan ageri zitzaidan, eta bere hiru laurdenetan edo izkutaturik.

Batimendu guztiek (anaia bizki denak, anaia bizkirik baldin badago) hirurogei bat metro gora zuten, ehun bat metro zabal eta beste hainbeste luze. Kaleak ere, berdin-berdinak, zuhaitzik gabek eta zabalera berberekoak: hogeit bat metro. Paralelepipedo asmagaitz haietan, ez leihorik ez atekarik: paretak oro, itsu. Sartzea eta irtetea lurrazpitik.

Batimenduen erdialdean, barrukitzar beldur-  
garrien gainetik ikus zitekeenez, tximene gorri  
bakar bana gailen: alimalea bera, erdian adi  
kokatua, izarrak berak ikutzeko modukoa itxu-  
raz, eta etengabe kee beltz-beltza zeriola. Hara  
hango zaindari isila, hango zaindari ketsua, bi  
eta hiru hesitan hari xixtrodenez inguratua. Lan-  
tegien arteko kaleska meharretan, erruz, txatar-  
-metak, eta hondakin munoak, eta xafla herdoi-  
tuak, eta nolana hiko piloak eta zantarkeriak.

Eta aidea, beroak eta keiak horretaturik,  
itogarri bihurtzen zen zinez.

Tarteka, eta kale kantoin guztien artean, zin-  
tzilik, hamar metro zabal eta hoge gora, bertako  
buruzagiaren foto zuri-beltz gaitzak ikusi nituen.  
Kale kantoin hainbat fototzar, xuxen. Irribarrea  
ezpainetan, besoak gerriaren gainean gurutzatu-  
rik, hoge bat domiña ikusi nizekion, bularraldea-  
ren zabalera osoan zintzilik: diztirante, dotore;  
«Pater Patriae».

Eta, berorren azpikaldean, letra zuritan, eta  
itxuraz eskuz idatzirik (baina eskuz segurki ez  
idatzirik), beste hau irakurri nuen: «dear daddy».

Gauzen bitxia: etxe-bizitzarik ez, ezta batere.  
Lantegiak bai: ehunka, milaka; denak itsu, eta  
denak tamaina eta molde berberekoak.

Eta halako «zabalune» soil batetara iritsi nin-  
tzenean (hura «plaza» izendatuz gure plazarik itsu-  
sienak irainduko baintuzke), pankarta ezinago  
zabaletan, eta ehunka irakur zitezkeen bi hitz  
errepikakorren artean, «here» eta «now», hau

irakurri nuen lerroka: «4367th. factory / / 964.371 workers / / prod.: 17.359.000 tons per year».

Eta plazaire haren erdi-erdian, halako zulo laukun bat ikusi nuen; eta, lau izkinetan, behe-reko azpi-plaza edo enparantzaxora jesten ziren lau eskailera nagusiak. Eta lau eskaileren pe hartan, zortzi ate handi erreparatu nituen; eta zortzien atalburuan ere hitz berbera irakurri nuen: «Lift».

Igogailuetako batetan, habaila beldurgarrian behera, maila «nagusi»-edo zerera jeitsi nintzen. Eta, hura harridura!, hiri oso bat topatu nuen han. Kale zabalak zeuden, dena zen dotorea hango epel epelean, zokoak berak fluor-argiz apain argiturik; eta semaforo hirukoloreak erruz, zuri-zuriak.

Jeitsita behereko atetik irtetea haxe irakurri nuen: «Danger!! Lift-speed: 725 miles/hour. You are at... —1.200 feet-level. Residence here: n. 8.654-ter».

Gauza batek larritzen ninduen epeltasun kutsugabe hartan: leihorik ez! Dena hetsia; eta, itxuraz beti, ezin inola sar eta ezin inondik irten. Giroa, artean, isil, bustikara,aseptikoa... Aseptikoa batez ere! «Apprendre à crever proprement»... Aseptikoa, hitz batez, eritegietan-eta egon ohi denaren antzekoa.

Eta, gora nahian, igogailua deitu nuen; eta barrura sartu.

Baina barrura-ta, hamaika saialdi alfer egin ondoren, ezin tramankulu urringabe eta koloregabe hura abia. Hura lana! Ezin gora itzul, eta

ezin atea zabaltzeko modurik asma. Eta ez deusik ere. Bertan preso eta mogi-ezin hartan, atzera egin zuten ene muinek, nunbait. Eta lau pareta haien artean harrapatu ninduen larridura, eta haizeaz bestalde hartarakoan harrapatu ninduen, gauza bera edo bertsua.

Eta ikaratu egin nintzen, eta garrasika hasi:—Otoi! Nola irten katabu honetatik?

Eta «tatic-tatic-tatic» entzun nuen, hiru aldiz errepikan.

Eta ukabilka eroan hasi nintzen, neure indar guztiez: xafla grisezko paretan kontra, eta beirazko atearan kontra. Eta zarata gero eta handiago bilakatu zen. Baina Kanpai-hotsik ez nuen entzun.

Eta, nola ez dakidala, neure bularraren kontra ere hasi nintzen heriosuhar, neure buruan burrundara sakona sortuz...

Eta adar sendo bat hartu nahi izan nuen neure besoaz, eta erauzi, eta arrastaka eraman. Baina zuhaitzik ez eskuarrear!

Eta, asepsi oso hartan, lur bustirik ez ene oinetan, urik ez ene inguruan:

—Urtats! Urtats!! Urtats!!! Atera nazan karroin-zulo nazkagarri honetatik!!!

Eta «tatic» silaba bikoitza entzun nuen hiru aldiz errepikan. Eta, ni isildu ordukoxe, neure belarrietako burrundaran ezin berezita, anitz makinatzen astunen orroa entzuten nuen gailen, beti berdina berdina, gorarik eta beherarik gabea...

Eta min hartu arte jo nuen ukabilaz igogailu oreingabea; baina ezer ez zen higitu ez aldatu.



Eta kristalea bederen pitzaturik uzteko esperantzak hantxe itzaldu zitzaizkidan.

Eta etsi egin nuen. Osotara etsi...

Eta izai baten adaburuan, erloju bat agertu zitzaidan. Eta ezagun gertatu zitzaidan.

Eta eguneko hogeita-bostak markatzen zituela ikusi nuen... Eta eulitzarrak, berde eta lodi eta diztirante, bazetozela trumilka niganuntz...

Eta, izialdura kezagarrian, oihu egin nuen:

«ez ormari atzez  
goiz eder argian!»...

Eta, segidan, «argian-argian-argian» entzun nuen...

... Eta igogailua zakarkiro gelditzean iratzartu nintzen, eta minutu pare batez lazturik eta asaldaturik gelditu; fjordoetako «pulpit-rock» sonatutik behera amildu baninduten bezalatsu. Eta kanpoaldeko pufarak eta kutsadurak ito egiten ninduten.

Eta, aurpegiak estalirik, eta soineko zuritan, neure ondoan topatu nituen bi gizaseme. Osagi-leak, segurki; baina erabat ezezagunak niretzat. Eta inglesezt hitz egiten zuten ene aurrean; eta hauxe ulertu nien bakarrik:

—Out, yes! Out!

Eta bi gizaseme handi hurbildu ziren nigana, eta gora, kalearteko zabalgunera atera ninduten.

Eta mila «here» eta mila «now»-ren artean, eta beste espanturik gabe, bertan utzi ninduten.

## I

Eta kaleetan barrena kantari zihoazen oste gaitzen zalaparta entzun nuen eguntsetian.

Eta miliun bat manifestari ikusi nuen, hamai-ka multzotan hamaika mila banderaren atzetik joaki:

«loria hiri!  
loria hire bihotzari!  
loria hire adimenari!  
Iraurtzaren garazi paregabea  
eman diguan horri,  
loria eta hospea  
mende guztien mendeetan!...»

Eta, hiriko azken lantegi-ilaratik at irten ala, basamortuaren ertzean bertan jaso berria zirudien estadiotzar eskergan sartuz joan ziren. Eta mila lagunetako mila multzotan baratu ziren zutik, hiru aldetako egitura simetriko bat osatuz; eta beti ere lelo bera kantari:

«loria hiri!  
loria hire bihotzari!...»

Pundu berean josten zuten denek beren begirada: estadioaren laugarren aldearen erdi-erdian, lehendakaritza gisa, eraikia zen zementozko dorre gorenaren muturrean. Honetan ageri zen talaiak, halako aldare kutsua-edo bazuen; eta tribuna edo kurpitudzat har zitekeen. Eta beronen gainean, eta mahai edo delakoaren zabaleran xuxen, zutik, hogeit bat metro errara eta hogeit-ta-hamar bat zut zituen sinets-ezinezko fototzar handi bat ikus zitekeen. Eta aldaregain honen atzekaldetik, eusle gotor, eta zementozko dorreari berari atxekirik, sekulako aldazio oihana erreparatu nuen. Horren sendoki finkatua zen irudia, Harena zen; hirian barrena milaka aldiz errepikaturik, eta milaka kantoinetan agiri, ikusia nuen berbera. Bularrean berrogei domina nabarmen, begitartean irribarrea, eta besoak aurrekaldean gurutzaturik, hantxe zen Bera, bertako Buruzagi maitatua; irudian eguzkiaren dirdaitsuak ederturik.

Talaia edo mahai-aire gaitzaren azpitik, eta lau aldeak estaliz, manifestariak besoetan eta bularretan zeramatzen banderen lehen erredutzat har zitekeen jatorrizko bandera ikus zitekeen. Mahaiaren hiru aurrekaldeetan hiru aldiz errepikaturik, horia zuen hondo zabala; eta, hori orokor hori zazpi aldiz eta beheretik erdiraini zatituz eta etenez, beste horrenbeste tximeneren irudi zantar gisa, zazpi zerrenda gorri ageri ziren. Adri luaren gorri hozkariak hondar idorra janez, giza-indarra basamortuari nagusitzen ari.

## II

Eta estadio guztitik, etengabe, nekagaitz, sor-  
garri, populu fidelen oihua hedatzen zen behin  
eta berriz:

«loria hiri!  
loria hire bihotzari!  
... mende guztien mendeetan!»

Eta horrelaxe hiru ordu pasata gero, bandera  
hirukunak jazten zuen kurpitutzar goren hartan,  
foto demas hura doi-doia tatxatuz, xingurri xu-  
mea irudi, Buruzagi maitatua agertu zen. Eta  
agertu ez ahal zen, belauniko jarri ziren oste  
guztiak batera; eta milana manifestari zuten mila  
multzoek eskuetan zeramatzaten bandera hori-  
gorriez hondar lehorra ikutu zuten. Eta Mende-  
baldeko mazelan behera, bere indar guztiez eta  
nabaila ikaragarrian...

Eta miliun bat ahotsez batera emanik, hau  
entzun nuen bazterren gorgarri:

«loria hiri!...  
loria sekula sekulotan!»...

Eta hondar-landa gaitzean barrena mila bor-  
gorailuz hanpaturik eta entzun-erazirik, bere hi-  
tzaldia hasi zuen Buruzagi maitatuak:

—Ene semetxu laztanok!... Hogeitau urte bete  
dira gaur...

Baina osteak, gorrak berak aisa entzule erne  
bihurtzeko moduan, oihuka lehertu ziren ozenki  
estadioko eskualde guztietan:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!

Eta berriro hasi zen Buruzagi maitatua:

—... eta hogeitau urte honetan guk...

Eta berriro ere oste gaitzek, beren pozkariora ezin edukiz, eskuzarta azkengabetan barrena abiatu ziren, lelo berbera errepikatuz:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!...

Eta Buruzagi maitatuak, beti ingelesez erdi-purdi mintzo, ekin egin zion bere hitzaldi apartari:

—Emendatu egin dugu oloaren produzioa: aurten, hamalau mila eta zortzirehun miliun tonelada...

Eta osteek oihuka moztu zuten Buruzagi maitatua:

—Loria hiri beti!

Eta Buruzagi maitatuak ekin:

—Emendatu egin dugu hirakaren produzioa: aurten hogeitau-bost miliun eta seirehun mila tonelada...

Eta osteek berriro moztu:

—Loria hiri beti!

Eta Buruzagi maitatuak ekin:

—Emendatu egin dugu sulfhidrikoaren produzioa: hirugeitau-bost mila miliun tonelada...

Eta osteek erantzun:

—Loria hiri beti!...

### III

... Eta eguzki dirdaitsua zero gora arte ekin zuen Buruzagi maitatuak bere hitzaldia; eta bide beretik ere oste zoriontsuek erantzun. Eta arratsalde erditsuan bukatu egin zuen produzioen ilara; eta sei mila-ta-hirurehun-eta-hamalaugarren puntua irakurri zuen:

—Emendatu egin dugu opioaren produzioa: bostehun eta berrogei mila tonelada.

Eta osteek erantzun:

—Loria hiri beti!

Eta, azkena zelako, populu zoriontsuek zaratsatsuago erakutsi zioten beren goratzarre bihizkorra:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!

Eta orduan, etenune labur bat hartuz, hauxe esan zuen Buruzagi maitatuak lehen baino ozenkiago, eta esaldien artean halako etenune bat uzten zuelarik:

—Tema bakar bat!... Kezka bakar bat!... Helburu bakar bat!... Gehiago eman!...

—Gehiago!!! —erantzun zuten osteek.

—Gehiago produzi!

—Gehiago!!!

—Eta azken hondartzañoa gizatartu arte, tximeneen basoa heda eta heda!

—Gehiago!!!

—Eta galdera bakar bat bakoitzak oherakoan: «Zer egin dut nik gaur produzio-tasa emendatzeko?»

Eta oste hunkituek, Egiaren Egiak azkarturik, basamortuaren ertzeko bazterrak urratu zituzten berriro:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!

Arratsaldea abiatua bazen ere, inoiz baino basago kiskaltzen zuen eguzkiak.

Eta mila lagunetako mila multzoetan, manifestariak kordea galtzen hasi ziren. Eta, lehenengo zorabioak gertatu ordukoxe, ehun furgoneta beltzek kurritu zituzten estadioko ilararte guztiak, eta zerraldo eroritakoak bildu. Eta ehun furgoneta beltz haiek, labezomorro haragizale, estadiotik irten, eta basamortuan barrena hustutzen zuten bere giza-zama. Eta, berriro, ahalik eta laisterrenik, estadiora bihurtzen ziren haragi ahul bila.

Eta buruzagi maitatuak bere hitzaldiaren gailurrera iritsi zen orduan:

—Honela egin dugu Iraurtza. Hots, Iraurtza hau, jabego pribatuaren suntsiera adierazten duen aldetik, naturtasuna da osoki, eta gizatartasun hutsa eta borobila, eta humanismo guztizkoa; eta gizatartasun eta humanismo hutsa den aldetik, eta delako, naturtasuna ere bada...

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!! —moztu zioten osteek.

—Gizadia itsutzen zuten alienazioak oro erauzi ditugu. Gure Iraurtzaren bitartez, gizonak bere burua bildu du berriro, bigarren jaiotza ezagutu; eta adimenaren bidetik, eta ez bestetik, joateak dakarren Zorion trinkoa hementxe eta gaurtxe

lortu. Geroko uste ustelak oro alboratu ditugu. Ilunpeetan gintuen jainkoa hil dugu; eta honen oroitzapena bera ere kondairaren zakartokira bota dugu!

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!

—Gizonaren eta naturaren arteko aurkaritzaren egiazko soluzioa gure Iraurtzan datza!... Gizonaren eta gizartearen arteko aurkaritzaren soluzioa gure Iraurtzan datza!... Izanaren eta izatearen arteko kataska, gure Iraurtzan suntsitzen da... Iraurtza hau izan baita, hain zuzen, gauzakuntzaren eta pertsonakuntzaren arteko aurkaritzaren soluzioa, askatasunaren eta beharrizanen arteko aurkaritzaren soluzioa, gizabanakoa eta giza-etorkia anaikiro elkartu dituen Iraurtza bakarra... Gure Iraurtza hau baita, hitz batez, kondairaren giltzarri izkutua... eta kondairaren giltzarria, izan, bera dena, dakien lehenengoa baita»...

Eta, beren eskuetan milaka banderak eraginez, berriro hasi ziren oihuka estadioko manifestari ertzotuak:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Bedeinkatua izan bedi eraman hauen emakumea!!

Eta Buruzagi maitatuak «Gora Iraurtza!» bota ondoren, bi besoak luzaz altxatu, eta erretiratu egin zen talaiatik.

Populuaren zalaparta inoiz baino gorgarriago bihurtzen zelarik, ehunka eta milaka erortzen ziren manifestariak: bihotz-erasoz, eguzkikadak, unaduraz... Eta furgoneta beltzek, beren lanaren



iraurtzaileak sustaturik, jaso egiten zituzten gogotsu gorputzak eta kordokatuak, eta biltzen, eta basamortura fite-fite eramaten.

Hots, une hartan, makaleko kaja-piloa igo zuten dorregaineko talaia zabalera, eta ireki egin zituzten. Eta, beroien barnetik, zazpi mila belatzar beltz irten ziren, goseti, eta berehalatik basamorturuntz abiatu ziren haragi bila.

Eta zutik, eta bertatik mogitu gabe, ezin azkarkiago ekin zuten osteek, esku-zartaz ere launduz:

—Txin-ko!! Txin-ko!! Txin-ko!!

Eta, talaia hutsik, eta kajatzar hutsez beste lekukorik gabe, ekintza berberean pasa zituzten osteek arratsaldeko azken orduak oro. Fotoa aski zen osten jaiera irazekitzeko; denen «daddy» kuttuna han baitzen berekin, irudian bederen.

Eta Iraurtzarekiko fedean eta segurantzian makalegi zirenak lurrera zerraldo erori ala, furgoneta beltzak bertara, bete, eta basamortura.

Eta. bozgorailuek, himnoak tartekatuz, hauxe zinoten etengabe: «Belatzarrek har bezate beren gain kontra-iraurtzaileen, makalen, belasken eta hordien suntsiera!»...

## IV

Eta Ilunabarra iritsi zenean, akiturik, nekeak gainditurik, baina barne-pozez ere mukurru, hirira itzuli ziren manifestariak; belen bazka gertatu ez zirenak, alegia.

Belatzarrak, berriz, urtean behin bederen bapo eginik, lozorro sakonean zetzaten basamortuko paraje bakartietan.

Hiriko konputakinek karkulaturik, berehala zabaldu zen berria, hotzik hotzenez: 36.324 urde-zerriz gabetua zen hiria.

Eta garbiketaren gaitzaz, lasai egin zuten lo gainerakoek.

## V

Eta, biraramunean, goizeko sirena-hots zorrotzek iratzarri ninduten. Eta, osteek lanari lotu baino lehenago mintzatu nahiz, hiri-erdiko zabalgunee edo plazaire itsusi hartara itzuli nintzen.

Baina karrikarte ezin garbiago hartan, sirenek jo ondoren ere, inor ez zen ageri; eta zabalunearen erdiko enparantza-beherean, bertarako lau eskaileretan eta igogailuen ateetan ere ez. Inor ez inon!

Igogailu azkar haietako bat hartu nuen orduan, eta azpikalde argitsu hartan bederen norbait topatzeko esperantzatan, lurrazpiko kale nagusira joan nintzen. Han ere, ordea kristauik ez!

—Entzun! —esan nuen goraki.

Erantzun-arrastorik ez pareta leihogabe luzeetan.

Kale-kantoinetan, berriz, argi gorritz etengabe emanak eta errepikatuak, eguneroko eguraldi-zerzeladak irakurri nituen:

«Temp, 18° C  
Hygr, % 70  
Press, 760 mm.  
Hour, 5.32»

—Entzun! —nik oihu. —Esna zaitetze!... Iraurtzak pogroma ekarri izan du, pogroma dakar, eta progroma dakarke!... Itsasoak bizi baitu-Iraurtza...

Hondakin arrastorik ez kale bitxi hartako zoruan, eta paretetako zuria, ezelako oreinik gabe,

elurra bezain zuri. Hemen, eta han, eta nun-nahi, hitz bat eta berbera: «Clean», eta «Clean», eta «Clean». Isiltasuna osoa zen; nahiz halako maki-neri-orroa urruna entzun ahal izan.

Eta sirena-hots zorrotzak hedatu ziren bigarren aldiz, gorgarri. Eta nik isilpe betean galde:

—Zeren truke atzoko munstrokeria?...

Beti berdin eta jarraikor entzun zitekeen lurrazpiko burrundara.

—Entzun ezazue, otoi, haizeaz bestaldetik etorri den lekuko berezi hau... Harritzko oroitarriotan izkiriatu duzue, berealdiko «volante térmico» bat baizik ez da Itsasoa... Iraindu, lardaskatu, ukatu egin nahi izan duzue; eta hartatik ahalik eta urrutienaraino ihes egin... Baina Itsasoak bizi zaituzte zuek; eta, basamortuko ertz idor honetan ere, Itsasoa duzue azken funtsean helburu eta sustatzaile...

Lurrazpian barrena, burrundara motel berbera zetorren, ari eta ari.

—Hots, Itsaso-nahia, mozorrorik gabe eta bere biluztasunean, edo mozorroz jantzirik eta antzaldaturik, gure bihotzaz jabetuz gero, iraultza eta askakuntza ez, baina iraurtza eta astakuntza datoz, eta iraurtza eta astakuntza datozke. Zapalkuntzarik gupidagabeenak Itsasoaren izenean egiten baitira...

Kristauik ez lurrazpiko karrikarte hartan; baina kale-kantoinetan, eten gabe, eta argi gorritan, eguraldiari buruzko berriak eman eta eman pankarta hark:

«Temp, 22° C  
Hygr, % 55  
Press, 755 mm.  
Hour, 5.58»

—Atzo, zinez mintzatzera, ez ahal zenuten in-tsentsu usainik sarkorrena asetu arte ere hatsartu?... Hiri aseptiko honetan dagoen gauzarik nazkagarriena zer den esango dizuet nik oraintxe: argizagi eta olio sakratuzko urrinaren itogarria!!... Nola ez zarete itotzen?

Baina ene garrasiek ez zuten ezer lortzen.

—Erreinua ekarri nahi zenuten, eta Lhasa-berria eraiki duzue; Egia bilatzen zenuten, eta Potala atxeman... Fededunak zarete, zinez fededun apartak... Itsasoaren gurtzaileek hil-ondorako bederen uzten baitute beren ametsen obraketa; zuek, berriz, halako batez bela-bazka bihurtzeaz beste etorkizunik ez ezaguturik ere, fededun gotor baitzaudete... Zuek zarete, egiaz dinotsuet, kondairan inoiz sortu diren sineskorrik sineskorrenak!!... Kresalez oratutako Itsas-herri zaharra hemen gainditua izan dela, eta zuen ifernu aseptiko hau «bestelakoa» dela sinesteko, fededun gartsua izan behar da benetan: Saulo, eta Ali, eta Asoka batera!... Entzun hau: basamortuan kokatzea ez da aski Itsasoa ahazteko, eta Itsasoaz beste ertzeraino heldu zaretela pentsatzeko... Basamortua ez da, izan, Itsas-hondo lehorra baizik... Eta Itsasertzeko hiria eta basamortu ertzeko hiri hau, haurride bizkiak dira... Nola liteke atzoko 36.324 gizakumeren heriotza lazkarriak, zuek mendrenik

ere ez asaldatzea?... Nola liteke, zuek sarraskitza betean gertatuagatik ere, zuen teori-oreka eta zuen barneko zimentarriak ezertan ere ez kolokatzea? Zer kastatako ume zarete?... Ezen txinpantze-multzoetan ere, indar soilaren araberako hierarkia hertsia eta zanpaketa zehatza baitago!...

Baina bere hartan ekiten zuen lurrazpiko burrundara berdinak; eta bere hartan ere kale-kantoinetako meteo mutua:

«Temp, 27° C  
Hygr, % 27  
Press, 746 mm  
Hour, 6.42»

Eta berotzen eta nardatzen hasi nintzen:

—Ez duzue zuek, ordea, lehenagokoez izan zuten aitzekia hura. Hasperriak ziren haiek, hasleak, hobe; zuek, berriz, jarraikitzaile zarete, errepi-katzaile itsu; eta behin eta berriz entseatua eta zapuztua izan den antzerki-saio berbera berriztatzeko duzue... Zapaldutako gizajoak ez etsitzekotan isiltzen omen zarete, eta horretara jokatzeko; baina suzko mihi eta elefante zuriekiko fedea ezer gutxi konpon dezakete honetaraz gero...

Azkeneko hitz hauek esan ez ahal nituen, lurrazpiko karrikarte bakartian zazpi argi more piztu ziren; eta ene aurrean minutu erdi batez ñir-ñirka pizturik egon ondoren, berriro itzaldu ziren.

—Entzun! —esan nuen orduan gorakiago.  
—Entzuten ahal nau inork barrukalde horreta-

tik?... Kutsaketa eta hondabide guztien iragarleak zarete!!...

Makineri-orroa berberaz besterik ezer ez asepsi-zulo zuri hartan.

Eta burua galduz ekin nuen:

—... agintera heldu arte baliatzen dituzue populuen amets urdinak baina gero segidan hobe eta hotz hotzean beren bakardade azkengabera bidaltzen dituzue... beste hirietako etsialdian iturrietara jotzen du populuak hemen berriz zuek nagusitu zaretenez geroztik dena ihartu da errotik eta inork ez du jadanik iturburura jotzen... Zertarako joko iturrietara?... Zerok zarete alienatu guztien artean alienatu nagusi... baina zuen erraietatik beretatik hasiak dira hozitzen laku isilak eta lakuetako ahateak eta beltxargak eta hauek kalituko zaituztete aurki eta zuen leinua eta zuen leinuaren oroitzapena bera ezabatuko dira... eta gauza bat baizik ez da zuetaz gordeko... basamortuko gau izartsuetan giza-garrasi eta bele-karrasken ilara azkengabearen oihartzun andana suntsigaitza!!!... Itsasoak...

## VI

Eta, tupustean, ziztu ikaragarrian zetozen hiru furgoneta beltz gelditu ziren ene parean. Eta, ni konturatu orduko, bata zuriz eta txano zuriz jantzitako hogeit bat gizasemek besoetatik eta hanketatik heldu ninduten azkarki, eta aidean altxa, eta, hitzik batere esan gabe, furgoneta beltzetako batetan sartu ninduten; eta karrikartetik eraman.

Minutu batzu geroago, zabaldu egin zen furgonetaren atzeko ate bikuna, eta sargori pufara lehorra nabaitu nuen eztarrian.

Neure inguru guzti-guztian basamortu zabala nekusan.. Eta, Mendebalderuntz abiaturik. furgoneta beltzen hirukote bitxia nigandik ihesi.

Eta ehun, eta mila, eta hamar mila belatzar beltz eta lodi ikusi nituen neure inguruan, hondar horiaren gainaldea beltzez nabartzeko kopuruan. Eta ikaratu egin nintzen. Beleen sabel borobilak, ordea, bezperako betekadaz ezin diztiranteago jarriarik, eta ia etenean tirakaturik, ez ninduen batek ere erreparatu. Lo zetzaten!... Eta ustel kiratsak ito egiten zuen.

Eta ikararen ikarak eraginik, eta beroa zinez kiskalgarri izanagatik, atxintxiketari abiatu nintzen handik.

Eta ihes egin nuen, ihes eta ihesago; eta urrun, oso urruneraino, basamortuaz bestalderaino heldu nintzen.



## VII

Eta, «lakura hadi» entzun zen ene barruan.

Eta zelai behereko tentaldi berean eroria nintzela ulertu nuen; eta berriro ere Itsaso-nahiak ez bestek piztutzen duen esperantza eroak bulztatua ninduela munduko bi muturretan predikatzerara.

Ideiak baliatuz nahi nituzkeen neure bidaide erratuak bildu, argitu eta erakarri.

Hots, batera-nahi hori bera ere Itsasoak zuen nigan irazeki.

Eta neure ezkerreko besoan, odola ere eralgiz, hitz hauek izkiriatu nituen xixel zorrotz batez: «Itsaso bakarra ez, baina anitz laku».

Eta ni abiatutako bidetik, bestalde, ezertara nekez irits nintekeela ulertu nuen. Zeren ez baitute ideiek inor erakartzen. Zeren, ene anaia bizkiak xuxenki esan zuenez, ez baitira ideiak, beren soilean, «burumuinaren gorotza baizik».

Iragarle izan nahi nukeen. Baina iragarlea Itsasoaz mintzo da, eta ez lakuez eta aintzirez. Itsasoaz mintzo ez dena ez da iragarlea, eta ez ditu «mendiak lekuz aldarazten».

Iragarlea, berriz, egiazko profeta, ez da teorema bidez mintzo, alegi bitartez baizik; eta ez ditu alegia horiek kondatzen, bizitzen eta hezurmamitzten baizik. Iragarlea gugan sekula hilez den haurrari mintzo zaio.

Bihozkadaz mintzo da profeta, bihotzetik bihotzera.

Baina profeta, denez gain, urdeen eskuetan hartzen duen heriotza doilorraz hiltzen delako, eta hiltzen den unetik beretik, mintzo da goraki.

Osteek egarri sakon bakar bat dute: Itsasoa.

Hots, haizeaz bestaldetik itzulia naizen hau «mistikoa da, ez baitu ezertan sinesten». Baina...

Hain zuzen, Itsasoz ahanzi beharraz mintzatzera etorri natzaie ni oste egarriei.

Eta osteek ez naute erreparatu ere egin.

Itsasoz mintzo ez dena mutu eta elkor gertatzen baitzaie.

... Eta Itsasoaren azken deiak alde batera utzirik, nihauren lakuaren aldera abiatu nintzen.

... Eta Argitutxe, eta Argibele, eta Iridoi ton-torrek egin zidaten ongi-etorri mutua; eta, mendarteko bideskan zelatari, Berorize ondoko Jaugiberri-eneko dorre ernaiak ere egin zidan oles.

Eta mendi mazela eta erreka gainetan, arbelezko teilatuak ugaldtu ziren ene aurrean, eta baserri isilek irribarrez begiratu ninduten.

Eta zelai behean lehengoan egindako bidaia berbera hasi nuen bigarren aldiz. Baina mugarriz mugarri bakarrik, eta haizeaz bestaldeko jakinduriaz horniturik egin behar den moduan...

## I

Eta Muntto eta Untzaene utzi nituen atzean, han ganean, Aieteko partean; eta ni Txantxerrekatik behera jeitsi.

Eta Caviedes eta Errege-Jauregiaren arteko bideska ilun bustia hartu nuen.

Eta ez dakit poesiak ala beldurrak ikutu ote ninduen goiz hartan; baina metafisika, amets iruditu zitzaidan, eta ametsa. egia nabarmen eta sukartsu. Eta beste oroitzapen guztiak baina aisa lehenagokoa eta zaharragoa da nigan Txantxerrekarako bideska ilun hertsitik pasa nintzen goiz haren oroitzapen harrigarria; neure denboren haseran bertan pasea bainintzen.

Banindoa beraz Iparralderuntz bideska ilunean barrena, Txantxerrekako mazela leunak atzean utzirik.

Hiru metro gora zituen eskuin aldeko paretan, goroldio apala ageri zen nagusi. Ezkerrekoan, berriz, teila gorri histu eta zaharkituek gaintzen zuten, eta ez beti, Jauregiarekiko berez-hesia; eta halako teilatu kutsuko erpin luze bat osatzen.

Ezkerraldeko harresi honen gainetik, lizundurik, tarteka arraildurik eta zaharrakaturik, teilatu aldatsetan han-hemenka teilazko estalkia biluzturik, betidanik misteriotsu jotzen nuen Miramar-Jauregi gorria aurkitu nuen.

Bideskaren ganean, berriz, benetako estalpe gisa, zerua erabat izkutatu, erramu baso trinko bat zegoen; eta, harri mokorrezko zoruan saka-

banaturik, txit zimeldurik eta horiturik, blai ere eginik, hosto luze arraultzaire asko eta asko ikusi nuen.

Enbor zahar pare bat ere topatu nuen bidearen bihurgune batetan; eta bide hertsia, bide bustia, bide labaina, luze inoiz baino luzeago atxeman nuen.

Eta, halako batez, ni ordurako berantetsirik, amaitu egin zen zuhaitzezko tunela; eta aurrekaldetik, Kontxako kolkoa agertu zitzaidan, urdin, bidearen irtenguan zoragarri. Eta Urgull maitatua eta Santaklara uhartea ikusi nituen.

Eta, ezkerraldetik, Jauregiaren murru gorrien ilararen atzetik, adriluzko laberinto xarmagarria inguratuz, Txubillo tontorra ikusi nuen; eta funikularea, memento hartantxe gora ari, eta dorrea gailen... Eta Loreto-peko puntta ene aurrean ageri; lehen bezalakoxea...

Eta liluraturik gelditu nintzen.

Argiturik... berriz ere... bidaia!

Eta atzera begiratu nuen. Eta zauskada latz batek inarrosi ninduen bortizki.

Eta Errege-Jauregiaren etxe, eta etxetxo, eta ukuilu, eta batimendu gorri desberdinak oro zuhaizpearen trinkoan eta beltzean ene aurrean bertan ezabatzen zirelarik, Txantxerreka-ko bi-deska izkutua begiratu nuen azkeneko aldiz: beltz, mehar, beldurgarri.

Eta betirako debekaturik zegokidala konprenitu nuen.

## II

... Eta Txillardegi-ren ondoko etxe zaharrean nengoelarik, zurezko irrati kankailuan, erdian eta argi kaskarretan argiturik beira borobil bat erakusten zuen hartan. eta aurrekaldean, zutabe gisa, hiru makilaire beltz zituen etxeko aparato marroin hartantxe, «Ramona» baltz ospatua entzun nuen:

—Beti gauza bera! Horiek kaparrak! —esan zuen gure aitak.

Eta oraino ere, etendurarik gabeko bazkalondo luzakorretan entzuten dudala iruditzen zait.

Eta «J'attendrai» jo zuten gero; eta lehen haurtzaro hartan ongi neurtzen ez nekien hitz bitxi haiek iritsi ziren ene belarrietara: «j'attendrai ton retour»...

Eta geroxeago, egunero bezala omen, eta sanba erritmo berrian, beste hau zabaldu zen gorakinaren sarea laranja zuen irrati hartatik:

«Meu Brazil,  
Brazil brasileiro!  
a brea cortina do pasado,  
Brazil»...

Badantzut oraindik ere.

... Eta, bapatean, itzaldu egin zuen gure aitak irratitzar kankailu hura; eta, ohi ez zuen agintekera hartuz, hau esan zigun: «Egun aparta da gaurkoa: lehengusuaren etorrera ospatu behar

dugu gaur, bart iritsi baitzen Belgikatik. Oraindik ez duzue hau ulertzen. Geroago bai. Lau urte egin ditu kanpoan. Eta denok Igeldo-ra joango gara».

Eta Ondarreta-ko lorategietara jeitsi ginen etxekook eta etxeko ez zirenak, eskaileretan jauzika, eta pozaren pozez; eta Maria-Kristina erreginaren imajina lizundua zegoen plazatxo borobilerara heldu ginen.

Eta oraindik ere etortzekoak ziren osaben eta lehengusuen eta lehengusinen zai egon behar hartan, hamaika aldiz edan genuen iturriko xirripa etengabetik.

Ondarreta-ko erdi-erdian, itsasora begira, eta bere bi saihetsetan uztai txirrista bana, eskailera dotore zabal bat zegoen. Mailetako ainguru edo zokondo luzeetan, harriaren urdinari hondarraren horia nagusitzen zitzaion neguko ekaitzaldietan; eta egun hartan ere bai.

Eta, egun hartan hondarrak dexente estalirik, eta hondarreraino paseabidetik iritsi nahian, hamaika aldiz egin genuen jauzi eskailreraren gainetik:

—Gaur erraza duk!

Eta beste hamaikatan ere, ointzoletan berebiziko kilimakurrak sendituz, harri urdin eta leunezko bi uztaietan behera jeitsi ginen behin eta berriz.

Azkenean denok, hamar, hamabost, hogeitatu neska mutilok, senitarteko guztiok, nik uste, Donostiako mutur guztietatik Maria-Kristinako pla-

zatxora bildu zireneko, Igeldo-ko funikularearen aldera abiatu ginen, oinez.

Eta gartzela horia, gartzela zaharra eta beldur-garria eskuin aldera utzi behar izan genuen nahi-ta-ez; gerraz geroztik debekatua baitzen paraje haietatik eta hondartzaren gaineko pasabidetik ibiltzea. Tranbia zuriak, bai: tranbiak, noski, handik joaten ziren.

Eta, abiatu berri ginelarik, eta eguraldiaren ederra paregabea zelarik, gartzelako lau murrukantoinetako garitetan entzun genuen:

—Centinela alerta!...

Eta erantzuna segidan:

—Alerta está!...

Eta horrelaxe lau aldiz. Eta ondoko oihartzu-nak ez bide ziren nahi bezain azkar itzaltzen:

—Segi, segi! —esan zuen gure aitak.

Eta murrutzar horia «Barraka» baserriaren aldetik inguratuz; eta geroxeago Tennis-a eskuin-aldean eta Satrustegi-eneko malkorra ezker-aldean utzita, Txubillo azpiko plazatxo borobilerara heldu ginen.

Palmondo lirain bat zegoen erdian.

Eta gure aurrean, halako misterio kutsuz bete-a, funikularea zegoen.

Zalapartaka, algaraz, sartu ginen egoitz-are-tora. Eta eskailerazko geltokira berera joan aitzin, bertan zegoen kariloi txikia erabili genuen txakur-randika; eta liluraturik entzun genuen hartatik irteten zen musikaño fina. Jiratzen zuen metalez-

ko martimuiilo hark bazuen, bere gainalde boro-  
bilean barrena, halako burdin-ile motx hozitu be-  
rria; eta martimuiiloa jiratzean puntta haiek,  
horren luzeran zegoen orrazia ikutzen zuten, eta  
soinu leun-leuna sortzen. Gure lilura!

Gora-deia entzun zen horretan: tinbrekada luze  
bat.

—Goazen! Azkar!

Eta gostata, kariloitxoa gabe berantetsia izango  
zen deia, goiztar iruditu zitzaigun. Eta eskaileraz-  
ko geltokira sartu ginen, eta abiatzera zihoan  
bagoi bitxira; eta funikulareko hiru edo lau aulki  
hartu genituen geuretzat, eta bete.

Harrigarriro ozentzen zituen funikulare-aterpe  
hark gure haur ahotsak; eta harrigarriro ere isil  
erazi gintuen behingoan bigarren aldiz jo zuten  
abia-tinbrekada zorrotzak. Eta eskaileran behera  
jeisten zelarik, ate lerrakorrak zerratu zituen za-  
karki eta bana-bana bertako zaindariak. Txapela  
beltza, aurpegia gorriegi, atearen gaineko hutsar-  
tera agertu zitzaigunean, errespetuz begiratu ge-  
nuen denok.

Eta, burdinazko kable lodi koipetsuak tiratu-  
rik, eta hein batez bederen gu guztiok itxuraz  
osegaturik eta isildurik, goruntz abiatu ginen.  
Kontxa-kolkora begiratzen zuten batzuk; nik fu-  
nikularearen bideari, eta gora ala aldapa hura  
gogortu eta erpindu egiten zela erreparatu nuen.  
Eta hizka erabili ziren izen batzu: Bartali, eta  
Sylvère Maës, eta Lapébie...

—Aurten, dena dela —esan zuen osabak—  
«Tour de France»-rik ez zegok. Gerra dela-ta.



Eta isildu egin ginen lipar batez: hori pena!

—Bestela Bartalik irabaziko zukeen berriro!

Eta burundara sakonean Txubillo tontorrera iristean, ohiturari jarraituz, alboko leiho handitik begiratu genituen, txunditurik, funikulareko tresneria eta alimaleko gurpiltzar hura. Eta gero, eskailera batzu igota, eskuin aldeko aterpean barrena abiatu ginen, korrika bizian. Eta, aita eta osabak atzean utzita, «Río Misterioso» delakora heldu ginen arkupe luzetik, eta berriro ere laisterketa amorratuan.

Funikularearen makina-orroa durundatsua, artean, itzaldu bezala egiten zen han, suntsitu edo; eta urtsuago zirudien beste zarata bat nagusitzen zitzaion.

Astunkiro eragiten zuen gure aurreko errota-tzar berdeak txalupa-bideko ur erreka.

—Tori txartelak! Nork berea har dezala!

Ubidearen abiaburuan bazegoen zurezko martimulo jirari ilara bat: uretatik jalgi, eta goruntz abiatzen zen. Eta martimulo sail hartantxe gora, polliki-polliki, txalupak etortzen ziren. Guri zegokiguna gakodun haga batez arkupetik zaindaria atxikitzen zuelarik, sartu egin ginen barrura hiru lehengusu eta ni laurok. Eta beherunzko bigarren martimulo saila azkartxo jeitsi ondoren, ubide hestuan barrena abiatu ginen. Hura poza! Beldur apurra ere bai, egia esateko.

—Kontuz eskuekin! —entzun genuen. —Eskuak barruko aldetik beti!

Eta arkupe ilunaren ertzetik joan ginen; eta uraren gaineko abiadura motel hura, hamaika atsegin bitxiren iturburu iruditu zitzaidan. Eta ubide-gaineko zubitxo apalen azpitik pasatzera-koan, eta harrizko zubi-makoa ez jotzekotan gure buruak makurtu behar zirela-ta, berebiziko hotzika izkutuen gertaleku bihurtzen zitzaigun «Río Misterioso» hura.

Jende anitz Igeldon arratsalde aratz hartan; eta jende anitz ere ubidearen ertzetik guri begira. Eta gu harro harro.

Eta azkeneko tunelean beldurgarria omen zen kokodrilo berde argitsuak harritu gintuen poxi bat; haren aho-barneko gorriak bereziki. Baina ez sobera.

Nolako zozokeria kokodriloarena! —esan genuen tuneletik irteteen mutiko guztiok.

Eta, azkeneko bihurgunea bukatzean, eta abia-buruko errotatzar berdearen ondora iritsi orduko (azkarregi iritsi, ondikotz!), ibilera leunaren eten-dura hautsiz eta zakartuz, martimuilo sailean gora abiatuak ginela somatu genuen laurok; eta, hitz batez. jiraketa hura bukatua zela.

Eta, ahobatezko eskabide berbera denok egin-da, beste hiru eta lau aldiz egin genuen «erreka izkutu» delakoaren inguraketa; baina beti, hori bai, bai txalupa, bai txalupa-kideak aldatuz. Eserlekuak ere bai: ezkerrekoan, agian, eskuinekoan baino handiagoa izan baitzitekeen ikara izkutua. Dena dastatu behar! Den-dena, bana bana...

... Eta aterpe ilunetik erdialdeko eskaileran

gora ageriko terrazara irtenda, Hegoaldera joan ginen, korrika beti. Eta dorrerako mailadiaren lehen partea bakarrik igota, eskuinetara, eta... karrusela! Tunelaren ondoko geltokitik, «Montaña Suiza» irakur zitekeen letra berri eta diztiantetan.

... Eta, batimenduaren azpiko tunel ilunaz bestaldetik, garrasiz eta zalapartaz mukurru, orduantxe zetorren karrusela. Kolore nabarmenetan imajinaturik eta margoturik, egurrezko bi herentzuz ageri ziren treintxoaren branka bikunean: aintzindari gisa, eskuinaldean bata eta ezker aldean bestea.

Eta geltokian zai zegoen bigarren karrusela, abiatu egin zen. Eta etorri berria hustutzen hasi.

—Alajañetan! Hau lana!... Despasio, txikillos! Hau eroaldia! —esaten zuen tramankuluaren erdian exerita zetorren makinariak.

Txapela handia zuen, erdara traketsa; eta erdiko junturan joaten zen, errestari beti helduta, zaindari sendo.

Eta atzeko aulkian, azkenekoan, zauskadarik bortitzena senditzen omen zela-ta, hantxe gertatzen ziren borrokarik latzenak: huraxe nahi denok! Eta, nahikari zehatz hartan tinko, zai eta hustu zai; baita bizpahiru bider karrusela abiatzera utziko bagenu ere... Eta haiek marmarrak, ere berean, hainbeste gostatatako aulki bedainkatua berriro besterik utzi beharrez!

Behin egin genuen jiraldia, eta birritan, eta hirutan. Eta atzeko tunel sakonerakoan, beherako

gogorrekoan, apur bat beldurtzen ginen. Zer zen aldapa zut hura! Baina geltokira iristerakoan, pozten ginen, eta harrotzen.

Hura ere bukatu, eta trumilka berriro, behera.

... Bazegoen eskailera-pe hartan, dena kolore bizi eta zarata eta tinbrekada, halako armairu tankerako zerbait; eta zintzarrots etengabez deitzen zuen bertara. Eta gainaldean zuen hitz bakarra irakurri nuen: «Horóscopo». Zer debu ote zen hura?

Aurrekaldean, margo nabarmen itsusitan, han eta hemen sakabanaturik, gizon eta emakume aurpegi alai batzu ageri ziren. Gure kopeten parean, berriz, guretzat goregi, bost edo sei buzoi-aho diztirante; baita beste hainbeste txanpon zirritu ere.

—Aita! sar ezazu txanpon bat —eskatu genuen.

Baina hitzetik hortzera etorri zen gorroto genuen erantzuna:

—Ez. Ez zenukete ezer konprenituko. Oraindik gazteegiak zarete. Haztean egingo duzue joko hau...

Eta zantarkeria batzu esan ondoren, isildu egin behar.

Baina orduantxe bertan gelditu nahi, eta hura zer ote zen somatu bederen.

Eta armairuaren aurrekaldean zutik, eta buzoi diztirantetatik irteten ziren paper orriskak berdeak, eta moreak, eta gorriskak, eta laranja, behin eta berriz elkarri barrezka irakurtzen ari,

soldadu pare bat ikusi nuen; eta biokin hiru emakume gazte. Eta bostok algara zaratatsuak egiten zituzten.

Eta atsekabe, eta lotsagaldu, eta itsusi, eta nazkagarri iruditu zitzaizkidan bostak. Babide zegoen bosten arteko algara giro hartan itzurtzen zitzaidan itsuskeriaren bat.

Eta neure burua hein batez lotsagarri-edo antzemateko beldurturik, handik bagindoazela ikusita poztu egin nintzen. Eta tinko tinko begiratu nien joaterakoan.

Eta Mendebalderuntz, tximuak zeuden partearen aldera, abiatu ginen.

—Hor ez! —esan zuen osabak. —Lehen goan hanka puskatu zuen hortxe mutil batek!

Eta debekuarekiko nazka senditu nuen: zergatik ez? Karrusel-bidearen kontra, «Las Risas» jostalekua zegoen; eta huraxe debekatzen ziguten. Halako pasadizu edo balkoin ilara bat ageri zen kanpotik, barandila bana hornitua. Eta jendeak ibiltari. Gris-grisa dena; urte haietako gerra-teak bere kolorea kutsatu baitzion. Eta bekaizkeriaz begiratu genituen erorikotik erorikora zihoazenak.

—Goazen askaltzera! —moztu zuen osabak. —Belgikatik heldu berria den lehengusuak gomitatzen zaituzte denok.

Ez genuen hura ulertu. Askoz ere beranduago arte ez nuen nik festa-arratsalde haren kakoa konprenitu. Lau urtez ibilia zen lehengusu hura

Europar gairak: Frantziatik Belgikara, eta ia-ia Errusiara omen. Zer, ordea?...

Eta, berriz laister-minak ikuturik, funikulare-tresneriaren gaineko bazkaldegira joan ginen.

Eseri gara bizpahiru mahainetan; eta deskalabro batzu egin ondoren (tatxak jertseietan, sandwich-puskak lurrean, isuriak mahaizapian, eta abar), txokolate lodi-lodia bukatu genuen. Txokolate «español» hartu genuen, jakina; eta ez «frantsesa», hau mehegia baitzen. Txokolate lodia boladoarekin! Hoberik ez! Hura atsegina, boladoa, iceberg ñimiño gisa, uretan gesaltzen ari...

—Eta orain, gaurkoa bukatzeko, laberintora eta kanoetara. Zer iruditzen zaizue?

Garrasi multzoak ez zuen duda handirik utzi...

... Eta, kanpora orduko, funikularearen orroa sakona entzun nuen; harrigarri, lurrazpiaren beraren eragile, antza.

... Eta teilatu ttutturua zeukan litxartegira iritsi ginen; eta gozoki, eta patata, eta izozki, piruli. makilgoxo, eta barkilloak salgai ikusi.

—Janaria erosi beharko orain horientzat! —esan zuen osabak, bere eskuaz tximuen kaiolak erakusten zizkigula.

... Eta litxarrerria haiek erosten zituzten artean, ez bainintzen ni dendatxora joan, une iheskor batez aurreko iturri borobila erreparatu nuen.

Goiko plater borobiletik; hau da, iturriaren ardatza zen zutabea ni baino goraxeago zegoen ur-ontzi txapal berdetik, sei xirripa etengabe ja-

rio, eta ura goitik behera borobilean isuri. Xirripen tartetean, eta plateraren euskarri gisa, metalzko hiru landare eta hiru mutiko zeuden, kariatideen kide.

Eta beherako urmahel edo uharka borobilaren ertzean, hamar zentimetro barne ere ez zen uretara begira, uso batzu erreparatu nituen: etengabe ibiltari eta jauzkari, batzuetan goian jartzen ziren, eta besteetan behean. Guztiz zuriak ziren gehienak, eta isatsa gora zeramaten harro-harro. Beste banaka batzu, berriz, more larrosak ziren.

Eta oso maitagarri iruditu zitzaizkidan.

Eta laztandu egin nahi izan nituen; eta makurtu ere egin nintzen behin, eta bitan, eta hirutan, eskura bildu nahian. Baina behin eta berriz egin zidaten ihes.

—Emaiek hau esku ahurrean —esan zidan aitak.

Eta ez dakit gaur ere zein ale mota zen. Baina, usterik ezean, uso zurietako bat ausartu zen niganaino; eta ene esku ahurretik beretik jan zuen ale hura. Eta alea mokoka hartzean, berebiziko hazkura ematen zidan; baina ezagutzen ez nuen poz harrigarria ere bai, poz paregabe eta osoa.

Baina, bukatu ez ahal zuen, iturri berdera itzuli zen hegaz!

Eta, konturatu orduko, lehengusuak eta gainerakoak tximuen kaiolen ondoan zeudela erreparatu nuen. Eta, barne ximiko batez, iturritik urrundu nintzen.

Hantxe zegoen, ernegaturik beti bezala, «Bartolo» famatua, mandril itsusi petrala. Hantxe ere «Txita», ezinago itsusi eta zaharra: beti exerita, zorritan ez urri, nik uste. Eta hantxe ere, kaiola-ilaran, gainerako makakoak. Han ginen gu, ikus-tera joanak omen: baina zirikatzero ere bai!

Ez dakit nik nork zer keinu egin omen ziola, eta hortxe sutu zaigu «Bartolo» erretxina. Eta kaiola barreneko hondakinak, eta zuztarrak, eta kakahuet azalak, eta mokordo arrastoak ere bere eskuaz lurrean jiraka bildu; eta bere indar guztiez bota ditu gure kontra. Gorroto iturri oparoa haren bi begi txikiak!

*Barre egiten genuen guk, gogoz; ez da dudarik.* Baina batzutan, «Bartolok» barrak inarosten zituelarik batez ere, halako kezka sortzen zen gudan:

—Puskatuko ote ditu azkenean?

Eta handik laberintora igo ginen gero, denok. hogeioak; eta denok ere, zahar eta gazte, barrura sartu.

Eta pareta barneko hutsarteetan, eta argi ñabar eta bitxitan nabarmendurik, mozorro izugarriak eta kaskezur horiskak ikusi genituen; eta ispiluen areto borobiletik irteera ezin asmatu ibili ginen, makina bat jiribuelta eta algara eginez.

Eta gero, laberintoan aurrerago, «marraskilo»ra pasa ginen, «caracol»era: pasabide hestuko marraskilo luze hartara. Jiraka eta jiraka, bospasei inguraketa oso egin behar, gero eta hertsikia-



go, eta txorabiatu ere arte. Eskuineraka lehenda-bizi, ezkererako gero.

Eta, laberintoaren amaitzat, trabena bitxi hartara sartu ginen; trabena txorabiagarri. Oker zituen zutak eta ateak; eta zorua, eta aulkiak, eta mahaiak. malda gaitzetan denak; eta «Musée Grévin»-enetik etorritako txiribogin musugorria ere hantxe zegoen, zerbitzari leial, baina zeharo oker.

Hura lana! Egundoko mozkor betean bezain desegokiro eta baldarki gurutzatu beharra zen laberintoko trabena hura, ia-ia erorian, eta zernahiri tinko helduta.

Eta, irteterakoan, aluminiozko txirrista diztirantea genuen zai, jeitsi beharra eta jeitsi nahia.

—Hau pena! —entzuten zen inguru hartan.  
—Luzeago izan behar luke.

Eta Alemanian egiazki galdu egiten zen laberinto ikaragarri bat bazegoela esan zigun osabak. Eta egarriak utzi gintuen denok:

—Alemanian bai...

Eta jeitsi egin ginen.

Eta laberintotik kanoetako uharka borobilerara aldatu ginen; eta txartelak saltzen ziren arku horiaren ondoko ilaran jarri osaba eta aita.

Kanoen atzekaldetik, ke urdina irteten zen barra-barra; eta izugarrizko usain txarra hedatzen.

Takillaren ondoan, zutik, oso andere dotorea ikusten genuen. Frantsesa omen zen. Bai dotoretasuna eta bai frantsestasuna soinekoen ñabardu-

retan eta aurpegiaren koloretasunean neurtzen baikenuen orduan. Eta Belgikatik bezperan etorri berria zen ene lehengusuari, andereari frantsesez erantzuteko eskatu genion; baina honek, izuti, egin nahi ez.

Tamalgarría! Zeren-eta ilaran txartelak hartu zain geundelarik, frantsesez mintzatu baitzitzai-gun; eta guk, lehengusua isilik, geure irri algarak nekez disimulatuz, zer esan ez baikenekien.

Azkenean (bai luze!), berantetsirik geundenean, txanda etorri zitzaion gure taldeari. Eta harri horizko arkuaren azpitik pasa ginen nazatxora. Binaka joan behar; eta, kanoa bakoitzean, sekulako gogoá biek gidoin bakarra hartzeko.

Eta abiatu egin ginen; eta hona eta hara ibili, eta batzutan elkarri tope egiteko beldurra izan. Eta lanak ere izan genituen zenbait aldiz, uhar-karen erdiko argi-dorretxo zuria, eta karrusel-bideko zutarri zabal horiak. geure kanoaz jo behar ez ta.

Eta sargunearen aldetik, urmahel gaineko ma-ko zuriko ezkilak jo zuenean (berriro ere azkarre-gi deia!), abiaburuko nazatxora geure kanoa era-man; eta... joan egin behar... Eta keinu bereziz agurtzen bide gintuen erdiko argi-dorretxoaren muturrean ñir-ñir egiten zigun faro gorriak.

Eta oraindik ere garbiki aditzen bide ditut neure barruan bai usaina bai motoreen zarata... Dena azkarregi joana arratsalde hartan: erre-kako txalupa, eta txokolate lodia, eta laberintoa, eta ke urdina zerien kanoak.

—Gero agurtuko dugu Ursula —esan zuen aitak. —Joaterakoan.

Eta ilunabarra bazetorrela, azkeneko itzultitxo bat egitera joan ginen Igeldon barrena.

Litxartegien eta tximu-kaiolen aurreko zabalgunean bazeuden orduan hiru pinu handi.

Eta bazegoen bertan, jostailu harrigarri, burdinazko autobide txiki bat. «Mida usted su fuerza» irakur zitekeen. Kotxetxo gorri astun bat zegoen autobidean, bi arrabete luze, hogeitau bat kilotakoa bai itxuraz. Eginahalean behar zen aldapan gora bultzatu; eta ia aldapaburua gaindituz, beheruntz abiatzen ote zen saiatu. Gurpil osoan buruz behera orduan jiraketa eginez, abiabururaino helduko, eta... egina! Nolako harrokeria!

—Hau ez da zuentzat —entzun genuen amorru bizian.

Baina han gelditu ginen, begira.

Hots, haraxe agertu ziren lehenagoko bi soldaduak eta hiru neskak. Bi mutiletan azkarrenak, bi metro luze bai nik uste, behin eta berriz lortu zuen jiraketa osoa, beretzat hura erraza bailitzan. Eta bekaizkeriaz pentsatu nuen nik, eta gauza bera besteek: «noiz ote ni horrenbesteraino haziko eta indartuko?».

Eta, horretan, algaraka joan ziren bostak, eta gu ere bai segidan; eta bertako andere zaharra, eta haren auto astun gorria, bakar bakarrik gelditu ziren hiru pinuen arteko zabalgunean eta arrastiriko argi leunean.

—Zer iruditzen zaizue orain Ursula-ri agur esatea? —galdetu zuen gure aitak.

Eta kanoen ondoko uharkaren alboan apurka-apurka zahartzen eta suntsitzen zer hartza ikustera joan ginen.

Eta hau irakur zitekeen kaiolaren gainean: «ejemplar capturado por el Ejército victorioso durante la gloriosa campaña del frente de Asturias».

Kaiolari sekulako kiratsa zerion. Eta hartz gizajoa, bertan jiraka eta jiraka, ibilera etengabean nekatzen zen; eta, behin eta berriz, erdian zeukan enbor soilduan muturraz joko zuela zirudien, baina behin ere ez ikutzen.

Kaiolako barrak eta aurrekaldea (parea ez zen alde bakarra, hobe), Matxitxako alderdira begira zeuden; Mendebal aldera, beraz. Eta gu hara agertu ginenean, gorriztaturik agertzen zen kaiola barne zikina.

Atzekaldeko paretan, berriz, burdinazko barra andanaren eta erdiko enbor soilduaren itzalak ageri ziren, urdin more parea gorrian. Hasarretzeko gogo a hituta, tristuraz begiratu zuen hartz eder izanak guganuntz; goruntz kirats zulo hartatik. Eta berirro ere, ehungarren aldiz arratsalde hartan, nagiki, enbor soilera igo zen. Eta guk, goiko burdin-hagen artetik, kakahuetak bota genizkion... Eta gure Ursula aspertuak ez zituen zorutik jaso. Burua balantzan kulunkari han gelditu zen, enborraren muturrean, agian guri begira...

Eta Bartolok, eta Txitak, eta gainerako tximu itsusi narratxek, beren kaiola hestuetan erakusten ez zuten tristura etsia somatu uste izan nuen nik, arrats eder hartan, hartz astunaren mogimendu guztietan. Eta, noiztenka, Matxitxako aldera pentsakor begiratzen zuela iruditu zitzaidan; eta eguzki gorriak itsutu egiten zuela...

—Zenbat urtez bizi ohi dira hartzak?

Gaitzi izan zitzaion galdera aitari:

—Ez zekiat. Bost urtez agian, edo hamarrez... Ez zekiat.

Eta ez nuen nik ezer erantsi.

Eta atzapar beltz beldurgarriak ikusi nizkion Ursula-ri. Baina ikararik ez nuen senditu, baina harekiko urrikoa bai; eta pertsona larriekiko herra handia.

.....

Eta gauza harrigarri bat gertatu zitzaidan orduan.

Urrundu gara kaiolatik, eta Txubillo atzeko malkorraren hegiko eskudelera eraman nau aitak. Eta, biok Muitza kolkora begira geundela, goitik beheraino doan harkaitzezko txirrista labaina erakutsi dit:

—Hara! Orain dela urte asko, ni hi bezalako mutikoa nintzenean, ba omen ziaten Muitza baserrikoek asto zahar zahar bat. Eta urteetan barrena erabat itsutu omen zitzaiean. Eta abere gizajo hura nola akaba ez omen zekiaten. Eta,

halako batez, hona, gure aurre honetantxe ikusten duan labar honetara ekarri ziaten. Begiak zapi batez estali zizkioaten. Eta txirristan behera amil-  
du omen ziaten...

... Eta ihortziri batek harrapatu bide ninduen.

Eta ene lehengusuak eta osabak non ote ziren ez nekien...

... Eta, behera begira, hitzik gabe gelditu ginen aita eta biok, ez dakit zenbat minutuz.

Eta arrastiriko azken argi errainuak gozatu nahirik, antza, surangila izuti bat agertu zen gure aurrean, harri horizko murruan zalu eta bizkor gora eta behera. Eta, berehala, artezi batetan izkutatu zitzaigun.

—Eta hil egin zen astoa?

Harritu egin zen aita ene galderaz. Eta sortua zen lanoa argitu nahirik, arinantzean erantzun:

—Noski! Hartaraz gero, zer nahi duk astoari gertatzea? Itsua zuan astoa gainera, herbaldua, eta zaharra arrunt.

... Eta beste hitzik atzera gabe genuen, Txubillo aldera.

Zabalgunea hustutzen hasia topatu nuen; eta litxartegiaren aurrean lehen baino ume gutxiago. Auto gorria gordea zen, bestalde; eta zaintzen zuen andere zaharra ere joana. Argi gorriska hartan itzaltzen hasia zen arratsaldeko korrika bizia. Ilunabar epel ederra ere, orduantxe hasten bide zen freskatzen. Terrala.

—Goazemak orain karruselera, azkeneko aldiz —esan zidan aitak. —Zer iruditzen zaik? Montaña Rusa-n egingo diagu azkeneko buelta...

Eta nik «azkeneko» hitza baizik ez nuen entzun.

Eta, ia-ia besotik helduta, eskaileran gora eram ninduen, eta karruselera ia bultzada beharrez sartu.

—Hator hona azkar! Hutsa zegok! —entzun nuen.

Eta atzeko aulkian eser-arazi ninduten ene lehengusina batekin.

Eta, abia!

Ezkerraldeko kate-muturra bere zuloan sartu nuen.

—Kontuz, bai, kate hori! —esan zidan osabak. —Hori duk txirristaren aldekoa!

Eta gora eta behera abiatu ginen. Garrasi bizian besteak, iskanbila gorrian besteak. Baina ni neu, isilik joan nintzen.

Hautsia zen zerbait nigan.

Eta zubien azpitik, eta kanoetako uharkaren gainetik pasatzerakoan, oihu zorrotzak bota zituzten denek. Baina nik Ursula-ren kaiolara begiratu nuen. Eta karrusela, laberintoa eskuinaldean utziz, bere azkeneko aldapan gora abiatu zenean, ezkerraldera begiratu nuen nik; eta, ezer esan gabe, kate-muturra berriz begiratu.

Eta, labain labaina, Muitza kolkoko harroketaraino etendurarik gabea, Txubillo atzeko txi-

rrista ilun beldurgarria begiratu nuen. Eta sekula ikusiko ez nuen asto itsuaz oroitu nintzen.

Eta ikara eta asaldu ezezagun batek harrapatu ninduen.

Eta tunelerakoan ere, ene lehengusu guztiek garrasirik ozenenak botatzen zituzten mementoan, asto gizajoaz besterik ez nuen nik buruan...

Eta gero ere, arrats gorri hartan, eta funikularea hartzerakoan, eta lotarakoan... eta biharamunean, eta ondoko egunetan eta ondoko asteetan... eta ondoko hilabeteetan eta ondoko urteetan, eta beti ere, sekula kukutu ez den arraildura bat nabaitu dut.

Eta beti geroztik, Txubillo-ra igo izan naizetan, eta Itsas aldeko labar hartan paratu, txirrista beltza begiratu izan dut lazturik, eta Muitza-ko asto itsuaz oroitu.

Gertakari xume haren kondaira, ene barneko mugarri nagusi bihurtu bailitzan.

Ezen egun hartan asto itsuaren gertakari hitsa gure aitagandik entzun arte, ez bainuen nik erreparatu ere egin Txubillo-tik Itsasoa ikus zitekeenik... Itsasoa.



### III

... Eta handik hara ez nituen oso luzaz Muitza kolkoa eta Txubillo atzeko txirrista more beltza ikusi.

Baina han egon ziren biak, elkarri begira tinko.

Eta behereko harrokadian bere kresalaz eta bere bitsaz mihizkatu zituen etengabe bat eta beste Itsaso nekaezinak; eta etengabe txirrista morea azpitik higatu eta arraildu. Bere fundiera lanetan gau eta egun Itsasoak diharduelarik, pre-satu beharra zer den ez baitaki.

Eta ene bihotza ere, ezari-ezarian, higatuz eta unatuz joan zen ehun aste hartan, isilean, eta ditziragabetasunean; eta berrehun aste ere joan ziren horrela; eta bostehun, eta are zazpirehun aste ere bai joan ziren.

Baina ahaztu, orain dakit inoiz baino segur-kiago: zazpirehun aste geza hartan zehar, ez nuen nik Muitzako txirrista more beltza inoiz ere ahaztu.

## IV

... Hots, zazpirehun eta zazpi aste pasa zirenean, eta hi espero ez hindudalarik, nigan sartu hintzen bapatean eta osotara.

Eta hik heuk ene ni espero ez nindunalarik, higan sartu nindunan ni.

Eta elkarrengan gertatu gintunan biok, brauki erroturik; eta bere suntsieraz beste irtenbiderik ez duen lilura bereziak bultzaturik, Getharia-ra joan gintunan.

Oroitzen haiza?...

Eta Koskeneako hondartzara jeitsi gintunan. Eta —oroitzen haiza?— hire begirada topatu nigan nik neurean, eta hik enea heurean. Eta besterik deus ez.

Eta —oroitzen haiza?— hire ezpain gaziak dastatu nizkinan nik neureetan, behin eta berriz, eta hik eneak heuretan.

Eta, bestela dena gugan lehertuko zelakoan, hire ahoaren mogimendurik xumeenak neurean senditzen nituela, «maite zaitut» erran hidan zazpi aldiz eta zazpi hizkuntzatan; eta beste zazpitan gauza bera nik hiri erantzun.

Eta kantuz mintza bide nintekeen bapatean.

... udaberriko  
goiz geldi epel hartan,  
—oroitzen haiza?—  
goibel zegonan zerua,  
Itsasoa bare,  
zabal,  
baztergabe...

Eta Itsas hegi  
bakarti  
hartako hondar larrian,  
minbera  
eta hazkura  
senditzen genizkinan  
geure ointzolak.

Goiz geldi epel hartan  
txit urrutitik  
zetozen  
uhin ahantziak  
polliki-polliki  
lehertzen zitunan  
gure aurrean.

Eta uhin apal haiek,  
goiz geldi epel hartan,  
uhin xume haiek,  
uhin ahantzi haiek,  
uhin ezinago ahantzi eta luzakor haiek,  
azkarregi  
joan zitunan.

Baina nigan  
ezin ahantzizko  
uhin,  
ezin ahantzizko  
gailur,  
bilakatu ditun  
betirako.

Aparrak noizpehinka  
—oroitzen haiza?—  
hemen legartza urdinska estaliz,  
han hondartza horiska zurituz,  
busti egiten zizkinan  
ia-ia  
gu bion oinak;

eta kresalak guri bioi,  
kresal gazi biziak,  
goiz geldi epel hartan,  
Itsas hegi bakarti hartan,  
harroka artezietan azkarturik eta hezaturik,  
bere gazi segaila dastarazten zigunan  
geure ezpain minberetan.

...eta euria hasi zunan  
horretan,  
goiz geldi  
epel hartan:  
xehe-xehe,  
ixi-ixila,  
xirimiri etengabea ari;

eta berezi ezinak  
ziruditen  
gure masaila beroen  
arte,  
ezkotu  
egin zunan  
ezari-ezarian...

eta, Itsaso mugagabea lekuko,  
irri aldi oparoan  
barre egiten genuelarik,  
hantxe gelditu gintunan biok,  
bi biok hondartza osoan,  
—oroitzen haiza?—  
geure algara beharrari ezin nagusiturik.

eta, goiz geldi epel hartan,  
haizerik-ez baketsu hartan,  
haizerik-ez liluragarri hartan,  
—haizea erabat gelditua baitzen—  
eta kresalezko egurats sarkorrean,  
deplauki murgildu hintzen  
ene begiradan;

eta,  
Itsasoa,  
erreparatu ere egiten ez genuen  
Itsaso  
bare zabala,  
ene izakide egin huen,  
eta errailetan errege ezarri.

eta handik,  
hondartza harritsu hartatik,  
bi biok,  
Itsasoari  
adiorik erran gabe,  
Itsasoaz  
oroitu ere gabe,

xira hori bakarraren azpian  
baldarki babesturik  
joan gintunan  
Koskenearen aldera;  
eta joanago,  
eta pozago,  
eta algaratsuago...

... Eta ezagutzen ez genuen geure etxetxora  
joan gintunan, pinadi betean. Eta oroitzen haiza?  
«Tubai» zeritzonan.

Teilatuak hegal zabala zinan; eta, zutabetzat,  
enbor lodiak ageri zitunan aurreko paretan, beren  
hartan apaingarri.

Eta, sartutakoan, leihoa zabaldu geninan; eta,  
eskutik etengabe helduta, pinadiari zerion heze-  
tasun freskoa hatsartu geninan biok, loriaturik;  
eta han eta hemengo ituteak entzun.

Eta exeri egin gintunan gero; eta erositako  
karrakelak jan genizkinan, erruz; eta jangaitz  
zegoen haragi puska zail hura ere bai. Eta ardoa  
ere ausarki edan geninan.

Eta gelako armairuan zegoen irrati apala piztu geninan. Oroitzen haiza?

Eta topatu genuen lehenengo musika huraxe baliatuz, eta erotu egin baikinena, dantza egin geninan gogotik, dantza eta dantza; eta, algara etengabea, ezin arinago eta ezin zaluago mogitu gintunan biok gelatxo gogoangarri hartan.

Eta aire haiei, oraindik ere, halako osasun bizia zegokien; arrats geldi epel hartan zetxekion bezala.

Eta ni hire egarri nindunan, eta hi ene egarri. Ezin egarriago biok.

Eta gelako errediza, eta ontzi, eta xehetasun guztiak begiratu genizkinan bana-bana, lerrokada zehatz bat bertan prestatu behar izan bagenu bezalaxe.

Eta hango ezertaz inoiz ez ahazteko zin egin genionan elkarri. Oroitzen haiza?

Horia zunan ohearen tapakia. Eta horiak ere, baina ilunago, atariko bi errezelak.

Gelako pareta nagusiaren erdian, berriz, ispi-lu dotore handi bat zegonan; eta —oroitzen haiza?— hertsiki besarkaturik geundela begiratu geninan geure burua. Eta irribarrez egon gintunan luzaz.

Bazeudenan ere bi siloi, oihal berde leun ilunez jantzirik. Eta ohe bakarraren bi saihetsetan, alfombra berde bana.

Eta dena horrela zehatz-mehatz begiratu, eta gogoan hartu ondoren, elkarrengan josi genizki-

nan begiak; eta hitzik esan gabe egon gintu-  
nan horrela, geure erraietan gertatzen zen mira-  
riaz zurturik.

Arrastiriarekin, berdindu egin zizkinan ilunpe  
hazkorraren epelak gela barneko koloreak.

Eta handik piska batera euria berriro hastean,  
itute eta xirripa zurrumurrus bete zunan pinadia;  
eta begira eta adi jarri gintunan leihoan.

Eta geroago, hau hetsita, gela barrura bihurtu  
ginenean, ez geninan argia piztu.

Eta ene bare egarria  
lipar batez,  
lipar batez bederen,  
ematu huen;  
nahiz betirako  
ene pausa-ezin hilgarria  
iratzartuz.



## V

Eta biharamun arratsean agian, kresal usain harrigarrian oraturik zegoela, bakar bakarrik hurbildu nintzen Getharia-ra.

Itsas-orroa urruna herriaren gainetik beretik entzun zitekeen.

... eta ene bare-egarria  
lipar batez bederen  
ematu huen;  
nahiz pausaezinik urduriena  
betirako nigan piztu,  
eta Itsas-minik minena  
sekulako nigan txertatu...

Postetxetik behera doan kale nagusian, inor ez. Giro isilean, zuhaitzezko bi ilarak mutu. Frontoin paretabakarra, hutsik. Ostatuak ere, hutsik. Dendarik gehien gehienak, hetsirik. Andere pare bat bakarrik, ezkerraldeko gozotegiaren ondoan kalaka aspergaitzean.

Eta hondartzaren aldera ni hurbildu ala, ozenago bilakatzen zen Itsas-orroa azkarra.

Treinen gaineko zubia pasa, eta Mimiague-ren liburudenda eta «Gurutzia» ostatua utzi nituen atzean.

... Ia-ia ito beharrez, eta eroturik bezala, elkar besarkatu geninan; eta, bukaerarik ez zuen musu ilara hartan, ohe gainera erori gintunan... Oroitzen haiza?

Eta entzun ohi ez diren agintzak eta hasperenak entzun genizkinan biok, eta ikusi eta laztandu ohi ez diren janzki leunak ikusi eta laztandu. Eta biziera osoan bitan ere iristen ez diren atsegin eta zorion gailurrak iritsi genizkinan...

Eta, beste hamaika aldiz bezala, milazkondoek apaintzen duten talaiatxora joan nintzen.

Eta ikaragarri urrun gelditutako esanak eta entzunak bururatzen zitzaizkidan, behin eta berri, eta tema iraunkor; eta Itsasoaren uretan ikusten bide hindudan, erdi lanbro hark hire irudia osatuko balu bezalaxe.

Eta deitu egin hindudan:

—... laister hi heldu, otoi!  
behin bederen,  
bigarren aldiz  
behintzat  
hire ahotsa  
eta hire irriak  
hemen entzun!

... bigarren aldiz  
bederen  
atzoko goiz  
geldi  
epelean bezala,  
hire esku hotzak  
neuretan izkuta!

Erregu alferrak eneak!

Eta «atzo» hitza esatean, ernatu bezala egin nintzen:

—Noiz izan ote zen atzo hori?... Kanpoaldeko erlojuak ez baitira gelditu.

Eta pozaren handiak berak tristaturik, honela mintzatu hintzaidan:

—Ez sekula ahantz ordu hauek!... Otoi, ez sekula nitaz ahantz!... Ez diat inoiz, zer gerta ere, hitaz besterik inor maitatuko!... Ezin nezake... Hi hil ondoren ere, eta guztiek hi ahantzi arren eta aspaldidanik hi ahantzi ondoren, nigan, ni bizi naizeno biziko haiz... Inoiz biziaren garratzak gogaiturik baldin bahago, oroit hadi ene hitz hilezkor hauetaz!...

... Eta, horrela, lehenengo eta azkeneko aldiz batera, bai hik eta bai nik, hizketan, eta irribarretan, eta algara etengabetan, gau oso bat logalerik batere gabe igarotzea zer den ikasi geninan.

Gau luze oso batek minutu pare bat baino gehiago ez bailuan...

Baina arrats burrunbatsu hartan ere ez hintzen Getharia-ko talaiatxora azaldu. Ez hintzen nigana berriro sekula etorriko!

Orduan ez niakinan hau. Orduan ez; orain, berriz, haizeaz bestaldetikako bigarren bidaia honetakoan, ongi zekinat... Goiz geldi epela joana zunan.

... Eta talaiatxotik, eskuineko harroka ilaran olatuak herronka lehertzen ikusten nituen, eta

apar-gandor higikor bihurtzen; baita metro batzu hartara egin, eta berriro uhin apargabe bilakatzen.

Eta apar-gandor itzalkor haiek elkarren hildotik joaki erreparatu nituen, elkarren ihesle bailiran; eta ilaran ere, hondartzaraino iritsi baino lehenago, bata bestearen ondoren, apar suntsikorrezko tarte bat utzirik, ezabatzen zirela, eta galtzen.

Eta laztu egin nintzen:

—Hondartzara gaberik, ilaran suntsitu behar!

Eta euskaldun poetak maluta orbangabe eta arina bere esku ahurrean harrapatu orduko malutarik gabe ikusi zuenean bezalaxe, nik neuk ere neure ametsak oro bildu bezain laister suntsiturik aurkitu nituen.

Harroka haiek uraren gainean agiri, olatuen lehegarri, etengabe ari ikusten nituen. Eta, izbera hartan, urrunago zegokidan Itsasoa, zinez; bezpera urrunduan baino aisa urrunago eta arrotzago. Eta Bidarte-ko hondartza bakartiak ere zabalago eta hutsago agertu zitzaizkidan goiz geldi epel hartan baino.

Eta Gethari-azpiko Itsas-ertzari hutsarte eta kresal giroa zetxekion.

... Hain luzaz itxarondakoa, hain barnakiro desiratua, hain gorenki maitatua, nigana ordukoxe... oroitzapen urrun iduri, eta hisi mikatz ere bihurturik hauteman nuen.

Eta olatuen burrunban gailendurik, Ipartar kantariaren hitzak etorri zitzaizkidan gogora bi-biok hainbestetan entzunak:

«et de vagues rochers  
que les marées dépassent,  
et qui ont à jamais  
le coeur à marée basse»...

Eta, malenkonia hura guztia ezin irentsirik,  
atzera begiratu nuen:

—Ezina da!!

Baina hetsita zegoen, bai, «Gurutzia» ostatua,  
eta hetsita Mimiague-ren liburudenda apala; eta  
hetsita gainerako ostatuak eta etxeak oro. Ez zen  
lokamutsa.

Eta ezkerretara begiratu nuen orduan; eta  
«Résidence Guetharia» zeritzona ere, hutsik atxe-  
man nuen; abandonaturik antza, eta dextente zaha-  
rrakaturik, eta leiho berde guztiak hetsirik.

Amets ulertezin horietan bezalaxe, nihaur nin-  
tzen Getharia-ko bizidun bakarra.

Udazkenburu epelean, zerua goibel, eta neguka-  
raren hurbila nabarmen.

Eta, talaiatxo utzita, aurreko paretaren ondo-  
tik jeitsi, eta milazkondo artetikako bideskan  
behera nintzen abiatu.

Aurrera zihoan ordurako ilunabarra.

Eta hondartza gaineko bidean barrena abiatu  
nintzen orduan, Bidarte alderuntz; eta jauzi egin  
nuen gero hondartzara. Eta barne-indar bitxi ba-  
tek eraginik. hitz hauek izkiriatu nituen Itsasoak  
utzi berria zuen eskualde lautuan:

—Gailurrera hel, eta arroila ere bertara.

Eta Iparraldera beti, eta hondar heze lauean barrena, Itsas-hegitik beretik joan nintzen pentsakor, batzutan olatuen aparrak ikutzen ninduela:

—Zergatik ez haiz nigana inoiz bihurtu?

Eta barne-zimiko latzak eta hutsune mingarriak nabaitu nituen neure bularrean.

Eta bezpera dirdaitso eta urrundu hartako pozkario aparta eta bakarra nigandik ezin laisterkiago ezabatzen ari ikusi nuen; eta zazpi aldiz zazpi aste hartan ezerezean funditzen eta deuseztatzen txit abiatua:

... atzoko goiza,  
iazko goiza agian,  
aspaldiko goiz hura hobe,  
antzinako goiz urrun jadanik...  
eta goiz urrun haren geldia,  
eta goiz geldi haren epela,  
eta kresal usain bizi hura...

... oroitzen haiza?... suntsitzen ari... suntsiturik jadanik!

... eta nik, gizarajo honek  
behinola  
hilezin jotzen nuen  
goiz geldi epel haren azkarra bera ere,  
gaur berton,  
biharamun hurbil honetan,  
jadanik etsipen etsian...

... suntsitzen ari... ezabaturik... deuseztaturik!

Ezen «denbora etorri, eta maitasuna ebatsiko baitik»...

Han zegoen Itsasoa, ordea, bere hartan: ahazkaitz, ahantzezin... baina ahazkor! Hura garaitzaile sendo bakarra! Giza-patu ilararen lekuko tinko, lekuko iraunkor, lekuko ezinago doilor eta gupidagabe.

Itsasoa: zabalegi bareegi, baztergabeegi...

Eta haizeaz bestaldetikako mezuaz oroitu nintzen:

—Itsasoari zegokiok Itsasoa. Hire Aberria lakua duk.

Eta neure errakuntza ulertzen hasi nintzen:

—Zertarako dastarazi hidan  
maitasunaren sukarra,  
sukar liluragarria?  
Zertarako uxtiarazi hidan  
hain laburki,  
hain finki,  
«ce bref aperçu de l'Infini»?

gero luzaz,  
guztiz luzaz,  
azkengabeki hobe,  
penatzen  
eta urruti-minez sofritzen  
azken egunera arte  
jarraitzeko?

zertarako usainerazi hidan  
Itsas-kresal mehe gazia?  
Ez ahal hekien hik  
zorionera-nahi kiskalgarri hau,  
zoritxar guztien iturburu  
eta tortura guztien giltzarri  
bilakatuko zitzaigunik?

Eta pinadi bat euripean somatu nuen:

—«Tubuai»ra lerratu ez banintz behintzat!...

«Maite ditut nik  
maite  
gure bazterrak  
lanbroak  
izkutatzen dituenen»...

Eta sekulako joana zen zorion-unea are iheskorrago atxeman nuen, eta are galduago.

Eta ordurarte Itsasoa azken funtsean zer den ulerturik ez neukala iruditu zitzaidan.

Eta ilunabarreko kresal usaina, urruntasunez eta urrutiminez oratua, zeharo ilundu arte neure gogara dastatu nahiz, milazka apalen artetik gora abiatu, eta maldaren erditsuan exeri nintzen, be-larrean, eta Itsasora begira.

Eta hi ikusi uste hindudan behin, eta berriz, eta hamaika aldiz; Itsasoa herori baihintzen.

Eta, eskuin eta ezker, milazkondoak eta zuha-muskak oro Getharia-ko bruillartak, Getharia-ko Itsas-haize zakarrak okerturik eta erdi erauzirik



aurkitu nituen; bizi-nahiak berak itsusturik eta mindurik; lurrari eutsi-beharrak markesturik eta soildurik; mila aldiz, are zertarakorik gabe ere iharduki ondoren, edergabeturik eta unaturik.

Itsas-haizearen krudela!

Itsas-haizearen krudela udaran batez ere!

Eta beherago joan zen ura, eta atzerago.

Eta uraren gainetik harkaitzezko orratz zorrotzak jalgitzen ziren Koskenean, beren gogorrean zeruruntz erreguka ari, eta urriki eskean:

—Aski!

Baina Itsasoa ez zen mendrenik ere bigundu.

Eta Itsasoz ahantzi-beharraren gorriaz jabetu nintzen.

## VI

Eta gaua gertu zelarik, eta Miarritze aldeko zerua arrunt ilundurik, talaiaren azpiko mazelako milazkondoak eta zuhamuskak utzi; eta, berriro ere, lehen oinez kurritutako hondartza-gaineko bide beretik joan ondoren, hondartzara jeitsi nintzen jauzi batez.

Paseabide ondoko hondar-eskualde hura, Itsasoak iritsi gabea, lehor zegoen; eta epel xamar ere bai oraindik. Eta bertan etzan nintzen; eta, zerura begira jarriatik ere, neure barnera bildu.

Eta zorrotzago eta usuago bihurtzu ziren anxteten garrasiak. Kresal usaina, berriz, niganaino sarkor hedatu zen; eta ilunabarra gau bilakatu. Eta aidea bera gero, eta bustiago, eta hozkirriago; ekaitz egunetan, Urgull atzeko harkaitzetan olatu handiak lehertu ondoren, ttantta ñimiñotan eguratsean barrena eta ortzadar txikiak sortuz, kresalezko lanbroa busti eta hozkirri hedatu ohi den bezala.

... Eta Getharia eta Bidarte-n gaindik doan hondartza luzea, nigan ezabatzen ari zela iruditu zitzaidan; eta ene gainetik jiraka ari ziren antxeta bakanei, beste anitz eta anitz antxeta erasten zitzaizkiela...

... Eta, hartan, mendi eskergak eta malkor zutak sortu ziren nigan, gaitzak, beldurgarriak; beren gailurretan, han urrun, elurrez zurituak.

Beren behereko parteetan, berriz, aldats gaitzetan, pinu eta harkaitz hutsez estalirik, Itsas-adarren azken zokoraino heltzen ziren, labar eta amildegi, aparrik jaso gabe.

Eta Getharia bera eta Getharia gaineko zero iluna osotara ezabaturik, aspaldi hartan bezain liluraturik, edo areago agian, «Eidfjord» hitz arrotza irakurri nuen.

Eta urgain barearen gainetik, hegaz, antxeta zuri bat ikusi nuen, bere garrasi zalapartariez, etengabeko irri algara, egurats baketsua zulatzen ari, eta ilunabarreko argi epel horiska luzakorra dolore-kutsuz oratzen.

Eta Itsas-hegi labartsu beldurgarrian, zurezko txabola bakarki bat ikusi nuen. Enbor pilo bat zeukan jasorik teilatu apalaren pareraino. Eta, txabolaren atzean, oso goian, amilka jausten ziren harroka-buruetatik behera, uxola basak eta opa-roak.

Eta, ikuspegi apart hartan nengoela, berotasun kiskalgarria nabaitu nuen bi begietan; eta dei hizkabea, izuti, zerbait hasten zela nigan deikari:

—Nora aldatu haiz?

Eta zorabioak eta nazkak harrapatzen ninduten berriro, eta aspaldiko etsipen etsia ene ahotik mintzatzen:

—Ematu ezinezko egarri lehor hauek, zertarako gudan piz? Nork gorroto ote nazake honen bestez?... Zergatik giza-tristura azkengabe hauek? Zeren truke, edo noren atsegingarri, ifernu hau?

Eta neronek erantsi:

—Zabalegi hatzait gaur; zabalegi, bareegi, baztergabeegi... Nola higan ezar tantoka eta bakanka baizik dasta ezin daitekeen likurta urria?

Eta haizeaz bestaldeko esaldiaz oroitu nintzen berriro: «Itsasoari zegokiok Itsasoa. Hiri lakua dagokik»...

Eta Bidarteko malkartxoak labar eskerga bihurtu ziren, eta ederrago iruditu zitzaizkidan labar berri espantagarriak.

... Eta ontzi nagi bat agertu zen lumutur zakar zutaz bestaldetik... Egunean pasaia sei aldiz egiten zuen «ferje»a zen. Bi maste zituen, gora, sendo; eta bere ondotik apar hildo zehatza uzten zuen.

Barrandari gisa agertua zen kolkoaren azken xokoan, eta, polliki-polliki, bazetorren niganuntz; giro bikain hura zarataz edo keez urra eta satsu beldurrez nunbait. Saizulotik piztia zuhurra irte-tean, kontuz jalgitzen den bezala.

Eta «Eidfjord» hitza irakurri nuen kaiko nagan. Eta emeki-emeki jakitu nuen neure barruan hitzaren arrotzasun malenkoniatsua. Eta, asmo berean, emeki edoski nuen «Skanevic» hitzaren urrun-kutsua... Eta Ulvic herriska ikusi nuen, kolkoaren azken mehargunean kokaturik. Eta Ballestrand-eko etxetxo txuriak eta kaleska atseginak bururatu zitzaizkidan; eta gaztejende alai hura, elkarrizketa irribarretsuan ari...

Eta geroxeago, «ferje»a nigandik hurbilago zenean, «Kinsarvik» hitza irakurri nuen ontzi zuriaren brankan.

Eta ontziak zekazkien jendeari eta autoei begira, urondoko aterbean paratu nintzen, presarik gabe, eta beharrik batere gabe «ferje»aren irten eta etor-orduak ilaran irakurtzen nituelarik; eta hain luzakor eta azkengabe itzaltzen zen ilunabar zoragarria izkutuan edoskiz:

—Kresal usaina eta antxeten karranka eten-gabea erantsirik ere, Gavarnie-n bertan ba ote genuke Kinsarvik? Ba ote genuke Luz-en edo Cap-Long-en Ulvik-eko xarma paregabea? Kresala, eta iratze usaina, eta urgain geldia, eta inguru menditsua, denak batera...

... Eta Mendebalderuntz abiatu nintzen uretan barrena.

... Eta malkor gogorak eta harkaitz zutak, ilunabar luzakorrean leuntzen zirelarik, Ströms-tad-eko kaitxoa ikusi nuen mazelako altzo batetan.

Eta, arrastiriko haize-bala bakar batek erakarririk, ubanare urrin min sarkorra barreiatu zen bazterretan.

Aloka pilo moreek, han hemenka sakabanaturik, nabartu egiten zuten hondarreta lautu berria. Eta, bizirik gabeko atal giharregabeen antzera, Itsas-hondotik erauzitako landare ilun haiek, beren adaska eta mutur guztietan zoruaren gainean pausatu beharrez, nunbait areago makurtu eta behera beharrez, zeruari uko osoagoa erakutsi beharrez, ahulezia guztietan baino ahulduago eta unatuago, heriotzaren beraren irudi hits berbera ziruditen.

Eta Gaztelugatxez, eta Saturraranez, eta Harribizketa-ko harrokadiaz oroitu nintzen. Eta «Une jolie petite plage» filmaz; eta beti haize etengabe, haize errabiatuan, gabardina lagun, pentsakor, agertzen zen Gérard Philippe handiaz. Orduan senditu nuen nik lehendabiziko aldiz Itsasoak utzi berriak dituen hondar-hegien poesia aparta.

Antxetak bide ziren han bertako biztanle bakarra; eta antxeten algara errepikakorra bertako zarata bakarra.

Eta behin eta berriz esan nuen:

—Eidfjord! Skanevic! Kinsarvik!...

Eta geroxeago, argiturik:

—Hau bederen, otoi!

Eta haize-bala freskoek ximikatu zuten ene aurpegia. Eta antxetak eta kaiuak talde handitan hegaldatu ziren, gora, oso gora, beti ere jiraka, eta beren karrankak bazterretan entzun eraziz.

Eta zerua behehitu ala, eta hezetasunak eta txori garrasien hurbilak mendarte eskerga hura hestutu ala, gizatartu ere egin zen fjordoa; goitikako bere zabaltasun zabalegia, lanope muga-tzaile hartan kukutuz.

Eta fjordoaren ikuspen mugatu eta laburrago hau, ilunago, hodeitsuago, negu-haizez oratuago, oskarbiko fjordoa baino nahiago nuela iruditu zitzaidan...

Eta hantxe, Ulvik-en edo Kinsarvik-en, egunargitik gau-ilunpeetara astiro abiatzen zen eskualde

hartantxe, neure oihal-denda urdina eraiki nahi izan nuen; eta munduari eta mundukoei mespretxuz eta betirako agur osoa esan. Harrokak urgainetik ozta agerian, antxetak lagun, marruskatu eta musukatu egingo nituen aloka hondartsuak ilunabar azkengabeetan... Eta baleaki xerra gorriak jango... Eta, goiztirietan, esku ahurretan ur kresala harturik, urrupa garratzak edango nituen...

Eta zorion uholde batek bete ninduen...

... Hots, amets aberats hartan ari nintzela, neska-ahotsak entzun nituen, gero eta bertago, eta algarak eta zurrumurruak; eta hondartza gaineko paseabidetik musuka leunean zetorren bikoteak iratzartu egin ninduen, eta neure barneko fjor-doetatik Lapurdi-ko kostalde bakartira ekarri.

Ordurako erabat ilundurik zegoen Koskenea. Eta harriturik harrapatu nuen neure burua:

—Zer debru dira ideia horiek?

Gutziz hoztuta neukan bizkarra, eta erdi bustia. Ezinago sarkorra zen Itsas-usaina, eta ongi ozena olatuen burrundara etengabea.

Gethariaren aurreko apar-gandor ibiltarien ilarra, berriz, gaueko beltzean diztiratsu eta argitsu, etengabeki zetorren hondartzaruntz; baina behin ere ez burura heltzen.

Eta kanpai-hotsak entzun nituen... eta gizaire sendoak mazelan behera, adarrak errestan... eta «Txin-ko, Txin-ko, Txin-ko» entzun nuen... beti ari... beti helbururakoan...

Exerita jarri nintzen; eta tematurik hausnar-  
tzen nituen orroa gorgarriz entzundako hitzak:

—Itsasoari ez besteri zegokiok Itsasoa. Hakio  
hi lakuari!

Eta, bapatean, lastu egin nintzen:

—Fjordoia... kresal usaina, antxetak... eta la-  
kua batera!

Eta haizeaz bestaldetikako jakinduria azkarrak  
argiturik, uko egin nion hozitzen hasperria zen  
bihozkadari.

Eta jaiki egin nintzen brauki, deliberatuki; eta  
milazkondoen arteko bideskan gora abiatu.

Eta, talaiatxora iristean, apar-gandorren ilara  
azkengabea beltzean gailen ageri ikusi nuen:

—Gauean argitsuago!

Eta zauskada latza senditurik ere, «ez» esan  
nuen; eta, Getharia-ri betirako adio esanik, Ipa-  
rralderuntz abiatu nintzen, laku bila.



## VII

Eta Iparburura hurbildu behar hartan, oinez abiatu nintzen, eta unatu arte ibili.

Eta zazpi aldiz pasa ziren zazpi aste; eta beste zazpi bider denbora hori bera.

... Eta piskanaka, apurka, gostata, sinetsi egin nuen haizeaz bestaldetikako mezu zail eta ireskaitza, eta neure haragi egin nuen. Eta urrezko letraz izkiriatu nituen hitz hauek: «lakua duk helburua».

Eta Baionako kale jendetsuak gurutzatu nituen orduan, eta Aturri ibaia beherean utzi. Eta Gurutze-Saindu-ko gainetatik Hegoalderuntz begiratu nuen. Eta hiriaren gainetik, eta katedraleko bi dorre ilun eta zorrotzen atzetik, mendi lerrokada gaitza ikusi nuen. Eta, nekez berez nitza-keelarik, Izarraitz, eta Ernio, eta Larrun, eta Urtsuia, eta Baigura ezagutu nituen.

... Eta landare mardulezko artalanda mordo bat gurutzatu nuen; eta Landetako pinadi ilun eta ezinago zabala hein batez bederen zeharkatu. Eta pinu erretxin usaina pozkariotan nuen aditu.

Eta elorrietan, txilarretan eta iratzeetan barrrena egun osoan ibili ondoren, laku bat ikusi nuen: Soustons-ko laku bare aparta.

Arratsa zen; arrats gedi-geldia.

Lakuaren inguru guztian, erlieberik gabe, kolore bakarreko zerrendan lauturik, aurrez aurreko eguzki argian kontrargiturik eta ilundurik, beltz

ziruditen mugarik gabeko pinadi zabalek. Eta han, urrutian, Mendebaldean, zazpi lerratzeren zazpi irudiak nabarmentzen ziren: elkarren segidan zazpiok, itxuraz, tinko, triste, malenkoniatsu agian; pinadian barrena zazpi ibiltari erraldoi ezezagunen itzal zazpikun gisa.

Eta lakuaren gainaldea, zilarrago bere dirdaian zilarra bera baino, ispilu zehatza zen ilunabar bare hartan. Ez zuen ezerk ere mendrenik inarros-ten; ezerk ere ez haren itsugarria ematen edo leuntzen.

Bere ederrenean ageri zen udazkena: azken ahuntzostoez, eta azken belarrez, eta pinu-lerdo urrin sarkorretan urrintatua.

Neure eskuin aldean, argi-ilun epelean miretsia bailitzan, naza bat ikusi nuen; eta harrizko eskailera zabal bat. Alegiazko itxuraz antzaldaturik, han zegoen lakua, isilpe oso osoan, bere bake harrigarrian norapait so, antza.

Eta lurrera begiratu nuen; eta lokatza antze-man nuen, basa bustia, argi epel hartan beltz agertzen.

Eta eskuinaldeko zuhaizpean eta bidesketan, muturretik bikotetan elkaturik, milaka, hamar milaka, miliunka, beren eiharrean gorriskaturik, beti zorrotz eta ziztatzaile, iazko pinu gilbak ageri zitzaizkidan erruz; tarteka lokatz iluna bera gorritzatu eta estali egiten zutelarik.

Eta lerratze gotor baten kontra, zaharkiturik, arteziturik, usteldurik agian, oholezko zizailu aire zahar bat ikusi nuen.

Eta laku geldia neure ezkeraldean utziz, bi-deska laranja bat topatu nuen harrizko eskailera zabalaren ondoan; eta, zuhazti azpiko ilunpe heze eta nabarrean ibilki, landare lurrun epela hatsartuz urrundu nintzen Gailleben abenidako mutur hartatik.

Eta aulki gorriak ikusi nituen zuhaitzen artean; eta errekaaren gaineko zubitxo «naïf» bat pasa nuen, irribarre izutian.

Eta laku ertzeko landareen artean izkutaturik, ahate buruberde batzu aurkitu nituen; baita aha-te-amen hegal azpitik noiztenka baizik irteten ez ziren ahatakume izutiak ere: beti zalapartari, baina beti ere amazulo.

Txoriren bat ere ikusi nuen, hegaz, arratsean ibiltari bakarti; eta, gora eta beherako bere hegal-di luze leunean, ikusi ezinezko elektrika-hari gardenak kurritzen zituela iruditu zitzaidan.

Eta, konturatu orduko, Azur-eraino, lakuaz bestalderaino joana nintzen. Eta gaua gertu zegoela.

Eta laku ertzeko hondargune batetan, zuhaztiaz inguraturik, tropikotar kutsuko hiruzpalau etxola bitxi aurkitu nituen.

Etxola nagusiaren inguruko zortzi pareta zuri-gorriek halako V-sortak marratzen zituzten beren adreilu gorri eta igeltso zuriez, eta prisma oktagonari bat osatzen. Teilatu gisa, berriz, ttutturru bitxi bat. Eta sargunean soilik eraikita zegoen egurrezko arkuari, bere gaineko uztaiburuan, «Le Lac d'Azur».

Lakuaren ertzeraino, belardi leun bat. Ertzean bertan, berriz, naza gisa, zurezko tranpala bat; eta pedalo eta txalupa batzu ondoan, zai itxuraz.

Etxolaren aurrekaldea zurezko aterpe batez inguratuz, prisma aurpegi hainbat leiho, eta hamar bat mahai ikusi nituen, bakar bat ez-beste guztiak hutsik. Ilunabarreko argi gorrairean, gorriago ziruditen mahai-gainak jazten zituzten zamau gorriek.

Eta bakea senditu nuen, bake gaitza, bake neurrigabea.

Eta, liluraturik, oholezko tranpalaraino joan nintzen. Eta Soustons aldera begiratu nuen; eta urrunago ere bai, pinadi betean soma zitezkeen azkeneko pinadietaraino.

Eta azken zuhaitzen atzekaldean jarri nituen esperantzarik eroenak...

Eta mahai hartan exerita zegoena hurbildu zen niregana:

—Hauxe olerki-gune oparoa! —esan zenidan.

Soineko zuri luzea zeneraman, mehe eta malgu zenuen gerria, eta ibilkera pausatua.

—Lakuari datxekio olerkia —erantzun nizun nik.

Eta, handik piska batera, neronek ere galdetu:

—Itsasoan sinesten ahal duzu?

Eta zuk hitzetik hortzera erantzun zenidan:

—Ez!

Eta geroxeago:

—Mementoaren gozaketari deritzo zoriona... Mementoa ukatzea: horra hor gainbehera guztien iturburua.

Eta zure eskua neuretan hartzera menturatu nintzen, eta zure gerria besoaz heltzera.

Eta lakua ilunpean gelditu zenean, etxetxo oktagonariko mahai gorri hartantxe afaldu genuen.

—Lakuan zinez sinesten duenak —esan zenidan afalondoan— ez du inolaz ere eta ezertan ere biharamunik nahi... Askaturik maite ditu katenbegiak, eta ez katea. Lakua zinez maite duenak ez du mementoa baizik bilatzen. Mementoen bilaketa horretan ari nauzu ni aspaldisko honetan; eta, hein batez bederen, zorionsua naitzela esan diezazuket. Haseran gogor gertatzen da hoziberria den landare xamurra belaskeriarik gabe erauztea. Baina beste biderik ez dago. Itsasi baino lehenago landarea errotik baretik erauztea. Horra hor zuhurtzia!

Eta uste eta nahi nukeen baino areago beldurtu eta mindu ninduten hitz horiek. Zure aho zirikagarri hartan, harrigarriago.

Baina baiezkoa eman nuen:

—Bego. Gure artean ez da biharamunik izango.

Eta aldameneko txabola oktagonarian zenuen gelara eramán ninduzun orduan:

—L'indécence —esan zenidan— ce n'est pas la chair heureuse. L'indécence c'est la mort!

Eta zure ohean enea izan zinen behin eta ber-  
riz, eta nekearen nekeaz onaturik loak hartu  
arte. Eta inork baino zoriontsuago egin zintudala  
esan zenidan, esan.

... Eta, iratzartzean, bakarrik aurkitu nuen  
neure burua zure ohean.

Leihotik begiratu nuen. Eta bezperan autoa  
utzia zenuen tokian, haren arrastorik ez zegoela  
erreparatu nuen. Eta oraindik badakusat tarte  
huts hura, uste eta nahi nukeen baino hutsago:

—Emakume gogorra, zinez! —esan nuen aha-  
peka.

Lakuko bake eta isiltasun guztizkoetan, or-  
duantxe igar zitekeen Ekaldetik, Landetako pi-  
nadietan, eguntsenti zoragarria mamitzen ari.

Eta zure soineko zuri luzeaz oroitu nintzen,  
eta ozta-ozta ageri ziren zure takoi luzeez; eta  
zure gerri mehe malguaz oroitu nintzen, eta zure  
ibilera leunaz...

Eta leihotik bake-giro hura dastatzean, tris-  
tura berri batek bete ninduen: Mendebaldetik,  
dudarik ez, lakuaren ondoko eskualderaino hel-  
tzen zen. Landetako hondartza luzeetan lehertzen  
ziren olatuen zurrumurru urruna.

## I

Eta lakuaren ertzera hurbildu nintzen, eta egurrezko nazaren muturreraino iritsi.

Han zetzan, ene ezkerrean, eta hegian bertan, kate batez estekaturik eta branka erdi pitzaturik, txalupa zahar berdea. Urez beterik, tilapeaz hondoko basa ikutzen zuela iruditu zitzaidan.

Haratago, Azur-ko herriskatik etorria menturaz, bota kankailuz eta galtza motzez jantzirik, arrantzale goiztar bat agertu zen. Kañabera luze bat zeraman eskuinaldean, eta ontzi zatar bat ezkerrekoan. Eta, gauza bera maiz egin balu bezala, zuzen joan zen laku ertzeko puntu berezi batetara, eta hantxe askatu zituen bere otarreak eta zakuak, eta kañabera prestatu eta prantatu.

Ene gainean, berriz, eta azken adarrez urgaina eta txalupa berdea ikutzen zituelarik, itxuraz urteen unadurak- edo etsipenen zamak akiturik, zuhaitz beherakor bat zegoen.

Oskiak erantzi nituen horretan, eta exeri egin nintzen bertan. Tranpalako oholen arteko hutsarreak nabaitzen nituen garbiki neure ipurdian.

Goiz gaztearen liluragarria!

Neure oin biluzietan azkura gisa senditzen nituen haize bala arin etenkorrak.

Denari adi egon nintzen horrela, eta ezeri ere ez batera; eta isilpe trinko hura, barne burrundara bihurtzen zen ene belarrietan.

Eta atzera begiratu nuen. Hantxe zegoen, isilik, ttutturrudun bazkaldegi bitxia. Eta hantxe ere, ondoan, amazulo, tankera bereko etxetxo.

—Sinetsi ezina da!... Gaua hor, eta horrela...

Eta arrak harrotzen diren bezala, eta harrotzen diren arrazoinarengatik bakarrik, harrotu nintzen ni goiz gazte hartan. Eta irribarre egin nuen: ar-irribarre axala.

Baina berehala:

—Ezin sinetsia gau horren hutsa!

Eta, bapatean, ezpata batek zauritu banindu bezalaxe, hitz harrigarri hauek jaurti zitzaizkidan oinazearen erditik:

«ez baitu Itsas-kresalak  
bere gazia batere galtzen...  
baina hire ezpainak dituk  
Itsas-kresal  
gaziaren gazia  
dastatzeko  
zaharregi bihurtu»...

Eta burua erabat nahasirik:

—Goiz geldi epel hartan... gerria mehe eta malgu... eta uhin ahantziak... ibilera leunean...



Eta galdetu egin nuen:

—Zergatik joan hatzait gau betean, eta eguntsentia baino lehenago?... Talaiatxotik ikus genitzakeen orain Koskenea-ko olatu-gandor iheskorrak...

Eta beranduxeago:

—Jabetu orduko, dena oroitzapen bihurturik...

Eta Mendebaldetik, Bokale Zaharreko hondartza luze azkengabetik (edo-ta Getharia-tik, eta Muitza-tik, eta Gaztelugatxe-tik ere bai menturaz) Itsas orroaren zurrumurrua zetorren lakuraino:

—Tu n'est qu'une âme chétive qui soulève un cadavre!

... Eta oskiak jantzirik, eta oholezko tranpala utzirik, etxetxo oktogonarietara begiratzea ere ahazturik, Soustons-ko lakua bezperako leku beretik berringuratuz, gogoetatsu, pentsakor... etsita, ur hegitik abiatu nintzen:

—Itzaltzen dena ez da deus... Amaitzen dena ez da deus... Areago: kresal-giroan amaitzen dena, ifernu zola da. Ametsa da Itsasoa; baina lakua ez da ametsa ere... Hemen logaleak nago!... Dena ez dena ez da deus!!

Eta masusta gordinska bat sartu nuen ahora; eta mingots hark ene ahoko xixtua ugaltzen eta begietako malkoak isurarazten zituela nabaitu nuen. Eta, ziplo, hau esan nuen:

—Hauxe da, bai, Itsas ondoko lakuari datxekion zaporea!

Eta eskuak lakuaren ondoko lur beltz hartaz igurzteko eta belarrez betetzeko egarri idorra nagusitu zitzaidan. Eta egin egin nuen.

—Berantegi izan da enetzat. Ez da dudarik. Itsasoa dastatua dut eta. Haurrak ez besterik salba daitezke.

Eta ezkotasun berezi hartan, laketu egin ziren apur batez ene eskuak; eta haien egarria ematu.

Eta basa beltz eta belar-izpi ezkotuek ene eskuetan utzitako umitasun gazi-gozoa dastatu nuen. Eta kresal kutsua dutela erreparatu nuen!

Eta urrun-min latzak harrapatu ninduen, bortizki, burua bera berotzeko eta nahasteko moduan.

Eta lokatz beltza hartu nuen orduan berriro Landetako zorutik; eta ahurtara beltz busti hartaz busti eta freskatu nituen neure bi masaila kiskalgarriak.

Eta zauskada batek astindu ninduen

«eta berezi ezinak  
ziruditen  
gure masaila beroen  
arteak,  
ezkotu  
egin zunan  
ezari-ezarian»...

Eta Mendebaldetik, oihartzun ahul gisa, hitz hauek iritsi ziren lakura:

«goiz geldi epel hartan»...

Eta lakuaren gainaldia kizkurtuz, asaldatur, madarikatur agian, beste hitz hauek entzun ziren:

«goiz geldi epel hartan»...

—Berantegi enetzat! —esan nuen garrasika.  
—Itsasoko kresala dastatua baitut...

Eta Txubilloz oroitu nintzen, eta Muitza aurreko Igeldo orbangabe hartaz:

—Haurrek ez dute inon, ez inoiz, beren buruaz beste egiten... Pertsona larriek, berriz, kementsu diren ber, beti!

Eta etsimendu osoan pentsatu nuen:

—Orduan posible zen agian... Orain ez... Itsa-soak nau pozoindu; eta jadanik berantegi da.

Eta inguraketa bukatu nuenean, uraz bestaldera begiratu nuen. Nekez berez zitezkeen «Le Lac d'Azur»-eneko ttutturruak lanbro urdinska hartan.

Harrizko eskailera zabalaren ondoan, ahate berdeak eta zalapartariak, ni agurtzekotan edo, belar azpitik irten, eta ene aurrera agertu ziren.

Zeruko hodei handi eta txiki guztien xehetasunak hizladatzen ziren uretan, arrunt gauza bera marrartzuz eta koloreztatuz; eta bi irudi simetrikoen artean, ardatz beltz gisa, pinadiak osatzen zuten lerro urrun finak gurutzatzen zuen ikuskaria ezkerretatik eskuinetara.

Eta hondoratutako txalupa berdeari, eta uraren gainean igeri dardaratzen ziren hosto ihartuei,

eta lakuko giro isil guztiari, malenkonia jasangaitza zeriola erreparatu nuen.

Eta, enetzat berantegi zelakoan, lakuaz etsi nuen.

Eta azken esperantza saiatu gabe bederen ez galtzekotan, Landetako pinadia eta Aturri-gaineko zubia gurutzatu nituen, Igeldo-runtz abiatuz.

## II

Eta Getharia-ko Itsas-ertzaz eta Soustons-ko lakuaz horretara etsi ondoren, eta zazpirehun eta zazpi hilabete joanak zirelarik, itzuli nintzen Donostia-ra.

Eta Donostia-ra orduko, ez bat eta ez bi, Igeldo-ra joan nintzen, Txubillo-ra hobe: neure bizia bezain maite nuen Txubillo kuttunera.

Eta Ondarreta-ko lorategia zabaldurik atxeman nuen Txubillo-pean. Gartzelatzarraren arras-torik ez. Goarda Zobilaren kasernatxoa bakarrik, hondartzaren ondoan helburu gabeturik. Baina bertako mila afusilaketak ahantzirik somatu nituen, mila doilorkeria eta urte latzen zantzua bera batimendu zaharrarekin batera ehortzirik.

Eta Satrustegi-enearen aurreko malkartxoa ezkerretan eta Tennis-a eskuinetan utzirik, funikularearen aurreko plazatxo borobilera iritsi nintzen. Erdian zegoen palmondo liraina joana zen, aspaldidanik usteldua, erabat ahaztuta.

Sartu naiz txartela hartzera, eta eskailerazko geltokira gero. Eta egongela hartan, karilloiaren eta martimuilo jirariaren aztarrenik ez zegoen. Txartel-saltzaileari haren berri eskatu, eta ezer ez zekiela erantzun dit:

—Debe de hacer ya muchos años de todo eso...

Eta bagoi hutsean ia-ia bakarrik gertatu nintzen: zalapartarik batere ez. Haur korrikalaririk ez. Azaroko arratsalde labur hartan jolas-girorik ez Txubillo azpiko zai-aretoan eta geltokian.

Tinbrekada bat entzun zen memento hartan. Berbera! Eta, tupustean, zazpirehun urtez gazteturik antzeman nuen neure burua.

Eta abiatu egin ginen: gidatzailea eta ni biok abiatu, Donostiaren gainera udazken-arrats epel iheskorra fite zihoalarik.

Txalet berri asko eskuin aldetik, eta mazela lehen baino beteago. Ezkerretan, berriz, betiko baserria ikusi nuen, bakarrik, eta belardi leuna atzekaldetik.

Eta goraino heltzean, Donostiaren aldera begiratu nuen. Hura zirrara! Hura etsi-beharra ere, alimaleko hiritzar handia atxematean. Dorremultzoko haiek, elkargainka. Intxaurren aldetik, Altxara aldetik, Konporta aldetik, Lugaritz aldetik, alderdi guztietatik, handiegi zitzaidan Donostia, arimagabetua.

Eta nik, barneko oroitzapenetan gorderik neraman Donostia txiki hura, lardaskaturik eta itorrik zegoela ulertu nuen.

Baina Donostia izugarri baldaturik eta handiturik antzeman banuen ere, Igeldo sinetsi ezinezko moduan txikiturik agertu zitzaidan.

Eta, bihotzean mindurik, bestalderuntz begiratzea erabaki nuen. Eta «Guisasola» hitza irakurtzean, oraindik ere arnasa har nezakeela iruditu zitzaidan.

Baina kanoetako uharkaren aldera abiatzean, «Las Risas» jostaleku arriskutsu eta debekatuaren arrastorik ez nuen aurkitu. Eta tximurik ere ez,

ezta tximu-kaiolen aztarrenik ere. Bartolo eta Txita famatuak.

Uharka kanoagabearen ondoan gertatzean, berri-  
rriz, hain luzaz eta gupidagabeki preso egona zen  
hartz indartsuaren oihartzunik ez. Haren kaiola-  
-lekuan, hura iraina!, eskailera berri bat aurkitu  
nuen; eta atalburuan: «W.C.».

Tximistarri aldera begiratu nuen; eta lubiziak  
eta buztin horia ziren nagusi. Etxetxoak, eta etxeak  
eta etxetzarrak dozenaka erakitzen ari. Eta behi-  
nola Gudamendi atzeko mazela soila, hirigintza  
amorratuan.

Eta natura-nahi hartan, Tximistarri-ren atzera  
begiratu nuen. Lumutur mordo bat ageri zen:  
Getaria-ko «arratoina» aurretik, eta beste mordo  
bat segidan, eta Matxixako-raino. Baina alferrik  
saiatzen nintzen ni, hodei more luzeska baten az-  
pian, Aketx uhartea eta Gaztelugatxe harkaitza  
urrundik bederen ikusten.

Eta neure asaldurik sakonena nekez mende-  
ratuz, Muitza kolkora begiratu gabe itzuli nin-  
tzen barru aldera:

—Ez dut sekula —pentsatu nuen— txirrista  
more ilun hori ahantzi; eta, hain zuzen horretxe-  
gatik, neure bigarren zahartzaro honetan begira-  
tzeko ikaran nago!

Eta hiru lerratzeen zabalgunetik joanda, ka-  
rruselaren geltokira igo nintzen. Hantxe zegoen,  
burnibidea bederen. Gora eta behera ibiltzen zi-  
ren bi tramankulu bikunak, zenbait tapaki zan-  
tarrez estalirik, ostatuaren azpiko tunel zabalean

baitzeutzan, betirako loan agian. Eta burdinazko bidea bera herdoiturik aurkitu nuen, kaskaturik; eta burdin-zatien arteko etendurak ere, kezkatze-ko moduan berezirik.

Geldirik ere «Río Misterioso» sonatua; eta zementuzko txalupa-bidearen hondoa, kolore nabarretako plastiko-puskaz eta xafla-muturrez ia-ia goraino beterik. Arkupe luzeko sapaia, berriz, zementuz ere eraikia (uste ez banuen ere), horiturik aurkitu nuen; eta, bere luzera guztian barrena, lau elektrika-kable beltz zabarrek korriturik eta itsusturik. Harrizko zutabe horiak, harrigarriri higiturik; eta poltsikuan neraman giltzaren bitartez azkatu, eta hondar-hauts hori ugaria bildu nuen berehala neure esku ahurrean:

—Hi ere laister osoki suntsitua!

Eta han zegoen, geldirik, errota berdea, haurtzaroan uren eta txalupen eragile azkar izana. Eta hantxe kokodriiloaren tunel beldurgarria, Azaroko arratsalde bare hartan bere bi sarguneetan burdinazko erreja banaz hetsirik eta debekaturik.

Eta hura nola har ez nekiela, baino ximiko harigarri batez hunkiturik, letra xaharkitutan, hauxe irakurri nuen irribarre isilean: «Río Misterioso: Viaje a la gruta de la felicidad»... Eta letra horietxen azpian, gorri ezin gorriagoz marrazturik, bi bihotz ageri dira, elkarri ezinago atxekirik.

Ubidean barrena, berriz, adar eta adaska pilo bat, soildurik; eta tarteka, igeri, hosto ihar batzu ikusi nituen, Soustons-en bezalaxe haize balarik xumænen arabera asaldatzen eta dardaratzen ari.



Den dena isilik. Errotatzar berdea eta bare atreko makineria. mutu. Funikularearen orroarik ere ez, oso tarteka marteka eta laburki izan ezik. Baina Arrubiko-punttatik, olatu zurrumurru ozenak goraino heltzen.

Inor ez, bestalde. Haurtzaro garaian txartelak saltzen ziren txabola ezin hertsia eta itsusiagoan, ez saltzailerik ez eroslerik batere. Ni neu bakarrik. hitz batez, noiztenka Itsas-haize balek freskatzen zuten arkupe luze osoan.

Ezkerraldean utzi nuen orduan kokodriloaren tunel hetsia; ubideaz gainetikako zementuzko zubitxoan zeuden bost eskailera-mailak igo nituen (bost ziren, baina arkupearen sapaia jo nuen ia-ia), eta berriro beste bost jeitsi. Eta errota berdearen euskarri eta eragile zen makina-txabola ikusi nuen.

—Ez! Ez zen hau! Ez da posible!

Eta zementuzko kotatzarraren ezkerreko bideskan behera joan nintzen. Harroka hondartsua eskuinaldean, eta han ageri zen Donostia, adarren artean, bideskaren buruan. Eta aurreruntz begiratu nahi ez nuela erreparatu nuen.

Ahuntzostoak nituen ezkerretako hesiaren gainetik, berriz, Monpas-ko muturra ageri zitzaidan, eta Iger-koa atzerago; eta Miarritze-ko faro-dorre zuria, urruntasunean gailen. Han nunbait ere, baina ezin ikusiak, Koskenea harkaitsua eta Soutons-en inguruko pinadi zabala...

Eta Igeldo-ko faroa egunargi hartan bere argi-andana hirukuna hedatzen hasten zelarik, goruntz itzuli nintzen bideska beretik. Eta herabe, bel-

durrez hobe, ia-ia dardar dena aitortzekotan, karusel-bidearen gainetik igo nintzen, eta pinuen arteko eskailerak burutu. Eta olatuen orroa urruna garbiro entzun zitekeen handik.

Eta, dorrearen azpian bertan, hutsik egon ohi zen aulki bakartian exeri nintzen. Ene gainean, hortentsi-ondo mordoska bat zegoen. oraindik, eta historik ere, loretan.

Eta aldizka kulunkatzen ziren pinu-adaburuen artetik, eta etengabe zirkulu zabalak eginez zehar-katzen zuten antxeten atzetik, nik, haizeaz bestaldetik etorria naizen bidari honek, egin nezakeen hobenik larriena egin nuen; eta, aurrez aurre, eta lurrik ez ikusteko eran, Itsasora begiratu nuen:

—Hi bai! —esan nuen ozenki—. Hi haiz berbera! Hi gotor bakarra!

Gudamendiko tontorraren gain-gainean, ene ezkerreko bideska xarmentetik, murru laranjaren eta pinuen arteko tartetik xuxen, arratsaldeko azken eguzki apalak argitzen ninduen. Orduantxe sartzen zen bera ere mendien atzean:

«Nik ez nai  
bêra-bear ori!»...

Eta egon-ezin berria nigan agertu, eta jaiki egin nintzen. Eta erabaki zaila hartu nuen:

—Muitza-ko txirrista morea ikusi gabe baldin bahoa, ustela izango haiz, koldarrik koldarrena!

Arindu egin zitzaidan bihotza. Eta eguzkiak itsutzen ninduela, bideskatik abiatu nintzen labe-

rintoaren aldera. Eguzki gorriztak laranja trinkoz tindatzen zuen murruko auka larranjarea. Esku-eriez ikutu nuen orduan, eta harrigarriri leuna zela erreparatu.

Eta laberintoaren ondotik jeitsita, Txubillo atzeko labarrera iritsi nintzen. Eta beheruntz begiratu nuen.

Eta begien aurretik norbaitek zapi bat jarri nahi zidala iruditu zitzaidan.

### III

Eta, taupadak azkartu ala, ahantzi nahi izan nukeen mortu beldurgarria bururatu zitzaidan. Dena ongi ulertzen nuen; haizeaz bestaldetik bihurtua den norbaitek ez bestek uler dezakeen bezala.

Eta pinu-adaburu batzu haizeaz kulunkan ari ikusi nituen...

## IV

... Eta, geroko barealdian, jarrera aldrebes eta ezerosoan nengoelarik ere, aulkiko azken oholetan pausatu nuen burua.

Eta neure gaineko hortentsi-hosto zimelduen artetik Txubillo-ko dorrea ikusi nuen. Eta haren paretetan behera, zeharkako ilaretan ageri, behinola Igeldo-ko entretenigarri famatua izan omen zen toboganaren gako-mutur herdoituak begiratu nituen.

—Gure denboretan oso ezaguna zuan, bai, txirrista hura —esan zidan gure aitak oso aspaldian. —Baina, halako batez, mutiko bat bere lastaira labainarekin tobogan-bidetik irten, eta hil egin zuan. Eta, zorigaitz hura zela-ta, kenerazi egin ziaten txirrista kilikagarria; eta orain ez daukak hor gako-mutur ilara horretaz beste aztararik...

Eta hantxe zeuden oraindik, bai, egia zen, euskarri haien mutur herdoituak.

Eta Gudamendiko gain gainean zegoen eguzki gorritzak itsutzen ninduelarik, bideska xarmant hartatik abiatu nintzen; eta ezkerretako pareta estaltzen zuen auka leuna ikutu nuen neure eskueriez.

Eta alferrik bilatu nituen, Gudamendi-ko mazelan, «Arbulu» eta «Zapatari-Gurutze» baserri izanak... Arrastorik ez!

Eta karrusel-bideko zubi aldatsaz bestaldera, burdinazko haria eta txirrita geldituez atzekalde-

ra, Arratzain. eta Mendizorroitz, eta Izarraitz ageri ziren; Mendebaldetikako argitasun itsugarrian bezturik.

Jeitsi, eta litxartegiaren atzeko zubitxo gurutatu nuen; eta karruselak han egiten zuen behe-rakada oso txikia zela iruditu zitzaidan.

Eta burdinazko iturri berde borobileko xirripa etengabea, uso berankor batzu nahi gabe uxatu ondoren, zabalguneko barandillara joan nintzen, eta bertako aulki batetan Antigu aldera begira jarri...

## V

... Eta Gipuzkoako mendi-kate multzoa neure aurrean nuela, arran-zurrunmuru gaitz bat entzun nuen urrunean, Urbixa-tik agian, eta ondoko Zabalaitz gogorretik...

Eta Ernan: ondoko Santa-Barbara malkorrak, Araoz-ko San Elias ondoko malkortzat hartu nituen...

... Eta Igeldo-pe hartan, neure aurre aurrean, padura zabal bat ikusi nuen, eta istilak eta zingirak ugari. Eta mila igelen kantak garbiki entzun.

Eta «Márbil» eta «Arbízqueta» eta «Barráka» baserriez bestaldean, Ibaeta urtsuan, «Txillárdegi» zaharra ikusi nuen, zutik. Eta beronen ondoan, eta zutik ere bai, «Txalúpa-gilléne» ontziola zaharra. Baita txalupa batzu han, gorri eta urdin, zahar eta berri, nahasian, arrandurik hau eta uranditurik bestea, txalupagileen arazo eta lan iturri...

Eta halako lasaitasunak hartu ninduen:

—Urrun da oraindik!

Eta beti ere bake-bila, xehekiago miatzen nuen neure jaiotzauzoan; eta gero eta xehekiago agertzen zitzaizkidan antzinako askak, eta iturriak, eta etxeak...

Eta horrelaxe, «Txillárdegi»ren ezkerretan, eta Loreto-petik ilaran joanda, «Sutegízar» topatu nuen, eta «Ezkonbérri», eta «Beriéne», eta «Bazterrétxe», eta «Zubiáurre», eta «Blantxonéne» azkenik... Borda zantarrak batzuak, etxetxo egokiak

besteak... Baina izen bana zuten orduko antigutarrak...

Eta «Txillárdegi» pasa, eta eskuin aldera, eta «Konpórta» alderako ilaran, hantxe, osorik, atso zaharrez eta gazte mardulez atxekirik, «Rafaeléne» ikusi nuen, eta «Sansusténe», eta «Bentabéri», eta «Bentatxíki»... Eta goraxeago garagar-doizko fabrika zaharra, aldapa betean.

Loretope-ko erramu-basoaren atzean, berriz, ia-ia ilaran hemen ere, eta Aiete-rako aldapan, «Illúmbe» ikusi nuen, eta «Soldaduéne», eta «Santzerreka», eta «Jaronenía», eta «Txiráin», eta «Untzaéne», eta «Portuéne», eta «Merkadér», eta «Munttóa»...

—Antigua baserri multzo!

Eta Igeldo aldera hurbildu nintzen begiradaz; eta «Txokolaténe»tik etorri nintzen Txubillo aldera, eta «Zubimúsu» eta «Txapeldégi» eta «Márbil»dik...

Baina ezin ozenkiago mintzatu zitzaidan orduan Itsas orroa:

—Etsi ezak, itsu horrek!... Utz hitzak amets horiek!... Hire lakua idortua duk; eta azkeneko haize-balaren zantzua aurki itzalduko duk hiretzat!...



## VI

... Eta esnatu egin nintzen arrunt asaldaturik:

—Jadanik?

Litxartegiaren aurreko aulki batetan exerita nengoen, ene burua atzeko partean desegokiro pausatutik.

Antiguan eta Donostia osoan, argiek diz-diz egiten zuten gau gaztean, denak piztutik.

Eta, bapatean, ikaraturik, bi eskuak eraman nituen aurpegira eta begietara: zapirik ez zegoen bederen! Eta ongi ikusten nuela iruditu zitzaidan.

Kontxaren ertzetik, Zumalakarregitik, Tolosako abenidatik, hamaika kotxe-argik gurutzatzen zuten Donostia batera eta bestera.

Eta Itsasoa eskuinaldean begiratu ere gabe utzita, eta bide zaharrearantz beheara oinez jeistekotan, Leku-Eder-aldera jo nuen.

Igeldoko mugan zegoen langa zuri-gorria altxata zegoen.

Eta Leku-Eder-eraino patxaran joan nintzen. Handik aurrera, berriz, hura eroaldia! «Ku» dantzalekura zihoazen, nik uste, kotxeak eta kotxeak, lehian itxuraz, apostu betean, ertzotutik. Eta gau irribarretsuan, ez argi luzeak garaiz apaldu, ez abiada txikitu eta ez ezer. Eta bat, eta bi, eta zazpi, eta berrogei horrela; eta gauza bera denak, ilara hark azkenik ez balu bezala.

Malkoz bete ziren ene begiak horrela; eta, ha-

lako batez, estropozo egin, eta erori egin nintzen ia-ia.

Eta hamaika zantarkeria eta birau artean, kotxe gorri eder batetik:

—Se circula por la acera de la izquierda, viejo! —bota zidaten.

Eta joko ninduten etsia egon nintzen.

Eta odola zirakidala, Rekondo aldera jeisten den kaminoa begiratu nuen ilunean berriro: aldapan behera hartan ez zegoen ezkerreko ezpaloirik!...

## VII

Eta izkiriatu egin ninan.

Gutun laburra zunan:

«Banihoan. Bigarren eta azken aldiz noakizue. Ez galda nola dakidan; baina bazekinat.

Ez dinat ezer ahantzi, ez haut sekula ahantzi, ezin niazaken... Bihotzondoan haramat; bihotzondoan zeramazkinat goiz epel hura eta uhin ezin-ahantziagoak...

Otoi! joan aitzin, opari txiki bat eman nahi ninake. Bihar arratsean, Gaztelugatxeko harkaitz gogorra eta Bizkaiko lurralde zabala lotzen dituen pasabide meharrean egongo naun zai, arratsaldeko bostetan...

Haizeaz bestalderako bezpera hits honetan erregutzen dinat: maite ez banaun ere, ahantzi banaun ere, gupidaz bederen, bizi den orok bere amaierakoan merezi duen urrikiarengatik... hator nigana! Haugi nigana!... Hire begirada urdinean behin bederen murgildu ondoren nahi ninake partitu haizerik gabeko mortuetara...».

Eta Bermeo-ko kaleska hestuek gurutzatu nituen, eta Matxitxako-ko lumaturra gainetik zeharkatu; eta han, oso oso urruti, Talaimendi, eta Arratzain, eta Mendizorrotz, eta Gudamendi, eta Txubillo somatu uste izan nituen. Baina ikusi, ezer ez nuen ikusi.

Eta Bakio aldera jarraitu nuen. Goitik zihoan kaminoa, Itsasoaren agerrean; eta honek goi hartatik, zabalago ematen zidan.

Negu mina zen.

Eta minutu batez gutxienez bazter hura lasai edoskitzekotan, geratu egin nintzen kaminoaren ertzean. Bostak besterik ez izanagatik ere, ongi abiatua zen arratsaldea; eta ilun xamar agertzen kostaldeko giroa.

Haize-bala etenkor batek inarrosi zuen orduan ene gaineko arbola soildua; eta urruti-min latzak harrapatu ninduen.

Baina aurrera segitzeko adina kemen topatu nuen neugan.

Eta bapatean, han, aurrean, nigandik urrunsko, Aketx uharte malkartsuaren ezkerretan, harrokazko bere inguru guztia bits-lerro zuri batez gailendurik eta Itsasoaren goibelak inguraturik eta zapaldurik, Gaztelugatxe. Eta inoiz baino harrigarriago iruditu zitzaidan bere harrigarria, inoiz baino zakarrago bere haitz zakarra, inoiz baino zutago eta malkorrago Bakio ondoko harkaitz olerkitsua.

—Geztelugatxe! —esan nuen ahapeka behin, eta berriz, eta zazpi aldiz.

Eta kaminoarekiko bide-gurutzera iristean, zalantza latzek dardaratu ninduten bakardadean; Itsas orroan nahasirik, ene haizekidearen ahots etsia entzun baitzitekeen:

«sinisten dut  
egun batean hilko naizela:  
hutsean eroria,  
ezerezean amildua,  
hauts bihurtuko naizela»...

Erromesgunera zihoan bideska lokatzez beterik zegoen; eta ezerk ez bide zuen Gaztelugatxe famaturainoko kilometro labaina oinez burutzerat bultzatzen. Nik, berriz, esperantza guztietatik at, esperantza bakarraren bila ere bai, hara nahi nuen: nola edo hala.

Eta neure gutun etsiaz oroitzen nintzen:

—Menturaz... agian... urrukiz bederen hurbilduko ahal zait!

Eta haize fina hasi zen, fin-fina, hotza; eskualdeko azken belar izpiak tarteka etzan eraziz. Eguraldiak, zinez, Mendebalde aldetik batez ere, areago zuen eurikara, are elurkara ere, beste ezer baino.

—Banoa, halere! —esan nuen goraki.

Eta putzuei eta buztin labainei kasorik ez eginenez, deliberatuki abiatu nintzen behereko aldera. Gaztelugatxeko harkaitz luzeska nire azpian bezala gelditurik, osoki inguratzen zuen Itsaso arreak, baita kaperen gainetik ere. Berriro ere mundua bitan erdibiturik, eta kostalderuntz ari, gaitza, urezko mendi eskerga berbera baileto-  
rren... «eta horma nahasi eta apartsu gisa, Itsaso eskerga altxa zen ene aurrean»...

Gaztelugatxe eta Bizkaiko ertza lotzen dituen murru zuta ikusten nuen garbiki, harresi tinko; eta honen gainetik pasabide hertsia mugatzen zuten bi paretek. Eta lerro bikun hark, ainguruz eta bihurgunez osatutako lerro bitxitan marrazten zuen kaperarako bide bitxia; eta antzinako gaztelu-ohia begietara erakartzen eta pizten.

Baina pasabide hestuan inor ez zegoen.

Eta egun hartako bidelagun maitagarri eta argitzaitzat neukan euskal poetak ekin zuen:

«sinisten dut  
hartuko nauen lur hortatik  
landare berriak sortuko direla:  
landareetatik zuhaitzak,  
zuhaitzetatik loreak»...

Eta «hartuko nauen» hitzen bikoiztasun lazgarriak hunkitu ninduen: har, hartu... biak batera behar!

«sinisten dut  
haiek ere noizpait  
lurrera deituak izanen direla»...

Izustarri-ko punta bera nekez agiri, alferrik begirutzen nuen Itsasoak suntsitua bide zen Igel-do aldera.

Eta ekin egin zuen poetaren kanta hunkigarriak:

«edertasunaren neurri bakarrean  
finkatuta bizi behar dugula  
sinisten dut,  
gainerako neurri guztiak  
gezurrezkoak direla»...

Eta, piskanaka, banaka-banaka, Itsas-argiak han eta hemen, eskuin eta ezker, pizten hasi ziren.

Eta erabat lazturik esan nuen:

—Gaua laister heldu!!

Eta bideska bukatu zen; eta ene aurrean, oihartzunak eta kresal usaina nabarmen, pasabidean gertatu nintzen. Hantxe neukan Gaztelugatxe maitatua.

Maribera zegoen.

Ekaldera begiratzean, ilun eta misterioz joserik agertzen zitzaidan Aketx uharte malkortsua. Ene ondoan, berriz, Strömstad eta Gehtaria-n bezalaxe, uraren ñabardura beltz ziruditen uraren gainetik ozta-ozta agertzen ziren harroka apalak. Eta ilunabarraren hotzak berak, malenkoniatsua-go egiten bide zuen arrats berezi hartako urbeheraren etsia:

«sinisten dut, bai,  
egun batean hilko naizela:  
hutsean eroria,  
ezerezean amildua,  
huts bihurtuko naizela»...

Eta neure buruari galdetu nion:

—Maitatu haudan hori gabe igoko ahal naiz azkenean?

Eta berehala, beste galdera baten bitartez, neronek erantzun nuen:

—Ehaiza beldur?

Kresal usaina ezinago sarkor egiten zen. Harkaitz gorri soil hartan, nekez aurki zitekeen belarrik ez landare izpirik; eta beroiek ere iharturik eta horiskaturik ageri ziren.

Eskuin aldean, berriz, eta beti ere harrigarri, harkaitza batetik bestera zeharkatu duten bi zuloz har handiak ikus zitezkeen: zabalagoa, borobilgoa, eta zubi-tankerakoa osoki eskuin-aldekoa; meherragoa, luzeskagoa, eta arraildura plegukoa berriz ezkerrekoa.

Uhartearen gainean, azkenik, kapera nagusia ageri zen ezker aldean; elkargainka bi teilatu gorri eta kanpandorre apal bat erakusten zituelarik. Berezirik, berriz, Matxitxako aldera, beste txabola txiki bat; kapera nagusiari harrizko bi murre apalez loturik.

Eta han dena malkor, dena amildegi txiki; eta harroketan dena ere higadura, eta artezi, eta goroldio, eta auka zela iruditu zitzaidan.

—Baina hi, ene kinka ezin larriago hartan ere, ez hintzen etorri!

Eta hiretzat nekarren oparitxoa askatu niran. Eta «Eternité» hitz bakarra irakurri niran hiretzako perfume botoilatxoan. Eta ireki egin niran, eta urrin lilugarria zerionan. Eta eskuan harturik, neure indar guztiez bota niran harroketara:

—Barnetik urrin eder izanak oro, Itsasoan gesal...

Eta behereko murre zutaren segidan, han zihuan ezker aldean, gaztetango bide berbera harkaitzean bera; eta Donostiako Santaklara uhartean gora ere doan bideskaren anaia bizkia izan zitekeela iruditu zitzaidan.



Eta higan tematu nindunan.

... Eta nirekin hintzela sinetsi ninan ia-ia...

... Eta ekaitzetan salbatutako arrantzale eskerronen eskaintzak elkarrekin begiratzen genituela... eta kapera nagusiko paretetan Urliaren eta Sandiaren izenak irakurtzen... eta hamaika denboraletan bermeotarrek egindako otoitz oparoen berri izaten...

Eta beheruntz abiatzen ginela elkarrekin... eta lipar batez Itsaso zabala gain gogor hartatik begiratu ondoren, eskutik helduta abiatzen ginela beheruntz, haizea gelditua ez den zelai kuttun horretaruntz... jauzika...

Eta hi baino azkarkiago jeisten nindunan ni, oroitzen haiza?... Eta beherean, bideko hurrengo bihurgunean, itxaron egiten hindudan... Korrika hentorren hi, eta algaraz, eta nik neure besoetan jasotzen hindudan orduan... Eta behereko pasabidera iristean, harroka latz horietzek begiratu genizkinan. Oroitzen haiza?... Eta malenkonia zerienan berei ere... Eta horretara, elkarrekin ez bada, ez hi eta ez ni sekula etorriko ez ginela agindu genionan elkarri. Eta hitza bete ninan... gaur arte betea! Gaztelugatxe honetara ez bainintzen sekula etorri...

... Baina ahots gupidagabe bat entzun zen bazterretan:

—Itsasoari zegokiok Itsasoa... Etsi ezak... Lakua zegokian hiri, eta hiretzako lakua idortua duk!

Eta Aketxe-ko malkor zutetan ere mezu bera entzun zen.

Eta, une berean, izugarrizko oinazeen artean, azken haize-bala nigan eteten eta suntsitzen zela nabaitu nuen nabarmenki. Eta behinola ezagutu-tako nekeek berriro laister gaudituko ninduke-tela; eta, hitz batez, bigarren aldiz (azkeneko al-diz!) basamortu beldurgarri guztiez bestalderaino joan beharra nintzela.

Eta garrasi urrikor batez esan nuen:

—Nola egin dezake inork barrerik? Barrea: horra hor eskandalo nagusia!

Eta abiatu egin nintzen halere bideska txio-rean gora; eta eskuez harresiari helduagatik ere, ezin gogorrago eta akigarriago gertatzen zi-tzaidan Gaztelugatxerako aldapa. Ito egiten nin-tzen; baina arnas hestuka izango bazen ere, saia-tu egin nahi nuen azkeneraino, eta nola edo hala tontorreraino heldu.

Eta heldu egin nintzen gaineraino.

Eta Itsasoa bezturik atxeman nuen; eta Itsas-ertzaren lerroa Euskal Herriko Itsas-argien ila-rak markaturik zegoela.

Eta tristura ikaragarriak hunkitzen ninduela:

«hutsean erori behar...  
ezerezean amildu behar»...

Eta hitz hauek aurkitu nituen neure barnean:

—Ene Aberria... Itsasoa da!!!

Eta, bertantxe, hurrengo xegundoan bertan, kaperaren ondoko harlosa hotzaren gainean erori nintzen, zerraldo; eta Muitza-ko labarretik beretik harroketaraino erortzean har nezakeen kolpe dorpe berbera hartu nuen buruan eta gorputz guztian...

Eta hauspo beldurgarri bat gelditzen ari entzun nuen; antzinako denboretan baforezko lokomotora zaharrak aldapa erpinetan gorakoan moteltzen eta gelditzen zirenean bezalatsu; eta zeharo gelditurik ere somatu nuen segidan...

Eta gau gaztearen goiztiri etsian ere, lipar ezinago labur eta iheskor batez bederen, Gaztelugatxe ahantz-ezin hartarik eta mila Itsas-argi ñirñirkari lekuko, Itsasoa ikusi nuen...

zabal...

bare...

baztergabe...

.....

# I

Eta Itsasoak...